

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA  
DSS2016.EU



# *demagun ehun urte barru*

*anjel  
lertxundi*



ELKARRIZKETAK  
CONVERSACIONES

KARTA ZURIAK  
CARTAS BLANCAS





*demagun*  
*ehun urte barru*



*demagun ehun urte barru*

Lehen edizioa: 2017ko maiatza

Primera edición: mayo de 2017

© Egileak / Autores: Anjel Lertxundi, Harkaitz Cano, Javier Cercas, Karlos Cid, Marie Darrieussecq, Adan Kovacsics, Miguel Sáenz, Raul Zelik (eskubide guztiak erreserbatuta / reservados todos los derechos)

© Itzulpenak / Traducciones: Joxan Elozegi, Petra Elser, Gerardo Markuleta, Edorta Matauko, Bego Montorio, Jon Muñoz, Koro Navarro (eskubide guztiak erreserbatuta / reservados todos los derechos)

© Fundación Donostia / San Sebastián 2016 Fundazioa

© Argitalpen honena / De esta edición: EIZIE. Donostia 2016

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. / Cualquier forma de reproducción, distribución, comunicación pública o transformación de esta obra solo puede ser realizada con la autorización de sus titulares, salvo excepción prevista por la ley.

Edizioa / Edición: Xabier Olarra

Azalaren diseinua eta maketazioa / Diseño de la portada y maquetación:  
Sara Zamarro

EIZIE

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte

Zemoria, 25. 20013 Donostia

Tel. 943 277 111 / e-mail: [bulegoa@eizie.eus](mailto:bulegoa@eizie.eus)

[www.eizie.eus](http://www.eizie.eus)

Inprimatzailea / Imprenta: Itxaropena, S. A.

Araba kalea 45. 20800 Zarautz

Tel. 943 835 008 / e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

ISBN: 978-84-697-2314-2

Lege gordailua / Depósito legal: SS-418-2017





***“Hemendik ehun urtera,  
artean gure hizkuntza existitzen bada...”***

Witold Gombrowiczek Czeslaw Miloszi gutun batean,  
poloniar literaturaren etorkizunaz ari direlarik.

***“Si dentro de cien años nuestra lengua todavía existe...”***

Witold Gombrowicz a Czeslaw Milosz, reflexionando en torno al  
futuro de la literatura polaca.





# *demagun* *ehun urte barru*

*anjel*  
*lertxundi*



DSS2016.EU

**EIZIE**  
euskal itzultzaile, zuzentzaile eta  
interpreteen elkartera



-  
*ongi*  
*etorria*



# - *karta zuri bat*

*Xabier Paya Ruiz*  
*Kultur Programaren Zuzendaria*  
*Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua*

**KARTA JOKOAN**, *Joker* edo komodinaren irudia sortu aurretik, azal zuriko ale bat omen zen haren baliokidea. Kartaren jasotzaileak eskuan zituen gainerako kartei ondoen zegokion aletzat hartzen zuen karta irudigabea, eta hala abaguneari ahalik eta etekin handiena ateratzeko aukera lortzen zuen. Ziurrenik aukera horren izpirituari tiraka sortuko zuten *carte blanche* egitasmoa Frantzian. Ezagun samarra da frankofonia deiturikoan oro har: kultur arloko erakunde batek baliabide jakin batzuk eskaintzen dizkio artista bati haren iritziko kultur jarduera sorta gauza dezan. Artistak diziplina jakin batean ibilbide nabarmena izan ohi du, eta ohiko programazioa hai-zeberritzeko joera izaten du gehienetan.

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren hautagai-tzako programak ez zuen aurreikusi karta zurien proiektu-rik. Donostia 2016 Fundazioko Zuzendari Nagusi Pablo Berásteguiaren ekimena izan zen egitasmoa programan txertatu eta karrera oparoko hiru sortzailei karta zuri bana ematea: Esther Ferrer diziplina anitzeko artista, Jone San Martín dantzari eta koreografoa, eta Anjel Lertxundi idazlea. Artis-ta bakoitzari baliabide jakin batzuk eskaini dizkio Donostia 2016k, ospakizun urtearen barruan bakoitzak bere jarduer-a-eremuan proiektu bat garatzeko.

Europako Kultur Hiriburu baten programan sartzea, hala ere, ez da gauza sinplea. Proiektu orok hiru irizpide bete behar ditu: Europar dimentsioa jorratu behar du (hau da, Europako kultur eragile edo sortzaileen arteko elkarlana, edo Europar Batasunaren estrategiatan jasotako gaiak landu behar ditu), herritarren partaidetza sustatu behar du (herritarrei ekime-nean parte hartzeko bide eta aukera ugari eskaini behar dizkio, hain zuzen) eta legatua izan behar du (jardueraren emaitzak 2016. urteaz haragoko jarraipena izan behar du, alegia). Kasu honetako karta zuriak, beraz, hiru baldintza gehigarri horiekin jaso dituzte sortzaileok.

Anjel Lertxundiren hautaketak ez du inolako azalpenik be-har; gutxi dira haren uzta literario oparoa berdindu dezaketen euskal idazleak. Gogoan dut proposamena egin genionean las-ter eman zuela baiezkoa, baina gerora aste batzuk hartu zituen proiektuaren muina ontzeko. Emaitza ezin egokiagoa izan zen: Milosz eta Gombrowicz idazle poloniarren arteko gutun-trukea aitzakia hartutako literatur proiektua. 2016ko beste kultur hiriburua Poloniako Wrocław hiria izateak abiapuntu bikai-na eskaintzen zuen poloniar literaturari buruzko jakin-mina

pizteko. Elkarrizketak zalantzan jartzen zuenez polonieraren biziraupena, Anjelek ez bai hori baliatu zuen eremu urriko hizkuntzetan diharduten sortzaileen jardunaren hauskorraz gogoeta egiteko. Are gehiago, bizikidetzan hain osasungarria den bestearen tokian jartzeko gaitasuna sustatu nahian, hizkuntza hegemonikoetako idazle eta itzultzaileei sentiarazi nahi izan zien espazioan eta denboran irismen urriagoko ele batean aritzearen agonia.

Abenduaren 12an eta 13an elkartu ziren Anjelen erronkari baiezkoa emandako hiru idazle eta hiru itzultzaileak. Topaketa horien iritzi-trukearen ondoren, bakoitzak bere inpresio eta bizipenak jaso zituen liburu honetan jasotako testu banatan. Horra, beraz, arestian aipatutako irizpideak ederki betetzen dituen karta zuria:

– Europako hizkuntz aniztasunaren inguruko gogoeta eragiten duten topaketak eta liburua dira egitasmoaren oinarriak; gizarte hausnartzaile eta inklusiboak sortzea 2020 Ikusmira Estrategiaren erronketako bat da, besteak beste.

– Herritarrek topaketetan parte hartzeko aukera izan zuten, eta liburua gaiaz interes berezia izan dezaketen idazle eta itzultzaileen esku jarriko du Donostia 2016k.

– Topaketen grabazio sareratuak, euskaraz, gatzelaniaz eta idazleen jatorrizko hizkuntzetan argitaratutako liburua eta idazle-itzultzaileen arteko harremanak proiektuaren jarraipena bermatzeko gakoak dira.

Donostia 2016ren izenean, eskerrik zintzoenak helarazi nahi dizkiet proiektuan parte hartutako lagun guztiei: Anjel Lertxundi, Harkaitz Cano, Marie Darrieussecq, Javier Cercas, Raul Zelik, Adan Kovacsics, Miguel Sáenz, Karlos Cid, Antton Valverde, Goizalde Landabaso, Xabier Olarra, topaketetako

interpreteei eta liburuaren itzultzaileei, eta EIZIE eta EIE elkarteei; eta nola ez, egitasmoaren koordinazioaz arduratu den Donostia 2016ko lantaldeari, Felipe Retamal lankidea buru izanik.

Ziur nago liburua irakurtzen duen orok hainbat hizkuntzatan mintzo den gizarte baten bizikidetzaz hobetzeko bidean urrats bat gehiago egiteko bidea irudikatzeko pista ugari jasoko dituela. Irakurraldi on!







-

# *demagun ehun urte barru*

*hizkuntza gutxitu bateko idazle*

*Anjel Lertxundi*

**HERIOTZAK LUZE** saihetsezina du itzala: denok/dena hil beharra. Finitoak gara. Jaioko dira berriak, dio gure kanta batek, baina heriotza hurbil sentitzen duenarentzat ez da kontsolamendu. Azken ordua hurbil ikusten duenak eutsi egin nahi dio bizitzari, atzeratu egin nahi du heriotza, erremedioak bilatu nahi ditu aje, adin, ahuldade eta gaixotasunen kontra. Bizitzaren legea da bizitzari eutsi nahia, eta heriotza existituko ez balitz bezala jokatzeko dugu. Hala ere, gertatzen da gorputzaren flakiak edo osasuna galtzeko arriskuak eragin egiendiola bizitzari. Halaxe hizkuntza eta halaxe hizkuntzaren osasuna: haren egoerak, osasunak bezala ahuleziak, eragin

egiten dio hura mingainean darabilenari, harekin letrak bi-  
ziarazi nahi dituenari.

Idazle bakoitza mundu bat da, eta hizkuntzak berebi-  
ziko garrantzia du bere idazle-mundu horretan. Hizkuntza  
bakoitzak bere arnasa du, bere ibilera, bere idiosinkrasia; be-  
re akatsak eta bertuteak; bere alde herrenak eta osasuntsuak.  
Hizkuntza bakoitzak munduan izateko bere estilo propioa du.  
Hizkuntza nolakoa den eta idazleak nolako harremana duen  
hizkuntzarekin: horra marka ezabaezin bat idazle horren lite-  
raturan. Hizkuntzaren egorak deus edo oso gutxi eragiten dien  
idazleak daude eta egoera hori modu agonikoan bizi dutenak  
daude (“pesimismoaren turutak jotzen dituztenak”, Zygmunt  
Mycielski poloniarren hitzetan): idazle-mota asko kabitzen  
da abaniko horren zabaltze-biltzeen eremuan. Baina kasu guz-  
tietan da neurgarria hizkuntzaren egoera, pisua, lasta. Horri  
esker, idazle batek hizkuntzarekin duen harremanak asko balio  
digu haren lan artistikoa ulertzeko orduan.

**GOGOAN ILTZATUTA** gelditu zitzaidan, badira urte ba-  
tzuk, Gombrowiczek Czeslaw Miloszi idatzi zion gutun bateko  
espekulazioa eta liburu honetan bildutako kolaborazioen mui-  
na: bi idazle poloniarrek beren nazioko literaturaren etorkizuna  
zuten gutun-trukaketaren gaia, eta Gombrowiczek ziotson Mi-  
loszi, baina ia bere baitarako bezala: “Hemendik ehun urtera,  
artean gure hizkuntza existitzen bada...?”.

Milan Kunderaren *Le rideau* liburuaren *El telón* espainiar  
bertsiotik hartu nuen aipua. Luzeagoa da orduko hartan azpi-  
marratu nuena, Kunderak aipua eman aurretik egindako iruz-  
kin laburrak ere nire atentzioa erakarri baitzuen. Hona gaz-  
telaniazko testuaren azpimarra osoa: “Gombrowicz, en una

carta a Czeslaw Milosz, escribía una frase que no se le habría ocurrido a ningún español: “Si dentro de cien años, nuestra lengua todavía existe”<sup>1</sup>. Oriñnalean ere *notre langue* dio: “Si, dans cent ans, notre langue existe encore...”<sup>2</sup>.

Ordurako irakurriak nituen Gombrowiczen *Egunerokoak* —bertan ageri da Kunderak aipatutako gutuna—, baina ez nion erreparatu esaldiari. Ez da harritzeko: Kunderak *notre langue* dioen tokian, Bozena Zaboklickak eta Francesc Miravittlesek, Gombrowiczen itzultzaileek, honela ematen dute esaldia: “Dentro de cien años, si todavía somos una nación...”<sup>3</sup>. Ez da, noski, gauza bera, baina Gombrowiczek *Polonia* edo *nazioa* polonieraren komunitate gisa ulertzen du bere testuetan. Zilegi zitzaidan, beraz, esaldia Kunderak frantsesez emandako moduan hartzea. Baina, badaezpada. Katarzyna Sosnowska itzultzailearengana jo nuen. Katarzyna uste nuena baieztatu zidan mezu adeitsu batean. Gombrowiczen oriñinalak dio: “Za sto lat, jeśli *pozostaniemy narodem* [...]” (Dentro de cien años, si seguimos siendo una nación”), eta Katarzyna dio bere mezuan: “Iruditzen zait Gombrowiczek multzo kultural baten moduan darabilela nazioa. Hala ere ez nago oso seguru harentzat oso argia ote zegoen nazio kulturalaren eta nazio politikoaren arteko diferentzia. Ezin dugu ahaztu Gombrowicz jaio zela eta hazi zela Poloniak artean ez zeukanean bere estatu nazional propiorik; beraz, harentzat, Miloszentzat eta haien belaunaldiarentzat bezala, nazioaren iraupena gehiago kontzentratzen zen hizkuntzan eta kulturaren borroka politikoan baino”<sup>4</sup>.

**POLONIERAK** duena bezalako tradizio literario oparoan lan egiten duen idazle batek zalantza hori agertzen badu bere hizkuntzaren iraupenaz, zer esan beharko luke tradizio literario

<sup>1</sup> Milan Kundera, *El telón*, Bartzelona, Tusquets, 2005.

<sup>2</sup> Milan Kundera, *Le Rideau. Essais en sept parties*, Paris, Gallimard, 2006.

<sup>3</sup> Witold Gombrowicz, *Diario (I)*, Madril, Alianza Editorial, 1998.

<sup>4</sup> Katarzyna Sosnowskaren komunikazio pertsonala (2017-1-30)

urriko idazle batek, demagun euskaraz ari den batek? Logikak dio hizkuntza agoniatsu batean idazteak nahiko berekin dakarrela idazle agoniatsuak sortzea... Komeni zaigu —idazten dugunari komeni zaio— kontuan izatea.

Hizkuntza guztiak dira ahikorrak, baina iraugipen-data hurbil batek nola eragiten dio hizkuntza horretan ari den idazle bati? Kausa-efektu gurpil horretatik askatzea eta borroka horretatik etekin literario ahalik emankorrena saiatzeta da, ene ustez, trantze hori bizi dugunok literaturari egin diezaiokegun ekarpenik originalenetakoa; eta idazkuntzak hizkuntza jakin batean baitauzka bere erroak, ia ezinbestekoa egiten zait —normala, alegia— euskararen etorkizunak toki berezia izatea gure kezka eta hausnarketa literarioen artean.

Finan, gutxi erreparatzen zaion auzi bat da hizkuntzaren egoerak eta idazlearen lanak duten harremanarena, baina nago berebiziko garrantzia duela, artistikoki bezala sozialki ere, gure mundu gero eta globalizatuagoan. Askok pentsa dezake iraugipen-data buru ganean sentitzen duten literaturak *in margine* bizi direla, zaharretxe batean bezala, azken kanpaiak noiz entzungo. Baina ahuleziak ahulezia, sistema literario oso bat konformatzen dute beren ahulenean ere. Eta, inportantea: sortzaileen bulkada artistikoak literatura indartsu-*netako* idazleenak bezalakoak dira izatez eta anbizioz; beste kontu bat da hizkuntzaren egoerak —tradizio urriak, sistema literarioaren *handicap* nabarmenak, sozializazioak...— marraztutako mapa inkognitez betean ibili beharra. Baina hanhemengo literatura *txiki*en gero eta presentzia handiagoak berekin dakar galdera egitea ere halako literaturen existentziaz eta globalizazioan luketen tokiaz. Baina hizkuntza hegemonikoetako idazleen parte hartzearekin errazagoak lirateke

hausnarketa eta debatea. Hala ez bada, nekez lortuko dugu elkarren arteko komunikaziorik, nekez egingo dugu argi pixka bat literatura urrietako idazleok soilik hain ugaritasun handiko mundu asimetrikoan.

Herri elebidun batean eta herri horretako hizkuntza ez hegemonikoan idazten dudalarik, beti piztu du nire jakinmina halako egoera batek nola eragin liezaiokeen idazkuntzari. Horixe izan zen, bada, joan zen abenduan hainbat idazle eta itzultzaile Donostian biltzeko asmoaren oinarria.

**NIRE IDAZLE LANAK** kanpora eramaten nauenean ez da batere bitxia izaten kazetari, irakurle, katedratiko edo beste idazleren baten galdera entzun beharra: zergatik idazten duzu euskaraz? Ez gara galdera jasan behar izaten dugun bakarrak. Adam Zagajewski idazle poloniarrek *En defensa del fervor* liburuko azken testuan dio besteak beste:

“Batuetan nire lagunek galdetzen didate: zergatik ez duzu ingelesez idazten? Edo —Frantzian banago— zergatik ez duzu frantsesez idazten? Dirudienez, jakintzat ematen dute aldaketarekin irabazi egingo nukeela, baliagarriagoa delako nazioarteko hizkuntza batean jardutea hizkuntza probintziano batean baino. Printzipioz, bat nator; bai, agian praktikoagoa litzateke hizkuntza hedatu batean idaztea [...] Polonieraz idazteak esan nahi du Poloniako historiaren herentzia konplikatu onartzea”<sup>5</sup>. Eta Czeslaw Miloszek *Abecedario* autobiografiako *Poloniera* sarreran: “Polonieraz idazteak, non bizi garen kon-tuan izan gabe ere, belaunaldiz belaunaldi hazten doan obra kolektibo bateko partaidetza adierazten du”<sup>6</sup>.

Hizkuntza baten hautamena egiten duen idazleak hizkuntza horretan mintzatzen den komunitatearen historia hartzen

<sup>5</sup> Adam Zagajewski, *En defensa del fervor*, Bartzelona, Acanilado, 2005.

<sup>6</sup> Czeslaw Milosz, *Abecedario*, Madril, Fondo de Cultura Económica, 2003.

du oinordetzan, baina hartzen du oinordetzan komunitate horrek isiltzen duena ere (batez ere isiltzen duen hori adierazteko behar du herentzian jaso duena).

**JAIO GINEN, BIZI GARA** inguru kultural baten erdian, laster hizkuntza baten jabe egiten gara, mintzatzen gara gure aurrekoek asmatu zuten tresna batekin. Jaso dugun ondare kulturala aktibatzea da hitz egite soila. Hitz egiten dugunean, gu manifestatzen gara, baina tradizioa eta historia manifestatzen dira gurekin. Hitzetan dago isildutakoa ere, guk entzuteko zain. Hizkuntza da arbasoek utzi ziguten ondare espiritualena, hitz egiten duguna gure aurrekoek asmatua da ia ehunean ehun. Ondare espiritual hori da guk ondorengoei utziko dieguna.

Etorkizunaz ari naiz, baina ezin dut ahaztu zenbat kemen eskaini behar izan diogun euskararen etorkizunari. Gaixo baten moduan ikusten genuen euskara, etxeko hizkuntzaren gaixotasunaz mintzatzen zitzaizkigun gurasoak, hurbileko jendea, gure eskuetara iristen zen euskarazko produkzio urria: gure aurreko belaunaldi literarioek orduak eta orduak ematen zituzten amaren ohe ondoan haren arnasestiak entzuten. Uste dut euskara sentitzeko modu agoniko horrek ikaragarri markatu gintuela, eta uste dut, halaber, gure osasun literarioak bezala euskararenak ere hizkuntza bizitzeko modu askatu eta askatzaileak behar dituela.

**HIZKUNTZA HEGEMONIKOETAN** idazten duen jendea apenas den kontziente erabiltzen duen tresna horren iraupen finitiaz. Ezta beharrik ere. Hizkuntza osasuntsu batean idazten du, eta zailtasunak izatekotan, ez dira hizkuntzak eraginak, idazlearen beraren exigentzia artistikoak edo merkatuaren ti-



raniak baizik. Hizkuntza gutxituetan idazten dugunok, al-  
diz, halaberharrez pentsatzen dugu hizkuntza agian desagertu  
egingo dela etorkizun hurbil samarrean edo ez hain hurbilean;  
ezinbestean pentsatzen dugu hizkuntzaren ezintasunetan, di-  
glosian, hizkuntzaren nolakoak eragiten dizkigun kezketan...

Historian oso atzera egin gabe ere: galera linguistiko eta  
kultural handien lekukoak izan gara frankismoaren garaian.  
Euskara zertan den gaur, zer izango den etorkizun hurbilean?  
Soziologiak eta gure pertzepzioak optimismorako bezala  
ematen du pesimismorako ere. Nolanahi ere, komeni zaigu ez  
ahaztea joan zen mende hasierara arte gaskoia oso presente  
egon zela Donostian eta inguruetan, hor dauzkagu gaskoia  
bertako toponimian utzitako oroigarri gisako lekukoak: Urgull,  
Miramont, Amara, Embeltrán, Aiete, Morlans... Agian ho-  
rregatik ere bagara sentiberagoak. Oraindik oroimenean  
dugu galera hura, eta oraindik oroimenean dugu euskara  
zein egoeratan zegoen ume ginenean: agian horregatik ere  
salbamendu-oholari edo erreskate-ontziari bezala begiratzen  
diogu iraupenaren auziari. Lar kezkatzeraino, beharbada;  
morbo agonikoaren obsesioarekin bizitzeraino. Baina etor-  
kizunari begiratu nahi baldin bazaio, benetan da sanoagoa  
bai hizkuntzarentzat bai hiztunontzat gure esamolde batek  
aholkatzen diguna: “hil artean bizi, lagunok!”, eta ahal den  
modurik duin emankorrean izan dadila.

Azken finean, idazle zein itzultzaile baten lan-tresna  
—hizkuntza— kinka larrian egotea edo osasuntsu egotea ez  
da garrantzirik gabeko auzia beren lanerako. Besteak beste,  
osasunak kezka uxatzen du eta bizipozerako aukera ematen.  
Hargatik, zer-nolako eragina ote du idazleongan eta irakur-  
leongan tradizio oparo batetik idazteak edo ia tradizioirik

gabeko urritasunetik? Gauza bera ote da aspaldi estandarizatutako hizkuntza batean aritzea eta, aitzitik, batu gabe edo batu berri batean? Arazo berak eragiten ote ditu lan-tresnaren ofizialtasunak edo ofizialtasun faltak? Berdin begiratzeko ote zaiio munduari hizkuntz harremanen hegemoniatik edo diglosiaren erosiotik?

**HERTA MÜLLERREK DIO** hizkuntza bakoitzak dituela bere begi propioak<sup>7</sup>. Mintzoaren egitura eta ezaugarriak, mintzo horren tradizioa eta eguneroko bizitza, eta, noski, humus horretatik sortutako literatura ditu hizkuntza batek begi propioak. Hizkuntzak zenbat moldatzen digu ikuskerara, hizkuntza bakoitzaren idiosinkrasiak zenbateraino eragiten dio begiradari? Zaharra da debatea, badakit, baina ez du gaurkotasuna galdu. Eta ez da hemen bildu gaituen debatea, zerikusi handia baldin badu ere egunotan hemen eztabaidatu nahi dugunarekin.

Ados baldin bagatoz oinarriarekin, hau da, ados bagaude munduari begiratzeko modu orijinal bat dela hizkuntza bakoitza, eta ados bagaude ez dagoela hizkuntzarik espresibitatearen monopolioa eta mundua zuzen kontatzeko bermea dituenik, baizik begi guztiek dutela mundua ikusten bakoitzak bere mintzoaren ezaugarrien arabera, ados egongo gara Muñoz Molinak dioenarekin ere: “edozein hizkuntza da bakarra eta nahitaezkoa, hizkuntza horrek mila hiztun izan ala mila milioi”. Baina bat etorrita ere hizkuntza bat galtzeak kalte handia dakarkiola munduari, nola neurtzen da kaltea eta munduak nola bizitzen du galera?

**HIZKUNTZA GUZTIEK** mundua izendatzeko eta deskribatzeko potentzialtasun bera izanagatik ere, hizkuntzen zirkunstantziak

<sup>7</sup> Herta Müller, *Mi patria era una semilla de manzana*, Madril, Siruela, 2016.

desberdinak dira, eta hizkuntza baten egoerak haren historiari eta garapenari eragiten dio. Zirkunstantzia guztiak ez dira historikoak, hizkuntzaren beraren izaerak ere badu zerikusia hizkuntza horren garapenean. Jar dezadan idazkuntzarekin zerikusia duen adibide bat: gure hizkuntza aglutinatzailea da eta berezkoa du —naturala— hitzak luzatzeko joera. Hori ez da ez on ez txar: da. Euskaraz nekoso baldin bada silaba bakarreko hitzekin esaldiak osatzea —*ez da ez on ez txar: da*—, are korapilatsuagoa da halakoekin testu luzeak txirikordatzea, silaba gutxiko hitzek ahalbideratzen duten erritmo bizi bat sortzea, eta, ondorioz, Racineren bertsoa bezalako perlak abiaraztea: *Le jour n'est pas plus pur que le fond de mon coeur* (Zerua ez da puruago nire bihotzeko hondoa baino)<sup>8</sup>.

“Hizkuntza bakoitzak muga batzuk ditu, baina baita aukera batzuk ere bere-bereak direnak eskusiboki”<sup>9</sup>, zioen Italo Calvinok. Gure-gureak diren ezaugarri horien aukera espresiboetan sakontzea da gure egitekoetako bat.

Eta hona non hainbat idazle eta itzultzailek egiteko horren funtsaz jardun genuen 2016ko abenduan, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko programazio zabalaren baztertxo batean: hizkuntza baten egoerak zenbat eragiten dio idazle baten idazkuntzari, bere lanari?

Donostian bildu genituen idazle eta itzultzaileei honela zehaztu genizkien proposamena eta eskaria:

[...] imajina ezazue zuen burua tradizio literario urriko hizkuntza bateko idazle edo itzultzaile gisa. Oso eskergarria genuke zuen ikuspuntua, interesgarria zaigu jakitea nola kokatuko zenuket zuen lana gure gaurko munduan —gure tokian jartzeari inolako zentzurik ikusiko zenioketen kasuan, jakina—, eta, batez ere, guretzat perspektiba interesgarri

<sup>8</sup> Jean Racine, *Phèdre et Hippolyte*, Paris, Le Livre de Poche, 1985.

<sup>9</sup> Italo Calvino, *Mundo escrito y mundo no escrito*, Madril, Siruela, 2006.

asko zabaltzen dituen talaia litzateke honakoa: zuen ustetan halako egoera batek zer eragin izango luke zuen idazkuntzan? Lanbide zenuketen hizkuntzaren destino lausoa zer-nolako zama izango litzateke zuen literaturarentzat? ”.

**LUZE JOKO LIDAKE** euskararen historiak gaiarekin dituen zerikusiak izendatzeak, eta ez da hau horretarako abagunea ere, baina idazle naizen aldetik eta nik nire hizkuntzarekin bizi dudan harremanarekin lotuta, lau zirkunstantzia aipatuko ditut:

**Lehendabiziko zirkunstantzia, urritasuna:** gure tradizio literarioa urria da, tradizio propioak ez du aseko gaituen eredu literariorik. Baina, nolana ere literatura nazionalak deitzen izaera ez da orain mende batzuk bezalako, ez dira garai bateko konpartimentu isolatuak, gehiago ezagutzen dugu elkar, gaurko idazle bati errazagoa zaio ereduak bere hizkuntzatik kanpo bilatzea hemezortzigarren mendeko poeta bati baino. Harkaitz Cano, 2016ko abenduko jardunaldiak antolatzen hainbeste lagundu zidan laguna, eta ni, biok euskaraz idatzia-gatik ere, elkarrengandik urrun egon gaitezke eredu literarioan bezala aukera estetikoetan; eta, aldi berean, gure lanak irakurri dituen irakurleak badaki Harkaitzen erduek harreman gehiago dutela Estatu Batuetako hainbat jardunekin eta baita zehazki literarioak ez diren hainbat mugimendu artistikoekin ere. Klasikoagotzat naukate ni, hurbilago nago Europa zentraliko hainbat jardunekin.

Garai bateko literatura nazionalen isolamenduak bere baitako bizitzan markatzen zituen joera estetikoaren arteko tentsioak. Gaur, ez. Gaur hizkuntza gutxitu bateko idazle bateko nazioarteko jardun, korrante eta aire poetikoekin kontrastatzen ditu —agian hizkuntza hegemonikoetako gehienek ez be-

zala— bere jarduna, iritzi literarioak eta bulkada estetikoak. Paradoxikoa badirudi ere, gerta liteke hizkuntza hegemonikoe-tako literatura isolatuago egotea bere hizkuntzaren mugetan.

**Bigarren zirkunstantzia, euskara batua:** azken mende er-dian ez zaizkigu zailtasunak, polemikak eta tentsioak faltatu, baina uste dut nahiko bide eredugarria egin dugula hizkera li-terario batu baten bila. Batasunaren bidean, euskal idazleok Espartako soldadu haien diziplinarekin jokatu dugu: hil ala bi-zikoa genuen hainbat dialektotan banatutako gure hizkuntzaren batasuna, baina, aldi berean, askotan sakrifikatu ditugu litera-turak hain berezkoak dituen askatasuna eta errebeldia, euskara batua aurrera ateratzeko behar izan dugun diziplinaren kausaz.

Nolanahi ere, lorpen handia da batua. Orain berrogei urte ez bezalako eredu komuna daukagu idazteko, eta baita aukera gehiago ere zurruntasunak eta konplexuak baztertu eta aska-tasunetik zein askatasunez sortzeko.

Alde askotatik begiratuta, gure belaunaldiak, batuari berari forma literarioa ematea lortu du, gure obreakin lagundu dio ba-tasunaren prozesuari, orain berrogei urte ez geneukan errealitate bat eraiki dugu. Euskara batuaren eremua da Atxagaren Oba-ba, halaxe da Sarrionandiaren *Lagun izoztua*, euskara batuan idatzitako monumentu bat da Saizarbitoriaren *Martutene* ere.

Apaltasun osoz: fortuna handia da idazle baten sormena-rentzat halako momentu historiko batean egokitu eta parte hartu izana. Yorgos Seferisek bere *Egunerokoan* greziera mo-dernoaz egindako hausnarketak ondo ilustratzen du adierazi nahi dudana:

“Gure hizkuntza bedeinkatua berritu: abantailaren bat izan behar genuen literatura zahar, literatura landu-landuen aurrean”<sup>10</sup>.

<sup>10</sup> Yorgos Seferis, *Días, 1925-1968*, Madril, Alianza Editorial, 1997. (Euskaraz emandako aipua gaztelaniazko bertsioetik hartua da eta bertan “[...] requete-elaboradas lenguas” dio).

Baina halako fortunaren aurrean komeni da eskura izatea kontrapisua ere, Àlex Susanna poeta katalanak *Quadern dels marges* liburuan erakusten duen bidetik:

“Gutxi garatutako literatura baten [...] parte izatearen arazo eta arriskuak: laster ere laster ezagutzen da literaturaren eremu osoa, ibiltzen da osorik, neurtzen da alderik alde. Itomena baino areago, asperdura [eragin lezake], estimulu eta sorpresa falta”<sup>11</sup>.

Bestalde, eta sorkuntzaz ari naiz ez politika linguistikoez, idazleok ez dugu lortu batuaren eta euskalkien arteko oreka, Italo Calvinok “nobelaren hizkera ideala” deitzen duena<sup>12</sup>.

**Hirugarren zirkunstantzia, literatura unibertsalak euskara ere ikasi zuenekoa:** oraintsu arte oso itzulpen gutxi izana da beste puntu ahul bat. Beste hizkuntzetan irakurri ditugu, halabeharrez, maisu-lan klasikoak eta garaikideak, oraintsu arte Fabrice del Dongok eta Madame Bovaryk ez zekiten euskaraz; ez zekiten euskaraz Leopold Bloomek eta Frankensteinek, Pedro Páramok eta Abel Sánchezek; *Berlin Alexanderplatz*eko pertsonaiak euskaraz ere mintzo zaizkigu orain Alexanderplatzetik.

Idazle eta irakurle guztiok gara elebidunak (gutxienez), gehienak euskaraz eta gaztelaniaz Hegoaldean, euskaraz eta frantsesez Iparraldean. Irakurri dugun ia literatura guztia euskara ez den beste hizkuntza batean jaso dugu, eskolan irakatsi ziguten hizkuntza bakarrean bereziki.

Umetan hobeto identifikatzen nuen gaztelaniaz irakurtzen nuena euskaraz irakurritakoa baino. Gaztelaniaz irakurtzen nuena bat zetorren entzuten eta hitz egiten nuen gaztelanirekin. Euskaraz irakurtzen nuen apurra ez zetorren bat etxeko eta kaleko euskararekin, urruti zeuden elkarrengandik, nahiz irakurtzen nuen hura entzuten eta hitz egiten nuena nire euskalki berean egon.

<sup>11</sup> Àlex Susanna, *Quadern del marges*, Bartzelona, Planeta, 2006.

<sup>12</sup> Italo Calvino, *Mundo escrito y mundo no escrito*, Madril, Siruela, 2006.

Euskara ez den hizkuntzaren ezagutza akademikoak eta irakurri dugun ia guztia hizkuntza hartan irakurri izanak itzultzaile mental izatera behartu gaitu.

**Laugarren zirkunstantzia, munduan gaude.** Adituek diote hizkuntzen arteko *lingua franca*ren lana betetzen duen ingeles-edo instrumental praktikoa —gaur-gaurko komunikazio elementalenaren tresna nagusia dena eta, aldi berean, bere itzalpeko hizkuntza guztietan sekulako eragina duena— murriztuz laburra dela, funtzionala, burokratikoak, premia materialei lotua, grisa, xehetasunik gabea, esantzat emandakoekin eta ulertuzat jotakoekin jokatzeko duena. Bertako abstrakzioak sakonerarik gabeak omen dira eta konkretzioak, berriz, asmo eta destino bakarrekoak; ez omen du metaforizaziorako eta ironiarako gaitasunik.

Batu literarioa gauzatzen hasi zen bezain laster, euskara administraziora eraman beharra iritsi zen eta batu burokratikoak hasi ziren garatzen, neurri handi batean literaturan egindakoa aintzat hartu gabe.

Ezaguna da kazetaritza bezalako lanbideetan eta baita unibertsitatean ere (manualetan, artikuluetan, tesietan...) horrelako hizkera batek zer-nolako deskalabruak eragin ditzakeen hizkuntza batetik besterako bidaietan: *smog*aren antzeko efektu kutsatzailea du hizkuntzetan. Asko hitz egin da horretaz, ez naiz luzatuko. Baina eredu horrek badu ispilua hizkuntza bakoitzaren praktikan ere. Italiaraz zein euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez ez diren Mendebaldeko beste hizkuntzetan ere bada joera bat, bizitzea egokitu zaigun garaiarekin lotuta egongo dena seguru asko eta emigrazioak edo ama-hizkuntza ez den hizkuntza batean ikasi beharrak eragindako hizkuntzen erabileran instrumental praktikoa lehenesten duena.

**AIPA DITZAKET ZIRKUNSTANTZIA GEHIAGO**, baina uste dut lau pareta horiek aski direla gure eztabaida ez mugarrizteko, baina bai abiarazteko. Azken apunte gisa, Zagajewskik aipatzen duen polonierari buruzko zirkunstantzia bat ekarri nahi nuke euskararen egoerara: irakurleak aski du Zagajewskik *poloniera* dioen tokian irakurleak *euskara* irakurtzea, *errusiarrak* ordez *frantsesak*, *alemanak* irakurri beharrean *espainiarrak*:

“Polonieraz idatzi? Europako mapan eserita errusiar (beste garai batean) jenialen eta aleman (beste garai batean) jenialen artean? Agian ez da batere txarra adimen bizkorreko auzoak izatea baldin, gainera, gaur ez badira garai batean bezain adimen bizkorrekoak eta are gutxiago garai batean bezain agresiboak”<sup>13</sup>.

<sup>13</sup> Adam Zagajewski, *En defensa del fervor*, Bartzelona, Acanilado, 2005.







-  
*sei*  
*gonbidatu*



# ***katalanezko idazlea banintz***

***Javier Cercas***

*Gerardo Markuletaren itzulpena*

## 1

Ekitaldi honetan parte hartzeko gonbidapen gutunean, azken batean, Anjel Lertxundik —euskaraz diharduen idazlea bera— bere lekuan jartzeko ahalegina egin nezan eskatzen zidan, hau da, neure burua irudikatzeko hizkuntza minorizatu edo ez-nagusi batean idazten duen norbait gisa; zehazki, “literatur tradizio mugatuko” hizkuntza batean, esaten zuen Lertxundik; galdetu ere galdetzen zidan nola uste nuen eragingo ziola muga horrek literaturaz daukadan ikuspegiari, eta zer iritzi nuen “beren iraingitze-data gertu sentitzen duten literaturek globalizazioaren uretan igerian jarraitu nahi izateaz”. Lertxundi-

ren gutuna irakurtzen amaitutakoan, aurrena pentsatu nuen, enkargu hori betetzeko gauza nintzela uste bazuen, nire lankide euskaldunak iritzi onegia zeukala nitaz; hurrena, ia kontrakoa pentsatu nuen: Lertxundi ez zela atzo jaioa, eta, nitaz zeukan iritzia gorabehera, bazekiela nik zailtasun handirik gabe irudika nezakeela neure burua hizkuntza minorizatu bateko idazle gisa.

Azken horretan behintzat, zuzen zebilen Lertxundi. Kontua azalduko badut, neure buruaz hitz egin beharra daukat, horixe baita —Unamunok esango lukeen bezala— gertuen daukadan. Extremadurako herrixka batean jaio nintzen, baina Katalunian bizi naiz lau urte nituenetik. Katalana naiz, beraz, nahiz eta sekula ez dudan harremana galdu Extremadurarekin (aipatutako herrixka horrekin, batez ere); extremadurarra ere banaiz, beraz, pentsatzen dut; labur esanda: espainiar arrunt ohikoa naiz, beldur naiz. Elebiduna ere banaiz, eta nire bi hizkuntzetako bat minorizatu da: katalana. Kataluniara iritsi nintzenean, frankismo betean, debekatuta zegoen katalanaren erabilpen ofiziala; beraz, eskolan ez zidaten katalanik irakatsi; hala ere, ni ez nintzen, Espainiako beste lekuetako etorkin gehienak bezala, Bartzelonan egokitu, Gironan baizik; eta han, katalanaren erabilpen soziala Bartzelonan baino askoz hedatuago zegoen, beharbada Kataluniako gainerako lekuetan baino hedatuago; hala, laster bihurtu nuen katalana nire “beste” hizkuntza. Unibertsitatean sartu arte, ordea, ezin izan nuen behar bezala ikasi; eta ordura arte ez nuen ulertu —filologia gaztelaua eta katalana batera ikasten ari nintzela— literatura katalana literatura txikia zela, baina aldi berean handia. Txikia kantitatean, handia kalitatean. Halakoa izan zen, batez ere, Erdi Aroan: nahikoa izan bedi esatea Ausiàs March XV. mendeko poetarik handienetako bat dela (edo poeta handienetako

bat *tout court*), eta Cervantesen ustez —Joanot Martorellen *Tirant lo Blanchetik* asko ikasitakoa bera—, eta ez dut nik kontrakorik esango, eleberri horixe dela “munduko libururik onena”; bestalde, begien bistakoa iruditzen zait XX. mendeko poeta katalan handiak —Josep Carner, Carles Riba, J.V. Foix, Joan Vinyoli edo Gabriel Ferrater— Europako poeta handi garaikide askoren maila berean daudela. Hori esanik, ordea, egia da, gaztelaniaren, frantsesaren edo ingelesaren literatur tradizioarekin alderaturik, katalanarena mugatua dela. Baina horrek ez du kentzen oso aberatsa izatea.

Dena den, horixe deskubritu nuen unibertitatean; eta beste zerbait ere bai: inguruan neukan literatur gizarteak katalanez hitz egiten eta idazten zuela. Jakina: Katalunian bazen halaber gaztelaniaz hitz egiten eta idazten zuen literatur gizarte bat, baina nik ez nuen ezagutzen; izan ere, ez nuen ezagutu harik eta, era arriskutsuan, hurbiltzen hasi nintzen arte berrogei urteetara. Adin horren aurretik, nire literatura kideak katalanezko idazleak ziren, poetak batez ere; nire maisu literarioek katalanez idazten zuten, batez ere katalanez argitaratzeagatik ezaguna zen argitaletxe batean kaleratzen nituen neure liburuak eta, prentsan kolaboratzen hasi nintzenean, katalanezko egunkari batean egin nuen. Ia berrogei urte bete arte, beraz, nire inguruko literatur gizartea katalanez mintzo zen; nik ez nuen, noski, gaztelaniaz mintzo zena arbuiatzen: besterik gabe, katalanez mintzo zena nuen hurbilekoena, Gironan hazi, Gironako unibertsitean irakastea ogibide izan, eta —urte batzuk Bartzelonan eta Estatu Batuetan eman ondoren— berriz Gironan kokatutako idazlea nintzenez gero. Ia berrogei urte bete arte, beraz, katalanezko idazlez inguratutako idazle katalan bat izan nintzen.

Gaztelaniaz idazten nuen, ordea. Horrek esan nahi du paradoxa egoera batean murgilduta bizi nintzela: hizkuntzei begirata gutxiengo zen idazle baten egoeran, nahiz eta gehiengoaren hizkuntzan, edo hizkuntza nagusian, idatzi. Hemen, nik uste, ezinbesteko dira bi galdera. Aurrenekoa, zer zela eta, nire ingurunean hizkuntza nagusia katalana baldin bazen, nik gaztelaniaz idazten nuen, eta ez katalanez. Galdera horretarako, ez daukat erantzun labur eta erabatekorik. Esan dezaket gaztelania, Extremadurako nire herrixka hartako hizkuntza ez ezik, nire ama-hizkuntza ere badela, eta nire amaren, aitaren eta arriben hizkuntza, Gironan emandako haurtzaroko eta nerabezaroko lagunen hizkuntza (helduaroko adiskideak izaten jarraitzen dute), bai eta semearekin erabiltzen dudana hizkuntza ere (emaztearekin ez, harekin katalanez hitz egiten dut); esan dezaket, halaber, askotan katalanez idatzi dudana arren, hamabost urte neuzkala literatura idatzi nahian hasi nintzenetik, sekula ez dudala gaztelania ez beste hizkuntza batean idaztea pentsatu; beharbada, idatzi, ez delako buruarekin idazten, tripekin baino, eta tripetatik ateratzen zitzaidan hizkuntza gaztelania zen; imajina dezaket, Kataluniara emigratu beharrean, gurasoek Frantziara edo Britainia Handira emigratu izan balute, eta ni frantsesez edo ingelesez eskolatu, eta frantsesa edo ingelesa bezalako literatur tradizio batean blaitu izan banintz —horien aldean, gaztelaniaren tradizioa oso da mugatua—, nik frantsesez edo ingelesez idatziko nuela. Gauza horiek eta beste batzuk esan edo imajina ditzaket, baina erantzun labur eta erabateko batetik gertuen, honako hau eskaini dezaket: idazle ganorazko samar batek bere gaiak aukeratzen ez dituen bezalaxe —gaiak hautatzen dute bera—, idazle ganorazko samar batek ez du bere hizkuntza aukeratzen: hizkuntzak aukeratzen du bera.



Hori da lehen galderarako daukadan erantzun behin-behinekoa. Bigarrenari dagokionez, baietz zuetako batzuk aspalditxotik zeuen buruari egin diozuela: egia al da, sarritan adierazten denez, Katalunian bizi eta gaztelaniaz idazten duzun idazleok egoera deserosoan bizi garela, ez esatearren Kataluniako bizitza publikoan nagusi diren nazionalismo eta independentismoaren biktima garela? Galdera horren erantzuna, hori bai, labur eta erabatekoa izan daiteke: erantzuna ezezkoa da. Eta are gehiago: batez ere Madrilen bizi den idazle espainiarraren edo Bartzelonan bizi den idazle katalanaren egoerarekin alderaturik, nire iritziz Katalunian bizi den gaztelaniazko idazlearena pribilegiozkoa da.

Utzidazue berriro ere kontua azaltzen.

Idazle baten egoera ideala apur bat zehiarra da, apur bat periferiakoa, ia bazterrekoa; ez guztiz: apur bat baino ez, ia-ia besterik ez. Horixe da Katalunian bizi eta gaztelaniaz idazten duen idazlearen egoera. Egia da Bartzelona dela Espainiako argitaratze gune nagusia, han kokatuta daudela hizkuntza horretako argitaletxe eta agente indartsuenak; baina Espainiako botere literarioak Madrilen dirau. Egia da, halaber, alderdi horretan gauzak aldatu egin direla apur bat: XX. mendearen hasieran, Baroja edo Azorín ospetsu bihurtzen hasi zirenean, idazle espainiar batentzat pentsaezina zela Madrilen ez beste edonon bizitzea; baita XX. mendearen erdi aldera ere, Cela ospetsu bihurtu eta Sánchez Ferlosio bere lanak argitaratzen hasi zenean, baina beharbada orduan ez hainbeste: azken batean, garai horrexetan hasi zen argitaratzen Gil de Biedma, eta hura ez zen sekula Madrilen bizi izan; gaur egun, aldiz, Bartzelonan gaztelaniazko idazle diren gutxik sentitzen dute, literatur arrazoiengatik, hiriburuaren beharra, nahiz eta, berriro diot, bote-

re literarioak hantxe dirauen. Baina jakineko gauza da, idazle batentzat, boterea oso kontu arriskutsua dela, botere literarioa aurrena. Esan nahi baita, gaztelaniazko idazleek Madrilen bezalaxe, katalanezko idazleek Bartzelonan askoz arrisku gehiago dute, gaztelaniazko idazleek Katalunian baino; hots: garaia baino lehenagoko arrakasta izateko arriskua, idazteari baino literatur bizitzari denbora gehiago eskaintzeko arriskua, botereak idazlea “erosten” saiatzeko erabiltzen dituen balaku, sinekura, lan gutxiko enplegu ondo ordaindu, mauka eta pagotxen pribilegio pozoitsuari men egiteko arriskua, baita politika hutsoaren arriskua ere. Esate baterako: gaztelaniazko idazle baten *cursus honorum* delakoan ia ezinbestekoa da Errege Akademiako kide izateko helburua izatea; Kataluniako idazle gaztelaniazkoak lasai asko saihestu dezake betebeharrori: ez Gil de Biedma ez Carlos Barral Akademiako kide izan ez ziren bezala, ez Juan Marsé ez Eduardo Mendoza ez diren bezala, zentzudun den ia inork ez dauka Akademiako kide izateko desiorik txikiena ere. Baina Kataluniako idazle gaztelaniazkook, denbora puska bat, eta Madrilgo lankide gaztelaniazkoek zein Bartzelonako lankide katalanezkoek mehatxu dituzten ahalegin alferrak eta tentazio hilgarriak saihesteaz gain, haiek ez bezala, eskura dugu literatur tradizio erantsi bat (katalanarena, kualitatiboki bikaina); haiek ez bezala, eskura ditugu geure hizkuntzan irakurle izan daitezkeen pertsona ugari; batzuek eta besteek ez bezala, Kataluniako idazle gaztelaniazkoak ia fabrikatik ateratzen gara lurraldez kanpoko ikuspegia daukagula Kataluniari eta Espainiari buruz: eta idazle batentzat horixe da begirada ezin hobea. Osterantzean, faltsua da independentismoak gaztelaniaz idazteagatik jazartzen gaituela; haren nahia da, idazten dugun hizkuntzan idazten dugula, indepen-

dentistak izan gaitezen. Ez engainatu zeuen burua: uneotan Katalunian gertatzen ari dena ez da hizkuntza kontua, botere kontua baizik: hizkuntza, politikari independentista gehienen begietara, botere guztia lortzeko tresna bat besterik ez da; izan ere, katalanez idazten duten nire lankide katalan askok uste dutenaren kontrara, ez dago arrazoirik pentsatzeko ezen, Kataluniak independentzia erdiesten badu, biharamunean politikari independentistak katalanaz ahazten hasiko ez direla.

Beraz, berriro diot: Katalunian bizi eta gaztelaniaz idazten dugunok pribilegiatu batzuk gara. Ni neu behintzat hala sentitzen naiz, susmoa baitut, jaio izan banintz, ez Bartzelonan, baizik Gironan, eta neure bizitzako tarterik handiena han eman ez banu, eta ia berrogei urte bete arte ia guztizko ezjakintasuna izan ez banu Espainiako literatur girotxoaz, nire bizitza, izan dena baino hobea izango zela beharbada —nork jakin—, baina ni, naizena baino idazle kaskarragoa izango nintzela.

## 2

Itzul gaitezen gure arazoaren muinera; itzul gaitezen Anjel Lertxundiren galderara: nola bizi izango ote nuke nik hizkuntza minorizatu edo ez-nagusi bateko idazlea izatea; nola, gertuko iraungitze-data izan eta literatur tradizio gutxi-asko mugatuko hizkuntza bateko idazlea izatea? Ez dakit, baina baliteke, katalanezko idazle banintz, nire idazle izaera, katalanez idazten duten lankide askoren modura bizi izatea: ziurtasunik gabe, behin edo behin larritasuna edo alferrikakotasuna sentituz, neure buruari galdetuz zer zentzu ote daukan hain etorkizun zalantzazko hizkuntza batean idazteak, tarteka galzoriko arraza bateko alea sentituz. Baliteke. Eta gauza ziurra da oso

kezkatuko nintzatekeela katalanaren oraingo osasunaz eta etorkizunaz. Baina ez dut uste horretako guztiko ezerk bulztatuko ninduenik nazionalismo edo independentismo katalana besarkatzera: lehenik eta behin, nazionalismoa, XIX. mendean nagusiki ideologia progresista bazen ere, XX. mendean ideologia nagusiki atzerakoia bihurtu zelako; bigarrenik, ez dudalako uste Kataluniaren independentziak katalanok ditugun arazoetatik bat bera ere konpontzeko balioko lukeenik; eta hirugarrenik —eta batez ere— zeren, arestian esan bezala, ez baitago arrazoirik pentsatzeko Katalunia independente batean katalanaren egoerak hobera egingo lukeela: izan ere, ez dago batere argi herrialde baten independentziak hizkuntza baten osasuna bermatzen ote duen, Irlandako kasuak erakutsi bezala: han, bi gerra basatiren ostean independentzia lorturik, politikariak ezer gutxi arduratu ziren, edo ezer ez, gaelikoaz; axola zitzaiena, beraz, boterea zen, ez gaelikoa, zeina boterea hartu ondoren ez baitzen jada boterea lortzeko tresna. Dena dela, katalanezko idazlea banintz, oso haserretuko nintzateke —ez jakin, ordea, orain baino gehiago haserretuko ote nintzen— gaur egun Katalunian eta Espainiako gainerako lurraldeetan nagusi den diskurtso antinazionalista katalanaren aurrean.

Nire ustez, diskurtso okerra da. Eta oker hori da, nagusiki, uste izatea katalana defendatzea eta sustatzea nazionalismo katalana (edo independentismoa) defendatzea eta sustatzea dela, eta katalanaren hedatzea eragozteko nazionalismo edo independentismo katalana eragozteko dela. Hori, faltsua ez ezik, kaltegarria ere bada. Egia da, beste nazionalismo batzuek bezala, nazionalismo katalanak berezko hizkuntza bat izatean oinarritu dituela bere aldarrikapenak, hizkuntza herriagandik datorrela eta eraikuntza nazionalerako tresna bat delako ideia

erromantikoan fidaturik; baina egia da, halaber, hizkuntza nazionalisten esku uztea haiei sekulako aukera oparitzea dela, merezi gabeko aukera: nazionalismoa gutxi batzuen ideologia da; hizkuntza, berriz, guztion altxorra, baita ez hitz egiten ez irakurtzen ez dutenena ere, noizbait hitz egin eta irakurri dezaketelako. Batez ere katalana bezalako hizkuntza bat baldin bada, hain aberatsa eta gaztelaniatik hain hurbil dagoena. Zuetako asko gogoratuko da *Kixotearen* bigarren zatiko pasarte harekin: On Kixote eta Santxo, Bartzelonara doazela, Roque Guinart buru duten bidelapur batzuek geldiarazten dituzte. Bidelapurrek katalanez egiten dute, eta nahiz eta “lau pistola-txoren” mehatxupean zulu hizkuntza bera ere ulertzeko gauza garen, badirudi hurrengo orrialdeetan, Álex Grijelmok dioen bezala, “elebitasun esangabeko egoera baten aurrean gaudela, nor bere hizkuntzan komunikatzen dela imajinatzeraz garamatzan egoera batean”. Ez da harritzekoa. Katalana eta gaztelania hain dira antzekoak non, Cervantesen protagonistek sekula katalanik entzun ez badute ere, bidelapurren jarduna ulertzen baitute; eta ez bakarrik Kixoteak, kapare irakurria bera, baita Santxok ere, zokor-mazo hutsa izanik ere. Bestela esanik: daitekeena da hilabete ematea katalana entzunez, hitzik ere ulertzera iritsi gabe, baina horretarako sekulako ahalegina egin behar da, edo Santxo gaixoa baino tentelagoa izan. Eta hori horrela izanik, katalana eta gaztelania —gaztelania eta frantsesa edo italiara bezala— azken batean hizkuntza bera baldin badira (hau da, latin gaizki hitz egina), zuetako askok bere kabutan galdetuko du nola litekeen haien arteko elkarbizitza Katalunian etengabeko eztabaida-arrazoia izatea duela zenbait hamarkada; orain ere erantzuna soila da: klase politikoari axola ez zaiolako; gure politikariei, alde batekoak edo

bestekoak izan, ez zaie benetan axola, edo bakarrik axola zaie tresna politiko gisa erabili dezaketen neurrian; halako moldez non askoz baliagarriago baitzaie arazoa bizirik iraunaraztea, konpontzea baino. Azalpen hau, soila izateaz gain, tristea eta gogorra da, baina berrogei urteko eskarmentuak egiazkoa dela erakusten du.

Hala, beraz, katalanezko idazlea banintz, orain —katalan hiztun ohikoa naizela— esaten ditudan gauza berak esango nituzke. Esango nuke katalana defendatzea, arazo politiko baino lehen, arazo morala dela, errespetu arazoa, eta ez katalan hizkuntzarekiko —abstrakzio bat baita—, baizik eta katalan hiztunekiko, norbanako konkretuak baikara. Esango nuke onartezinak direla nazionalismo espainiarrak xaxatzen dituen zenbait bidegabekeria, LAPAOarena kasu, katalana Aragoitik ezeztatu nahi duena. Eta esango nuke Espainiak katalana sustatu beharko lukeela, gaztelania sustatzen duen kemen berberarekin. Gauza segurua baita hizkuntza bien arteko bizikidetz oso hobetu daitekeela; eta nazionalismo katalanak gehiegikeriak egiten dituela, baina gauza segurua da, halaber, askoz ere gehiago egin daitekeela katalana zabaltzeko eta aitorrarazteko, Kataluniatik kanpo batez ere. Eta hori ez dut bakarrik nik esaten. Francisco Ricok ere, beharbada gure hispanista gorenak, hala dio: ez aspaldi idatzi zuen Estatuak “ez duela jakin izan hizkuntza minorizatuen ezagutza bere egiten eta faboratzen”. Eta José Manuel Larak eta Carmen Balcellsek ere hala esan dute, gaztelaniazko argitaratzaile handienak eta literatur agente handienak, hurrenez hurren. Laburbilduz: katalanezko idazlea banintz, arrakastaz desmuntatzen saiatuko nintzateke gaztelaniazko idazlea izaki arrakastarik gabe desmuntatzen saiatu naizen amarrua; eta ahalegina egingo nuke debate

linguistikoa debate politikotik bereizten: katalana erabiltzeko eskubidea defendatzeak ez dakar berez nazionalismo katalana defendatzea, gaztelania erabiltzeko eskubidea defendatzeak nazionalismo espainiarra defendatzea berez ez dakarren bezala; hizkuntza bat erabiltzeko eskubidea defendatzea hizkuntza horretako hiztunen zilegizko eskubideak defendatzea baino ez da. Lehenik eta behin, noski, idazleen eskubideak, hizkuntza horretako erabiltzaile pribilegiatuak garenez gero.

### 3

Ondo da, ez dira gauzak bere onetik atera behar: hizkuntzak organismo biziak dira, jaio, garatu eta hil egiten direnak, eta gure hizkuntza guztiok ere hil egingo dira. Baina onartu beharra dago gauzak bere onetik ez ateratzea errazagoa dela norberak gaztelania bezain hizkuntza unibertsal batean idazten duenean, katalana edo euskara bezain hizkuntza tokiko batean idazten duenean baino; gainera, egia da hizkuntzak hiltzen direna, baina ez dut inolako beharrik ikusten haien heriotza bizkortzeko, edo eragozten ez saiatzeko. Beraz, katalanezko (edo euskarazko) idazlea banintz, ahalegina egingo nuke katalanaren (edo euskararen) onura ziurtatzeko, eta haren heriotza eragozteko. Nolanahi ere, gauzak bere onetik ez ateratzen ere saiatuko nintzateke: Anjel Lertxundik bere gonbidapen gutunean zioen bezala, uko egingo nioke pentsatzeari, hizkuntza agoniko batean idazten dudanez gero, horrek idazle agoniko bihurtzen nauela. Eta, batez ere, baikor konpultsiboa naizenez gero, beharra gidari hartzen saiatuko nintzateke, abantaila bihurtuz hizkuntza minorizatu batean idaztearen makurrak.

Nola egiten ote den hori? Ez dakit, noski, baina saia naiteke imajinatzen.

Azken batean, hizkuntza minorizatu batean idazten duenaren funtsezko arazoa, hizkuntza nagusi batean idazten duenaren arazo berbera da: kasu bietan, ahalik ondoena idaztea da kontua. Horretarako, ezinbestekoa da tradizioa sakon bereganatzea, idazlearen interesen menpean jarrita inolako eskrupulurik gabe; hau da, beste inork esan ezin dezakeena, oraindik esan gabea, berak esatea. Edozein idazleren tradizioa bikoitza da: alde batetik, bere hizkuntzaren tradizioa, idazlearen oinarritzko tresna; bestetik, tradizio unibertsala, guztiona. Bi tradizio horiek gurdi bateko brida bien antzekoak dira: idazleak bietako bati ondo eusten ez badio, gurdiak ez du aurrera egingo; bi tradizio horiekin eraikitzen du idazleak bere obra lantzeko erabiliko duen tradizio pertsonala. Idazle katalanak (edo euskaldunak) tradizio unibertsala partekatzen du idazle espainiarrarekin (edo ingelesarekin), eta biok dute aukera tradizio horretatik gehien interesatzen zaiena biltzeko; hala ere, idazle katalanak (edo euskaldunak), beren hizkuntzan, aniztasun txikiagoko tradizioa dute, ahulagoa, idazle espainiarrak (edo ingelesak) baino. Hori eragozpen bat da, zeren, tradizio bat zenbat eta indartsuagoa eta aberatsagoa izan, hainbat hobeaz izango da idazleak bere lanean erabiliko duen tresna; baina ni katalanezko idazlea banintz (edo euskarazkoa), eragozpen hori abantaila bihurtzen saiatuko nintzateke. Literatur iraultza handiak, ia beti, mestizaje operazioak izaten dira, hizkuntza batetik besterako odol-transfusioak; horien bitartez, hizkuntza hartzailea eraberritu egiten da: XVI. mendean, Garcilaso de la Vegak irauli egin zuen espainiar literatura —eta behar bada literatura unibertsala ere bai—, Petrarcaren hendekasilabo



italiarra gaztelaniara egokituta; XVIII. mendean, Lawrence Sterne eta Joseph Fieldingek iraultza eragin zuten literatura ingelesean —eta, zalantzarik gabe, literatura unibertsalean ere bai—, ingelesera egokituz *Kixotean* ikasitakoa; XX. mendean, Jorge Luis Borgesekek espainolezko literatura irauli zuen —eta beharbada literatura unibertsala ere bai—, espainierara egokituz XIX. mendeko zenbait idazleren lana. Eta horrela beste hainbat. Ingeles hizkuntzak mendebaldeko literatur tradizio-rik aberatsena dauka, baina, ni katalanezko (edo euskarazko) idazlea banintz, horrexegatik hain zuzen ere pentsatuko nuke ingelesez guztia edo ia guztia esanda dagoela; ingelesez errazagoa dela gauzak esatea, katalanez edo euskaraz baino, baina zailagoa, ordea, oraindik esan gabeko gauzak esatea; pentsatuko nuke ingelesak transfusio ugari izan dituela, eta hizkuntza horretan oso zaila dela jada gauza berriak esatea, baina katalanez (edo euskaraz) dena dagoela esateko, mestizaje eta iraultza guztiak egiteko daudela, eta, beraz, dena dela posible. Oker ez banago, gutxi gorabehera horretaz ari zen Yorgos Seferis —Anjel Lertxundik gonbidapenean gogoratzen zuenez—, esaten zuelarik hizkuntza ez-nagusi batean idazteak (haren kasuan, greziera modernoan) “aukera ematen digu gure zorioneko hizkuntza hau berrizatzeko”; eta eransten zuen: “Abantailaren bat izan behar genuen, hizkuntza landu-landuen aldean”. Arte berri baten aitzindariak, ia beti, ondorengoek izango ez duten freskotasuna eta ausardia dute, ondorengoek arriskua baitute akademia-manierismoetan zurruntzeko; horrexegatik beragatik, ni katalanezko (edo euskarazko) idazlea banintz, ahaleginduko nintzateke pentsatzen literatura bat sakon eta zehatz landu izana, ingelesaren kasuan bezala, ez dela abantaila, eragozpena baizik, eta saiatu egingo nintzateke, katalana (edo

euskalduna) bezalako literatura baten freskotasuna eta ausardia ustiatzen, hain indar-husturik ez dauden, birjinagoak eta, beharbada, emankorragoak diren literaturak baitira.

Bai, badakit honek guztiak ilusio hutsaren itxura daukala, *wishful thinking* hutsarena, hain justu ingelesez esatearren; baina, hala izan edo ez, horixe pentsatuko nuke nik: askoz gauza gehiago dagoela esateke katalanez edo euskaraz, ingelesez edo gaztelaniaz baino. Pentsatuko nuke, orobat, nik, katalanezko edo euskarazko idazle gisa, aitzakiarik gabeko abantaila bat daukadala, ingelesezko edo gaztelaniazko idazle baten aldean, hots, eskura daukadala katalanaren edo euskararen tradizioa, ia mundu guztiak kontuan hartzen ez dituen edo, are gehiago, muzin egiten dien tradizioak, eta, nolana ere, eskuraerazak ez direnak. Eta pentsatuko nuke, baita ere, gaztelania —batez ere gaztelania, nire hizkuntza izaten jarraituko bailuke, katalanez edo euskaraz idatziko banu ere— ez dudala etsai, aliatu baizik, beharbada nire aliaturik onena; pentsatuko nuke harekin bizikidetzan egotea ez dela oztopo, pribilegioa baizik, eta, batez ere Lertxundik aipatzen zituen globalizazioaren uretan, hizkuntza minorizatu batek luzaroago iraungo duela hizkuntza nagusi bat besarkatzen badu, haren kontra erasoka badabil baino. Pentsatuko nuke, orobat, tokikoa ez dagoela unibertsalaren aurka, eta sarritan gogoratuko nintzateke Tolstoirekin, idatzi baitzuen: “Margotu ezazu zeure herrixka eta mundua margotuko duzu”. Eta beste hainbat gauza ere pentsatuko nuke, nik uste. Pentsatuko ez nukeen gauza bakarra, ordea, burutik ere pasatuko ez litzaidakeena izango litzateke neure hizkuntza minorizatua uztea eta hizkuntza nagusi batean idaztea, tradizio aberatsagoa izatearren, edo iraungitze-data urrutiago daukan hizkuntza batekin lan egi-

teagatik, edo, besterik gabe, irakurle gehiago izateko asmotan. Ez: neure hizkuntzari eutsiko nioke sendo, azken unera arte jarraituko nuke neure hizkuntzan idazten. Ez nuke egingo, argitu nahi dut, hizkuntza abertzaletasunagatik: azken batean, ez dut uste idazle baten aberria hizkuntza denik; idazle baten aberria lengoia da. Ez: ez nuke hizkuntzaz aldatuko, askoz kontu oinarritzkoago eta egoistago batengatik; kontrakoa frogatzen ez den bitartean, erraietatik ateratzen zaion hizkuntza duelako idazle batek tresnarik onena ahalik ondoen idazteko, eta esateko daukana esateko, azken batean horixe baita idazle baten eginbehar bakarra. Beraz, katalanezko (edo euskarazko) idazlea banintz, gauza asko pentsatuko nuke, salbu eta zer sentitzen ote den gaztelaniazko (edo ingelesezko) idazle bat izanik. Salbu eta, noski, gaztelaniazko (edo ingelesezko) idazle batek eskatuko balit, hizkuntza minorizatu bateko idazlea naizelarik, neure burua hizkuntza nagusi bateko idazle gisa irudikatzeko. Orduan bai, orduan ahaleginak egingo nituzke, gaurkoan Anjel Lertxundiri erantzuteko ahalegindu naizen bezainbat.



-

# *azken mamu gorri zoriontsua*

*Karlos Cid Abasolo*

Idazle batek erabaki dezake hizkuntza hegemoniko batean idaztea edo, bestela, hizkuntza ez-hegemoniko batean. Itzultzaile batek erabaki dezake sorburu-hizkuntza hegemoniko batetik itzultzea edo, bestela, sorburu-hizkuntza ez-hegemoniko batetik. Itzultzaile batek erabaki dezake xede-hizkuntza hegemoniko batera itzultzea edo, bestela, xede-hizkuntza ez-hegemoniko batera.

Badira hizkuntzak zenbait naziotan direnak hegemoniko, edo nazio bakar batean<sup>1</sup>. Hizkuntza hegemonikoan artean, badira mila milioi hitzun dituztenak, hala nola txinera, edo bi milioi hitzun dituztenak, hala nola mazedoniera.

<sup>1</sup> Hala nola Witold Gombrowicz eta Czesław Miłosz-en hizkuntza, zeinak gaur egun 50 milioi hitzun baititu —hizkuntza askoren inbidiarako—, eta datu horrek ezdeusten ditu, nire aburuz, Gombrowiczek Miłoszi polonieraren etorkizuneko biziraupenaz agertu zizkion kezak.

Eta badira hizkuntzak, nazio batean hegemonikoak izan ez arren, hiri batean direnak hegemoniko, edo auzo batean, edo etxeko supazter zenbaitetan, ez baita gutxi.

Badira hizkuntza ez-hegemonikoak egunean-egunean desagertzen ari direnak eta hizkuntza ez-hegemonikoak nola-baiteko ofizialtasun maila lortu eta gobernuek neurri handi edo txikiagoan babesten dituztenak.

Nik, madrildarra naizen aldetik, espainiera dut lehen hizkuntza edo ama-hizkuntza, zeina hegemonikoa baita jaioa naizen auzo, hiri eta estatuan eta ia kontinente baten erdian. Bide batez esanda, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria erdia duen Bilbo Handiko herritarren egoera linguistiko berean nago.

Txekoslovakia ohian bizi izandako bi urteez landa, beti bizi izan naiz Madrilan, eta hantxe ikasi nuen Filologia Hispanikoa. Unibertsitate-ikasketak hasi nituenetik bertatik interesatu zitzaidan itzulpengintza, eta azaldutako aurrekariak aintzat hartuta, logikoena izango zatekeen hizkuntza bat edo batzuk ondo ikasi eta hartatik edo haietatik neure lehen hizkuntzara egitea itzulpenak. “Xede-hizkuntzak itzultzailearen lehen hizkuntza behar du izan”, aholkatzen du itzulpengintzaren logikak<sup>2</sup>. Itzultzaile gisa daukadan curriculumak, ordea, argi eta garbi erakusten du ez dudala arau hori errespetatu: itzuli ditudan zortzi liburuetatik, nire lehen hizkuntza kasu bakar batean baino ez da izan sorburu-hizkuntza, eta bi kasutan baino ez da izan xede-hizkuntza. Beste hizkuntza bat, euskara, zortzi itzulpenetatik seitako xede-hizkuntza izan da, eta bateko sorburu-hizkuntza. Beste hizkuntza bat (txekiera, alegia) zortzi itzulpenetatik zazpitako sorburu-hizkuntza izan da. Eta xede-hizkuntzat euskara izan duten sei itzulpenek txekiera izan dute sorburu-hizkuntzat, hau da, sei itzulpen horieta-

<sup>2</sup> Logika horri men egin banio, agian hizkuntza hegemoniko batera itzultzeagatik gonbidatuko ninduten Donostia 2016ko *Karta Zuri* honetan parte hartzera. Baina zintzo jokatu behar dut zurekin, irakurle: idatzi gabeko arau hori bete izan banu, duda izpirik gabe, ez ninduten gonbidatuko.

rik bakar batean ere ez du parte hartu nire lehen hizkuntzak, ez xede-hizkuntza gisa, ez sorburu-hizkuntza gisa ere. Beraz, logika ez da neure kasuan bete, eta horrek *rara avis* bilakatzeko nau, eta areago, ezbaian jartzen bide du nire itzulpenen kalitatea. Edonola ere, ez naiz itzultzaile bakarra bere lehen hizkuntza euskara ez izanagatik beti edo ia beti euskarara itzultzen duena: ni bezalako beste asko ere badaude, gehienak Euskal Herrian jaiotakoak, Euskal Herrian, bai, baina euskara nagusi edo hegemoniko ez den lekuetan. Hortaz, *rara avis* kontu hori ñabartu egin behar da, nahiz eta, egia esan, asko luzitzen duen.

Nire bizitzako mugarri nagusietako bi honako hauek izan dira: euskara ikastea erabakitzea eta, hainbat urte geroago, Madrilgo Universidad Complutenseko Euskal Filologia jakintza arloko irakasle titularra izatea. Bide luzea izan da, hamabost urte nituelarik hasi eta gaur egun ere badirauena. Itzulpengintza ere garrantzitsua izan da nire lan ibilbidean, baina, unibertsitateko lanarekin alderaturik, bigarren mailakoa. Bi jardueren oinarria hizkuntza gutxitu bat izan da, bere herrian bertan hegemonikoa ez dena, salbu eta zenbait herri txiki eta hainbat etxetan, eta XX. mendeko bigarren erdira arte homogeneouskoa ere izan ez dena. Koofiziala deneko autonomia erkidegoko 15 urte-tik gorako biztanletik erdiek ulertzen ez duten hizkuntza bat. Baina puri-purian dagoen hitz bat erabiliz, ni zorrite oneko izan nintzen, euskarari esker *merkatu-nitxo* bat aurkitu bainuen: Madrilen euskara irakasle, eta aisialdian txekieratik euskaratzaile. Konkurrentziarik ez. Horregatik, neure burua adibide gisa jarrita, eta gaur egun puri-purian dagoen pragmatismoa ikurtzat harturik, urtero-

urtero, Complutensen hizkuntza hegemonikoen filologietako ikasleei Linguistika irakasten diedanean, alamera ematen diet kontu berberarekin: hizkuntza hegemonikoak ikasteaz gain, hogei milioi hitzun baino gutxiago dituen hizkuntzaren bat ikastea aholkatzen diet, hau da, ingelesarekin edo espainierarekin alderaturik hutsaren hurrengo den (edo, hobeto esanda, ustez hutsaren hurrengoa den) hizkuntzaren bat. *“Estudiad, por ejemplo, búlgaro (lengua no hegemónica en Europa pero sí en Bulgaria), traducid a Gueorgui Gospodínov y quizás un día leáis en un periódico digital (es decir, para entonces, en un periódico) que le han dado el premio Nobel”*. Hitz horien bidez, bidenabar esanda, pentsatzen dudana eta niri ederki funtzionatu didana aholkatzeaz gain, ikasle horiek beren irakasle askorengandik jasotzen duten mezua indargabetzen saiatzen naiz: hizkuntza hegemonikoaren aldeko diskurtsoa, hizkuntza hegemonikoz osatutako planeta baten aldeko aldarri sutsua egiten duena (beti ere beren hizkuntzak segitzen badu haietako bat izaten).

Madriren bizi eta euskara irakasteak edo euskarara itzultzeak badu alde txar-txar bat: beti ere azalpenak eman beharra. *“¿Por qué?” “¿Para qué?”* Urteak joan, urteak etorri, erantzun egoki bat topatu dut holako okasioetarako: *“Porque gracias al euskera puedo pagar la hipoteca”*<sup>3</sup>. Hipotekaren azalpen hori jende guztiak ulertzen du.

Euskarara itzultzea<sup>4</sup> ez da, niretzat, alferrikako lan bat, ezta gutxiagorik ere, eta badituz hainbat arrazoi horrela pentsatzeko. Besteak beste, honako hauek:

1: Euskarak hitzun gutxi dituelako uste hedatua gorabehera, ez dugu ahaztu behar Kike Amonarriz soziolinguistak behin baino gehiagotan gogorarazi diguna: Otik 10erako eskala

<sup>3</sup> Esan gabe doa erantzun hori ematen dudan bakoitzean erantzun egiazkoa datorkidala burura, hau da, “gogoak ematen didalako”.

<sup>4</sup> *Itzuli* aditza aditz iragankortzat hartuta, jakina (“itzultzen dut”, eta ez “itzultzen naiz”).



batean (munduko hizkuntza gutxien mintzatuenetatik gehien mintzatuenetara), euskara, gaur egun, 9an dagoela.

2: Gainera, koofiziala da autonomia erkidego batean eta erdi-koofiziala beste batean (munduko milaka hizkuntzak ez duten estatus harrogarria).

3: Atsegin handia ematen du espainierara itzuli gabeko literatura txekiarra euskaratzeak. Niretzat pribilegio handia izan zen Josef Škvoreckýren ipuin bilduma bat itzultzea, txekieraz *Hořskej svět* izenez ezagutua eta euskaraz *Mundu mingotsa* izenez, zeina, esan bezala, ezin baita Cervantesen hizkuntzan irakurri. Bide batez esanda, harrigarria da nola Škvoreckýren eleberriak ingelesezko itzulpenetatik itzuli diren espainierara, eta ez txekierazko jatorrizko testutik.

4: Beti esan ahalko dut, harro-harro esan ere, Jaroslav Hašek-en *Švejk soldadu onaren abenturak* jatorrizko testutik Espainian egin eta argitaratutako lehenengo itzulpena neurea izan zela, euskarazkoa. Zenbait urte lehenago, 1980an, Alfonso Janèsen espainierazko itzulpena plazaratu zuen Destino argitaletxeak, baina txekieratik beharrean zubi-hizkuntza batetik egina, alemanetik, alegia.

5: Diruaz hitz egitea itsusi samarra bada ere, nire azken itzulpenagatik eman zidaten portzentajea hogeitaz handiagoa izan da nire lankide Juan José Ortegak eta nire lankide ohi Martin Lexekek espainierara egindako hiru itzulpenengatik jasozutena baino. Aitor dut, dena den, trilogia horretatik hiru milioi bederatziehun eta laurogeita hamar mila eta zortziehun ale gehiago saldu zirela Miroslav Holuben poemen nire itzulpen horretatik baino.

6: Portzentajearen dagoen aldeaz gain<sup>5</sup>, kontuan hartu behar da nire izen-deiturak ageri direla, itzultzaile gisa, Holuben

<sup>5</sup> Aitor dut aurreko puntua ironiaz idatzita zegoela.

poemen antologia horren liburuaren azalean bertan, eta, oro har, euskal argitaletxeek hala jokatu ohi dutela itzultzaileekin, ikusezintasunetik erreskatatzen gaituztelarik. Martin eta Juanjo, ordea, ez ziren holako ohorearekin sarituak izan.

7: Euskal itzultzailea izateak eman didan atsegin handiena hauxe izan da: lagun min dudan beste euskal itzultzaile batekin elkarlanean aritu izana. Beti hartu dut itzulpengintza auzolan atsegintzat, eta auzolan horretan bidaide izan dudan adiskide hori Javi Cillero da, itzultzaile ona eta idazle bikaina.

8: Bestalde, hiru itzulpenetan zuzentzaileen laguntza izan dut, eta ez nolana hikoia. *Mundu mingotsak* asko zor dio Juan Garziari. *Izatearen arintasun jasanezinak* asko zor dio Juan Luis Zabalari. Eta Beñat Sarasolak eta Mikel Elorzak zuzendu zuten Miroslav Holuben poemen itzulpena. Abagune hau baliatu nahi dut haiei neure esker ona adierazteko. Itzultzaileok zorretan gaude zuzentzaileekin. Haien izen-deiturek ere agertu beharko lukete liburuetan.

Baina euskarara itzultzeak, eta areago, txekieratik euskarara itzultzeak, argiez gain, ilunak ere baditu. Hona hemen haietariko zenbait:

1: Euskara bederatzian dago 10eko eskalan hiztun kopuruari dagokionez munduko hizkuntzen artean, bai, baina, aldi berean, UNESCOk, gaur gaurkoz, hizkuntza “ahulen”, “zaugarrien” multzoan jartzen du. Hau da, egoera hobean dago “arriskuan” dauden hizkuntzak baino, “arrisku larrian” daudenak baino, “egoera kritikoan” daudenak baino, eta, zer esanik ez, “hilak” direnak baino, bai, baina... ez dago “salbu” dauden hizkuntzen multzoan.

2: Nire ustez, edozein erdaratako literatura euskarara itzultzeak ez du izan, salbuespenak salbuespen, euskal idazle

gehienen sostengu eta aitortzarik, eta esan behar dut Karta Zuri honen antolatzaile den Anjel Lertxundi salbuespen militantea dela, ekitaldira hiru itzultzaile gonbidatuz argiro erakutsi duenez<sup>6</sup>.

3: Euskarazko itzulpenen argitalpenak ale gutxikoak izaten dira, eta nire itzulpenak ez dira horren salbuespen izaten. Bai, ordea, horren adibide gorenak.

4: Urratu gabeko bideak urratzea (hala nola txekiar literatura euskaratzea) jarduera erakargarria da, baina, zenbait arlotan, nekagarri samarra. Ez dago txekiera-euskara hiztegiarik. Ez dago, esan bezala, txekiar-euskal itzulpen-tradiziorik. Nire itzulpenak argitaratu aurretik zuzendu dituztenak bertuosoak dira euskara kontuetan, baina ez dakite txekieraz, eta, hortaz, ezin izan dute nire itzulpenen kalitatea epaitu, xede-testuarena baizik.

5: Ugari dira txekiera euskaratzeak dakartzan zailtasun linguistikoak. Txekiera hizkuntza indoeuroparra eta eslaviarra da; euskara, ordea, jakina denez, ez bata, ez bestea. Ezberdintasun genealogikoez ondorio tipologikoak ekar ditzakete, batez ere sintaktikoak. Beraz, txekieratik euskaratzeak dakartzan zailtasunak edozein hizkuntza indoeuroparretatik (eta, batez ere, edozein hizkuntza eslaviarretatik) euskarara itzultzeak dakartzanen neurri berekoak dira. Hemen, txekieraren eta euskararen arteko zenbait ezberdintasun aipatzera mugatuko naiz, txekieratik euskaratzea zaildu dezaketena. Txekiera SAO motako hizkuntza da, hau da, subjektua-aditza-objektua hitz-hurrenkera izan ohi du; euskara, ordea, SOA motakoa omen da (subjektua-objektua-aditza). Txekierak, gainerako hizkuntza indoeuroparrek bezala, izenordain erlatiboak ditu, eta perpaus erlatiboa izen ardatzaren eskuinean ageri da,

<sup>6</sup> Hau idazten ari naizelarik, irratia entzuten ari naiz, eta hara non Bernardo Atxagak, hitzok irakurri edo entzun balitu bezala, inbidiaz edo, honako hau esan duen, hitzez hitz: “Gure hizkuntzak gure utopia lortzea nahi badugu, giltza jakin batean jarri behar da arreta guztia, eta haren izena da itzulpena, itzulpenaren kalitateak erabakiko baitu gure hizkuntzaren egoera” (*Faktoria* Albistegia, Euskadi Irratia, 2016-12-5).

luzera handiko sintaxia ahalbidetuz; euskaraz, ordea, aditz erlatiboari erantsitako -N atzikia erabili ohi da eta perpauis erlatiboa, japonieran bezala, izen ardatzaren ezkerrean agertu ohi da, perpauis erlatiboaren luzera nabarmen murritzuz. Horregatik, euskal idazle klasikoek oso tresna erabilgarri bat baliatu zuten: galde-jatorridun erlatiboak (ZEIN izenordaina eta NON adberbioa), zeinei esker perpauis erlatiboa izen ardatzaren eskui-nean ageri baita, sintaxiaren luzatzea ahalbidetuz, hizkuntza indoeuroparretan gertatzen den bezalaxe. Bada, baliabide hori erabat baztertu zuen euskal garbizaletasun edo garbizalekeria linguistikoak, gaur egungo idazle eta itzultzaileok ere saihestu ez ditugun aurreiritzia eta joera sortuz. Euskal garbizalekeria linguistikoak erabat arbuaitu zituen (eta gaur egun ere arbuaitzen ditu) beste hizkuntza batzuetatik mailegatutako baliabide linguistiko eraginkor ugari. Txekieratik euskaratzeak sortzen duen beste arazo bat txekiera idatziaren eta txekiera arruntaren artean hizkuntza-maila guztietan (fonetikan, morfologian, sintaxian eta lexikoan) dagoen amildegia euskaraz aise adierazteko zailtasuna da. Zenbait txekiar idazleek, Bohumil Hrabal buru, txekiera arrunta ekartzen dute beren eleberri eta ipuinetara. Euskal idazleek, aldiz, ez ohi dute ahozko euskara elkarriketetan ere erabili, gaur egun arte bederen<sup>7</sup>, eta, beraz, ez da samurra izaten txekiera arruntaren ezaugarri fonetiko, morfologiko, sintaktiko eta lexikoak euskarazko itzulpenean islatzea. Euskaraz nola adierazi “ona” esan nahi duten *dobrý* eta *dobřej* txekiar aldaeren arteko ñabardura? (-ý eta -ej kasu nominatibo singular maskulinoaren marka dira: lehenengoa txekiera idatzian, eta bigarrena txekiera arruntan). Eta, zailtasun-zerrendan gehiegi ez luzatzearren, hona hemen beste bi: alde batetik, hizkuntza eslaviarrek aditz burutuen

<sup>7</sup> Ñabardura hau erantsi badut, honako arrazoi honengatik da: badirudi gaur egun euskara batuaren kontrako jarrera eta euskalkiak esparru guztietan erabiltzearen aldekoa gero eta hedatzenago ari direla euskaldunen artean.

eta aditz burutugabeen arteko banaketa erogarria egiten dute, hizkuntzok ikastea eta itzultzea biziki zailduz, eta, bestetik, hizkuntza eslaviarrek aurrizki-sistema txit aberatsa dute aditzaren esanahia ikaragarri ñabartzeko. Ondorioz, txekierazko aditz batek sarritan ez du beste hizkuntzetan baliokide lexikorik izaten eta, beraz, itzulpenetan hiru, lau edo bost hitzeko perifrasiatarako jo behar izaten da. Adibidez, *pít* ('edan') aditzetik honako aldaera hauek eratortzen dira aurrizkien bidez: *vypít; napít se; napít; dopít; upít; upjjet; napájjet; opít; opít se; opjjet; opjjet se; zpít se; popít; popjjet; podnapít se; pǎpít se; pǎipít; propít; vpít; zapít*.

Pentsa liteke nik txekieratik euskaratzea inpunitate ariketa hutsa dela, zeren jatorrizko testuen egileek ezin baitute egiaztatu itzulpena jatorrizko testuarekiko "fidela" den. Idazle hilak euskaratu ditudanean, hala nola Jaroslav Hašek, inpunitate hori, jakina, erabatekoa izan da. Baina ez, ordea, Milan Kunderaren *Směšné lásky* (*Amodio barreagarriak*) ipuin-liburua euskaratu nuenean. Ezaguna da Kunderak bere obren itzulpenekiko duen obsesioa. Nire itzulpen horri dagokionez, Brnoko idazleak ez zuen euskaraz ikasten hasteko astirik izan (harentzat kalte), baina trikimailu bat erabili zuen: Erein argialetxe-koei galdetu zien zein den euskaraz emendiozko juntagailua. Erantzuna jasota, egiaztatu omen zuen txekieraz berak emendiozko juntagailua jarritako toki bakoitzean *eta* hitza ageri ote zen itzulpenean. Bidenabar esanda, gizalegez jokatu eta gogora dezagun Kunderak itzultzaileon lanaz behiala egin zuen hausnarketara bat, non itzultzaileok gure mamu ikusezin izaeratik erreskatatu baikintuen eta, aldi berean, bere ohiko harrokeria bazter utzita, *mea culpa* txalogarria aitortu:

*Hablo mal de los traductores y es injusto. Están mal pagados, mal apreciados, maltratados y se les piden cosas poco compatibles: estar en todo momento a la altura del autor y, al mismo tiempo, estarle totalmente subordinados. Terrible. Sin embargo, son ellos los que nos permiten vivir en el espacio supranacional de la literatura mundial, son ellos los modestos constructores de Europa, de Occidente*<sup>3</sup>.

Kunderari atsedean hartzen utzi eta nire diskurtso apa-lera nator bueltan. Nire ohiko sorburu-hizkuntzak, txekie-  
rak, edozein euskaltzaleren inbidia pizteko moduko hitzun  
kopurua du: hamabi milioi. Eta, gainera, estatu batean hiz-  
kuntza ofiziala izateaz gain, bertako hizkuntza hegemonikoa  
ere bada. Txekieraren etorkizunak, epe motz eta ertainean  
bederen, ziurtatuta dirudi. Idazle txekiarrek, normalean,  
txekieraz idazten dute. Eta horren salbuespenik baldin ba-  
da, salbuespen gehienak beste herri batera (normalean, na-  
zioarte mailako hizkuntza hegemonikoa duen herri batera)  
1968 urtearen bueltan emigratutako idazleak dira. Haietako  
zenbaitek, une jakin batetik aurrera, literatura lanak tarteka  
edo erabat frantsesez idaztea erabaki zuten. Hori da, esate-  
rako, Frantziara alde egindako Věra Linhartováren kasua,  
edo Kunderarena. Kunderak, Frantzian bizitzen hasi eta le-  
henengo urteetan txekieraz idazten segitu zuen, baina une  
jakin batetik aurrera, bere lehen hizkuntza albora utzi, eta  
soilik frantsesez idazteko hautua egin zuen. Eta hori gutxi ba-  
litz bezala, ez dugu ahaztu behar txekieraz idatzi zituen bere  
eleberrien itzulpenetarako baimena ematen duela sorburu-

<sup>3</sup> “27 palabras en la vida de un escritor”, *El País, Domingo*, 17. or., 1985eko abenduak 15.

hizkuntzat bai txekiera, bai frantsesa hartzeko. Bestela esanda, Kunderarentzat, frantsesezko itzulpenak jatorrizko bertsoaren estatusa partekatzen du txekierazko testuarekin. Beraz, ez da harritzekoa Eusko Jaurlaritzak sustatutako *Literatura Unibertsala* egitasmoaren 2007ko deialdian Kunderaren *Nesnesitelná lehkost bytí (Izatearen arintasun jasanezina)* eleberria zerrendan agertu zenean, frantsesezko izenburuarekin agertzea, Kunderak liburu hori frantsesez idatzi balu bezala. Gogoratu behar da frantsesezko itzulpena 1984an argitaratu zela, eta txekierazko jatorrizko testua handik urtebetera, Kanadan, Txekoslovakian debekaturik baitzegoen. Bada, nik sorburu-hizkuntzat txekiera ere erabiltzeko aukera aldarrikatu nuen eta, oniritzia jasota, lehiaketan parte hartu ahal izan nuen eta baita esleipena lortu ere. Nire itzulpen hori 2009an heldu zen euskal liburu-dendetara (edo, behintzat, zenbait liburu-dendatarara), inolako harrabotsik gabe heldu ere, eleberri hartatik hizkuntza hegemoniko guztietara egindako itzulpenek mundu osoan sekulako arrakasta lortu eta hogeita bost urtera.

Linhartová edo Kunderarena baino kasu deigarriagoa izan zen Václav Jamekena: Pragan bizi izan arren, 1989an *Traité des courtes merveilles* eleberria argitaratu zuen. Berak zenbait literatura lan txekieraz argitaratu ditu eta beste batzuk frantsesez.

Bere aldetik, Monika Zgustovák espainieraz idazteko hautua egin zuen, XX. mendeko 80ko hamarkadan Bartzelonan bizitzen jarri ondoren. Zgustovák eleberriak espainieraz idazteaz gain, txekiar literatura espainierara eta katalanera itzuli izan du.

Linhartová, Kundera eta Zgustováren beste muturrean badira zenbait idazle txekiar, hizkuntza hegemonikoa edo oso

hegemonikoa duen herri batera emigratu arren txekieraz soilik idazten segitzea erabaki zutenak. Lehen aipatutako Josef Škvorecký hura izan zen horren adibide garbia: Torontora 1969an alde egin eta han bizi izan zen hil arte, 2012an. Škvoreckýk inoiz ez zion txekieraz idazteari utzi, ez zen ingelesera pasa, eta, hori gutxi balitz bezala, 1971n, bere emazte Zdena Salivarovárekin batera, oso izen esanguratsuko argitaletxe bat sortu zuen, Sixty Eight Publisher, zeinean jatorrizko bertsoan argitaratu baitziren Txekoslovakian debekatutako txekierazko hainbat literatura lan.

Barka, irakurle, gehiegi luzatu banaiz. Buka dezadan behin-goz. Nire lan-hizkuntzak, euskarak, agian ez dauka etorkizun ziurra, auskalo non egongo den ehun urte barru, zein hizkuntza multzotan kokatuko duen UNESCOk (baldin eta ordurako UNESCO existitzen bada), baina horrek ez dit eragozten hasierako zaletasun bertsuarekin lan egiten segitzea. Beti lanturuka ibiltzeak ez garamatza inora, ez bada adore faltara eta ezer ez egitera. Ez dakit zein den nire itzulpenek nire irakurle bakanengan sortzen duten efektua. Badakit, ordea, zein efektu eragiten didaten niri, eta hori aski zait, oraingoz behintzat. Bestalde, une honetan burura datozkit espainiera bezalako hizkuntza hegemoniko batera arrakasta eskasarekin itzultzen dutenak. Hizkuntza hegemoniko batera literatura itzultzeak ez du arrakasta bermatzen. 500 milioi irakurlez osatutako merkatu potentzial batera iritsi ahal izatea ilusio huts gerta liteke, errealitate krudelarekin talka egiten duen ilusio huts, baldin eta ez baduzu Martin Lixel edo Juan José Ortega izateko eta Stieg Larssonen *Millennium* trilogia itzultzeko zortea. Hizkuntza hegemonikoetara literatura itzulpenak egiten dituzten gehien-



gehienek (denek ez esatearren, itzultzaile sonatuenak barne) beste jarduera bat dute benetako ogibide. Batzuk eta besteak ez gara, beraz, hain ezberdinak.

Hizkuntza gutxitu eta ahul bat, euskara alegia, irakasle eta itzultzaile gisa nire lan-hizkuntza izanari esker, Anjel Lertxundik antolatutako *Karta Zuri* honetan hartu ahal izan dut parte, atsegin handiz. Mahai berean Anjel Lertxundi, Miguel Sáenz eta Raul Zeliken ondoan esertzea ohore handia izan da azken mamu gorri zoriontsu naizen honentzat. Hirurek, ahoa irekitzen duten bakoitzean, irakasten digute jakituria eta apaltasuna eskutik hartuta joan daitezkeela. Salbuespen militanteak, nire irudiko.



# - *euskara, mekong, zuluak eta ni*

*Marie Darrieussecq*  
*Joxan Elosegiren itzulpena*

Historia luzea, gatazkatsua, zaila eta aberatsa da euskararen eta neure buruaren artekoa. Hartan mintzo ez banaiz ere, anitz zor diot *stricto sensu* amaren hizkuntza ez ezik bi aldeetatik amatxiren hizkuntza dudan mintzaira honi. Idazketa eta egunoroko eleketa hizkuntza dut frantsesa; hirueleduna zen, alabaina, ene familia, euskaraz, espainieraz eta frantsesez.

Ene belaunaldian hautsi da euskararen primantza katea, arrazoi historikoak, soziologikoak eta are neurotikoak (familiarrak) izan direla medio. Frantsesaren aldetik, arrunta da kontua, neure belaunaldiko euskaldun anitzena. Amaren eta

amatxiren hizkuntzarik gabe gelditu naiz deblauki. Deszifratu egiten dut euskara, nekez beti, hiztegi batez edo ama lagun. Alta bada, ikastaro trinkoa egin nuen bi urtean Parisen irakasle batekin, Ainara, ene haurren zaindaria izanen zenarekin... Bi urteko italiera ikastaro trinkoan entseatu izan banintz, italieraz mintzatuko nintzateke seguruenik... Baina euskararen eremuan ez da nonbait neure burua behar bezain kaliputsu ageri.

Bi alde bizi izan ditut betidanik, alde euskalduna eta alde frantsesa. Eta horiek areagotu baizik ez dituzte egiten mugaren bi aldeek, alde frantsesak eta alde espainiarrak. Euskaldunen kasuan, tinko atxiki behar izaten dio nor bere buruari beti, bitan zatitu beharra gelditu gabe bizi dutenen halabeharra baita haiena.

Baina aberastasuna dira halaber alde horiek. Frantses idazlea naizen aldetik, ene idazketa hizkuntza, frantsesa, neure mintzairatzat, neure baitarik sortzen den zerbaitzat, ez hartzeko xantza ukan dut, bertzeren artean hautatu hizkuntza baita, izan ere. Jostatu ahal izan naiz, beraz, hizkuntza horrekin, hari urrunetik, eta ez ironiarik gabe, behatzeko parada ukan baitut. Inoiz ere ez dut frantsesaren sakralizazioa bizi izan. Libertitu egiten naute Frantses Akademiako agureek. Dituen mugak gogoan dauzkadala maite dut frantses mintzaira. Ments ditu alderdi batzuk; adibidez, soinuak edo ehundurak adierazten dituzten eleak ez dira nahi bezainbat eta, bertze hizkuntza batzuen aldean, pobreak dira hotsean eta ehundurak. Bertze muga bat, frantses mintzairak neutroa eta maskulinoa nahasiz adierazten du generoa (espainierak bezala), eta gramatika arauari jarraiki «hartzen du menea maskulinoak femeninoa». Halatan, zuzeneko ondorioa du izate horrek ene emakume idazle bizitzan. Ez naiz oraingoan horretaz luzatuko, baina

egunoro baliatzen dut neure idazketa hizkuntzan euskarak generoaren aitzinean eskaintzen didan askatasuna.

Ongi ari banaiz, 1995ean erran zuen García Márquezek, burrunba handian erran ere, «frantsesa hizkuntza hila» delakoa. Ene lehen eleberria argitaratu aitzineko egunetan izan zela uste dut, eta arrazoi hori dela medio dut menturaz oroitzen. Gaitzitu zitzaidan adierazpen hura, neure frankofonian ez ezik neure frantses izatean ere mindu ninduelako. Horra frantsesa maitarazten, frantses hizkuntzarekiko maitasunaz oroitarazten nauen erran probokatzaille horietako bat. Xantza da frantsesez idaztea. Idazlea naizen aldetik, literatura tradizio luze eta aberats bateko segidan ikusten dut neure burua. Zabala du hedapen eremua eta haren betekoa publikoa: ez noski publiko ingelesduna, espainieraduna edo txineraduna bezain zabala, baina hizkuntza handia da *nehola ere* frantsesa.

Halatan, luzaro bizi izan nintzen «euskal etorkiko idazle frantses europar» baten gisan. Ondoren, Hasier Etxeberria lagunak, zuetako askok ongi ezagutuko duzuen euskal idazleak, maieutika bortitz xamar batera behartu ninduen «euskal idazlea» nintzela sinestarazteko. Espainieraz mintzatzen ginen orduan, Hasier ez baitzen garai hartan frantsesez aise moldatzen, ez eta ni, beti bezala, euskaraz ere. Honela erran zidan: «Eres una escritora vasca como un caracol es un caracol». Guztiz arbuiatu nuen hasieran erran hura. Ez nuen «murriztu» nahi, ghettoratzearen beldurrez.

Baina Hasierrri eskerrak berrikasi nuen dakidan euskara apurra, eta hasi nintzen *euskara mira egiten*, hau da, modu batean euskaldun sentitzen. «Euskal idazle frankofono europar» gisa ikusten dut ordudanik neure burua.

Euskal konpositore Ramon Lazkanoren hitzak aipatu nahi ditut ondoren. Testuinguru frantses baten barnean, lanen izenburuak euskaraz emanak direla ohartarazi diote:

R.L.: «Ez da borondate kontua, ebidentzia bat baizik. Kanpotik, kontuan harturik euskara Frantzian inolako estatuturik ez duen hizkuntza gutitu bat dela, aldarrikapen gisa irakurtzen da izenburu bakoitza. Zaila da, hemen Frantzian, gutiengoa dena bertzela hartzea: iduri du gutiengoa agertzea haren apologia egitea dela. Neure hizkuntza baliatzen dut, eta horra non euskara den hizkuntza hori. Nolanahi ere, euskarazko izenburuen aldeko hautuaren arrazoia ez da bertzeetarik bereizi nahia: erroak neure baitan dituen hizkuntza horretaz baliatu baizik ez naiz egin, eta elementu enkriptatua gertatu zaie euskaldun ez bertze guztiei».

Bat egiten dut Lazkanok gutiengoa anomalia edo probokazio ez bezala hartzeko neke izugarria duen Frantzia jakobinoaz eginiko analisiarekin. Ongi jakinik, gainera, hizkuntza bakar batez mintzatzea dela planeta honetan egiaz arraroa eta *anormala* dena. Bi hizkuntza edo gehiagotan mintzo dira lurtar gehienak.

Haatik, ni, euskal herritarra izanik, hainbat hizkuntzatan hitz eginagatik ere, ez naiz neurean mintzo. *Euskaldunen* artetik kanpo nago neurez. Dolugarri zait egiaz kontradikzioa, min fisikoa da kasik. Guztiz sinesteraino uste dut, adibidez, ez dudala euskal paisaia behar bezain ongi hautematen. Euskaraz, euskarazko elez, hautemanen banu, osoki ikusiko nuke. Hiru hizkuntzatan ikusi beharko litzateke, euskaraz, espainieraz eta frantsesez, multikolorean edo teknikolorean ikusi ohi den bezala.

Baina laburregia da bizitza, huts hain metafisiko batez dolutzeko. Ez dut galera horren pisua eraman nahi. Neure

baitarik kanpo ezartzen entseatzen naiz orduan gehienetan. Halatan, drama nazionala neure drama bilakatzeko arbuio horretan egiten dut, hain zuzen ere, neure askatasunarekin topo. Ene bidaien laguntzaz gorpuztu den askatasuna. Euskaldun izateak halako etxekotasunaz ikusarazten dizkizu herri tipiak, edo lurralde jakinik gabeko herriak, hala nola Nigeriako igboak, kurduak, ordoki zabaletako indiarrak, edota Hego Afrikako zuluak... Kidetasun mina sentitzen dut lurralderik gabeko herrien alderat, bai segurik bertze nazioei baliatzen ahal duten lurralde bakarra beren mintzaira eta beren kultura dela azaldu behar dutenen kasuan.

Badakizue zertaz ari naizen: bidaiariak, denbora luze eman behar izaten dute euskaldunek Euskal Herria non dagoen azaltzen. Ezin dituztelako mapa batean dagozkien muga-marrak erakutsi. Orain duela zenbait urte gertatu nintzen Gineako Itsasoaren barneko zolan yoruba bati hemengoa, Bizkaiko Itsasoaren barneko zolakoa, naizela azaltzen. Ene *Il faut beaucoup aimer les hommes* eleberrirako inspirazio bideetako bat urratu zuen gertakari hark.

Mundu ideal batean ez da gehiago marrarik ez mugarik izanen. Arte horretan, deus ere ez nuke Euskal Herri independente, demokratiko, ez biolento, laiko eta feministaren<sup>1</sup> kontra... Baina halako herstura menturaz oso frantsesa bizi dut nazionalismoen aitzinean. Frantzia, faxismoarekin lotzen da eskierki nazionalismoa, Front National delakoagatik. Nazionalismoaren ideia bera bahitu du FNk. Modu zabalagoan, mundu guztia frantsesa dela imajinatzen dute «chez français» frantses petoek. Parisen euskaldun ageri dena, irrigarri hartua da kasu hoberenean, edo terroristatzat gaiztoenean. Areago, Bataclan eta *Charlie Hebdokoen* ondoan, nehor ere beldurtuko

<sup>1</sup> Puntu honi buruz: harriduraz ikusi nuen, hizkuntza gutituen gaineko bi mintzaldi hauetan, bertze hamar gizonekin batean emakume parte hartzaile bakarra nintzela. Gogaiturik eta atsekabeturik, parekidetasuna errespetatu alde eginiko aha-legenin, eta jasaniko porrotaren, berri eman zidaten antolatzaileek. Sinetsi nien, eta urrikaltsu agertu, neure gutiengotik.

ez duten terrorista ohi edo *has been* horietakotzat hartuko dute bigarren kasu horretan.

Itsutuki maite dut Paris, azken ia hogeita hamar urte honetan bizi izan naizen hiria. Baina Euskal Herrira etortzen naitzelarik, bake handia jabetzen da nitaz. Ene kasuan, luzaz izan da lurralde hau gatazka herria, familian eta politikan. Baina ene bertze etxean, Parisen eta Frantzian, gertatu diren atentatuen ondotik, etxeko gozotasun berezia kausitu dut berriz ere Euskal Herrian. Ez diot etxe hau guztiz baketurik dagoenik, bai ordea sentimendu berri bat gorpuztu dela ene baitan: lekuz aldatu da bakea.

Jendearen galde bati ihardesteko: nehoiz ez dut frantsesez baizik idatzi, egoera guztiz berezi batean izan ezik, *Charlie Hebdo*ren aurkako atentatuaren ondoren hain zuten ere. 2015. urte osoan gatazka bizian entseatu nintzen, ingelesez, prentsa anglo-saxoniarrean, Interneten eta unibertsitate anglo-saxoniarretan (amerikanoetan nagusiki), frantsesez ez jakinagatik beren burua egia ez direnak aireratzeko baimenaren jabe ikusi zuten hainbati eta hainbati *Charlie Hebdo* zertan zen azaltzen. Agerkari hori arrazista dela eta merezi duena baizik bildu ez zuela argudiatzen zuten bereziki. Akiturik bukatu nuen pedagogia ahalegin haren ondoan, ingelesa menderatzen dudana hizkuntza bada ere. Ez baitzen literatura, baizik eta atentatu ondoko premia. Suhiltzaile lana zen, larrialdiak beharturiko lana nahi bada, batere ez baita ariketa jostakina umorea eta marrazkiak azaldu beharra. Ene bizitzan lehenbiziko aldiz dudatu nuen dena itzuli izan ote litekeen eta, *Charlie Hebdo*ren kasuan, hil ala biziko auzia zen hitzez hitz.

\*



Idatziz ematen ari natzaio mintzaldi honi segida, Donostiako Aquariumean eman eta gero. Euskal Herrian segitzen dut betiere, Iparraldean. Pentoka berde baten aitzinean ari naiz idazten, zirtaka ari da goizeko horma ekiaren pean ezteki urtzen.

Jatorri errumaniarreko frantses batek, Isidore Isouk, eraman zuen teoriaren esparrura hizkuntzen poesia komunitate handia izan litekeena. Nazioarteko Letrista sortu zuen berrogeita hamarreko urteetan: «Unibertsaltasuna obratuz, nazioartekotasun bera sortuko dugu hizkuntza guztiendako, haien arteko bakoitzaren garrantzia kontuan hartu gabe. Berdinak izanen dira nazio guztien irabaziak eta galerak, poesia ororen amets zaharra gauzatuko dugu gisa horretan. Non-nahi izan dadila poesia transmitigarria, gaindi ditzala muga guztiak. Poesia letrista, nazioarteko lehena egiaz».

Itzulpen akats baten ondorioa izan zen Nazioarteko Letrista horren inguruko ideia, eleari baino letrari eta dagokion hotsari datxekiena. Keyserlingen perpaus bat, «le poète dilate les vocables», oker itzulia eman zen errumanieraz, «le poète dilate les voyelles», eta perpaus hark aldatu zuen Isouren bizitza.

Libertigarria da, ene ustez, itzulpenean eginiko oker batek hizkuntzen arteko transmisio unibertsalaren utopiarako bidea ireki izana. Alabaina, halako erdara mota da betiere idazketa literarioa, edo idazketa poetikoa, bat baitira ene iritziz biak. Areago, topos bilakatua zaigu gaurgero. Neure *Rapport de police*<sup>2</sup> entseguan, jostatzeko parada ukan nuen horren jori ageri zaigun leku komun horretan barrena noizbait abiatuak ziren idazleen erranak bildurik:

«Erdara molde batean idatziak dira liburu ederrak» (Proust). «Hizkuntza ezezagun batean mintzo da poeta, norberak, bai eta poetak berak ere, grekotzat edo kaldeeratatzat har-

<sup>2</sup> POL, 2010.

tua duen mintzaira batean hain zuzen» (Ossip Mandelstam). «Estiloa [...] nor bere hizkuntzan arrotza denaren idurikoa izatea da» (Gilles Deleuze). «Moderno erraten diet, hizkuntza oro erdara gisa bizi dutelarik, bertze hizkuntza baten xerkan entseatu direnei [...]» (Christian Prigent). «Hizkuntzaren barneko hizkuntza da estiloa, eta ez dago hartaz guziz jabetuko den eta, are gutiago, hura menean hartuko duen, idazlerik [...]» (Dominique Fourcade). «Idazlea da hizkuntza arazo bilakatzen duena». (Roland Barthes). «Idazlan baliotsu oro dira idatziak diren hizkuntzaren aurkako matxinadak» (Danilo Kiš)...

Hots: literatura, «egiazko» literatura, itzultzea, erdara mota bat itzultzea da berez. Marguerite Durasek, adibidez, ez du zuzen-zuzen frantsesez idatzi: etengabe asmatu du frantses molde bat frantsesaren barnean, hizkuntzaren barnean bere berezko hizkuntza urratuz. «Sena Mekong da» idatzi zuelarik, ibai bakar batek ikusi dituen bertze ibai guztiak oroitarazi dizkiola adierazi nahi izanen zukeen menturaz. Zer, bertzela? Zer *erran nahi ote zuen* Marguerite Durasek? Izan ere, adi irakurleok, «Sena Mekong da» idaztea ez da «Sena Mekongen idurikoa da» idaztea. Ez eta «Sena Mekong bezalakoa da» ere. Sena ez baita Mekongen idurikoa. Aparentziaz ere ez! Ez da Mekong bezalakoa. Baina Mekong da, zenbaitetan.

Hizkuntza askotara itzul daiteke Duras. Baina ezin da frantsesera bihurtu. Ezin da normalizatu, frantses «normalera» murriztu. Ezin dira «idurikoa» eta «bezalakoa» erantsi. Gogo paisaia eta munduak hedatzen ditu Durasen hizkuntzaren afirmazio indarrak. Literaturak alegia. Dagokion lekuan da hitz bakoitza. Hizkuntza bat da, hizkuntzaren barnean.

Bada egia bat afirmazio poetikoan, fisika kuantikoan ere baden bezala: metodoa, behaketa eta gailu tekniko ongi lan-

duak bezain zehatzak guztiz kontuan hartzen dituen egia. Ikerketa lan molde bera bideratzen dute fisikariak, bere partikula azeleragailuaz, eta idazleak, bere erran poetikoaz. Hizkuntzak gainditzen ditu egia honek. Literaturatik harat joan eta Isidore Isouk amestu zuen nazioarteko hura federatzen du.

\*

Perpau baten ibileraren berri eman nahiko nuke orain, bukatu aitzin. Elikatu nauen perpaua. Honela dio: «ikusmirarik gabeko jendea baizik ez da errealitatean barrera itzuri joaten».

Egiazko xoka eragin zidan hein batean paradoxazkoa ere baden baieztape honek, lehen aldikotz irakurri nuelarik. Ene bizitzaz eta ene idazkeraz anitz zioela iduri izan zitzaidan.

Bukaeratik abiatu nahi nuke perpau honen ibilera kontatu, batere ez baitakit bidaia honetan logika kronologikorik ba ote denentz. Izatekotz, elkartzean, ondokotasunean, espazio hurbilean, oinarritu logika genuke. Ametsen logika menturaz.

Goethe Institutuan nintzen, Parisen, 2014ko urtarrilean, Arno Schmidt, mundu bat eta hizkuntza bat asmatu zituen idazle alemaniarrari buruz mintzatzeko. Mintzaldiaren bukaeran, hitza galde egin du gizon batek, entzuleen artetik. Nitaz jabetu den perpau baten aipua egin du. Hona hemen: «Imajinaziorik gabeko jendea baizik ez da errealitatean aterpetzen».

Pilpiraka hasi zait bihotza, halako *unheimlich* sentimendua, aitortza eta harridura nahasian, eraginez. Ezagutzen nuen bertze perpau haren eite bertsukoa izanagatik ere, ez da berbera, itzulpen hein batean desberdin batetik sortua balitz bezala.

Perpaua non ikasi zuen galdetu nion gizonari. *Soir Bordé d'Or*, Arno Schmidten liburu «kultuzkoan», ageri dela ihardetsi

zidan. *A priori* elkarrekin zer ikusirik ez badute ere, ene geografian zedarrri garrantzitsuak diren bi munduren arteko kolusioa sentitu dut neure baitan: gerra bukatu ondoko Alemania eta apartheidaren ondoko Hego Afrika. Kwazulu-Nataleko mendi biribilak azaldu zaizkit. Zuluena lurraldea ikusi dut, Hego Afrikan. Neure zenbait eleberrri inspiratu duen bizitza zati baten aitzinean gertatu naiz.

Santu Mofokeng, argazkilari hegoafrikar handiaren katalogo batean irakurri nuen, 2011n, perpaus horren lehen bertsoa. *Chasing Shadows* zen katalogo haren izenburua, frantsesez *Chasseur d'ombres*<sup>3</sup> bezala emana. Ikusezina atzematen entseatu den argazkilariaren artea ekarri zuen Mofokengek gogora katalogo hartan, bai eta zulu eta sotho hizkuntzetatik abiatu itzulpenean kausitu arazoak ere<sup>4</sup>. Eta perpaus hau aipatu zuen: «ikusmirarik gabeko jendea baizik ez da errealtatean barrena itzuri joaten».

Hain hunkitu ninduen 2011n perpaus hark non Mofokengekin harremanetan jarri bainintzen, une hartan idazten ari nintzen eleberrian, *Il faut beaucoup aimer les hommes*, baliatu ahal izateko baimena galde egiteko. Dotoretasunez ihardetsi zidan, egin ere, perpausa berea ez zela erranez: atsotitz horietakoa, zuhurtzia unibertsalaren emaitza bat, zen haren iduriko. Nolanahi ere den, idatzi zidan, ardura hartzen zuen neskalagunak perpaus hura ahotan.

<sup>3</sup> Santu Mofokeng, *Chasing Shadows*, Prestel Verlag, 2011.

<sup>4</sup> Hona hemen zer dioten bere obraren izenburuaren itzulpenaz. «itzal» hitzari dagokionez: «“Shadow” does not carry the same image or meaning as *seriti* or *is'thunzi*. The word in Sotho and Zulu is difficult to pin down to any single meaning. In everyday use *seriti* or *is'thunzi* can mean anything from aura, presence, dignity, confidence, power, spirit, essence, status and or wellbeing. The words in the vernacular also imply the experience of being loved or feared. One's *seriti* / *is'thunzi* can be positive or negative and can exert a powerful influence. Having a good or bad *seriti* / *is'thunzi* depends on the caprice of enemies, witches, relatives both dead and living, friends or associations, and on circumstance or time. Having and defending one's own *seriti* / *is'thunzi* from evil forces or attacking the *seriti* / *is'thunzi* of one's perceived enemies preoccupies and torments many African people. (...) And while I feel reluctant to partake in this gossamer world, I can identify with it. It does not strike me as 'peculiar'. Yet, I still try to avoid being trapped in its hypnotic embrace (...). Perhaps, I was looking for something that refuses to be photographed. I was only chasing shadows, perhaps. »

Ez nintzen ene jakin-minean petralago jokatzera aurtu eta hartakoan bukatu zen gaiaren inguruko e-posta trukea. Eta neskalaguna, bera bezala, sotho edo zulu hizkuntzan mintzatuko zela egiten nuen neure artean. Xarma ezin misteriotsuagoa, xamanikoa erranen nuke, hartzen zuen perpausak ene belarrietan. Eta halako kutun gisakoa bihurtu zitzaidan.

Alabaina, perpausa Goethe Institutuan munduko bertze aldetik gibelera etorri zitzaidalarik, zuluaren erran zahar bat Arno Schmidten liburu batean nola demontre kausi ote litekeen galdetzen hasi nintzaion neure buruari.

Goethe Institututik itzuli orduko jarri nintzen Santu Mofokengekin harremanetan. Neskalagun ospetsua... alemaniarra zela ihardetsi zidan. Poeta anarkista aleman batzuen aldizkari baten aitzinaldeko azalean kausitu bide zuen perpausa. Hona hemen haren jatorrizko bertsoa: «*Nur die Phantastelosen flüchten in die Realität*».

Arno Schmidten *Soir Bordé d'Or* alimaleko liburuak belar meta erraldoian barneratu bertze erremediorik ez dut. Urteak baditu ene liburutegian dagoela, Claude Riehlék frantsesez emana<sup>5</sup>. 133. orrialdean ageri da perpausa, kakotxen artean: aipu bat da, Wilhelm Jensenena. *Gradiva*, Freudek ametsen gaineko ikerketa lanean aztertu zuen eleberriaren autorea da Jensen. Oihartzun handia eduki zuen obra hark surrealista frantsesen artean, André Bretonengan bereziki.

Horra bada ustez «zulua» zatekeen atsotitza, Arno Schmidtek aipatua, egiaz Jensenek sortua eta, aldi berean, Freudek eta, ondoren, André Bretonek baliatua... mundua lurpeko logika baten arabera ari izanen balitz bezala, isilpeko idazketa baten, inguru poetiko baten, arabera ehundua balitz bezala.

<sup>5</sup> Arno Schmidt, *Soir Bordé d'Or*, Claude Riehlék frantsera itzulia, Maurice Nadeauren argitalpena, 1991.

Nazioarteko bat, letrista nahi bada, eleez, haien oihartzun intimo eta unibertsalez, axolatzen den magia arrazional bat... Haren hatza da literatura, non-nahikoa den ere.







# - *zertzelada apokaliptikoak*

*Adan Kovacsics*  
*Bego Montorioren itzulpena*

## I

Uda betean heldu zitzaidan Donostia/San Sebastián 2016ko gonbita. Abenduan egitekoa zen topaketa batean, honako hipotesi asaldagarri hau eztabaidatu nahi zuten: *demagun ehun urte barru gure hizkuntza ez dela jada existitzen*, eta bertan parte hartzeko deitzen zidaten. Baietz erantzun nuen, udaldian ohikoak diren axolagabetasunak, arinkeriak eta grina hutsalak hartaraturik. Izango nuen denbora izenburuko hipotesiak planteatzen zituen galderez hausnartzeko; denbora, nire mintzaldiaren edukiaz pentsatzeko, zalantzetarako, erreparoetarako, baita itxaropen txiki-txiki bat elikatzeko ere, pentsatuta

biltzar hura, hondarrean, ez zela egingo; denbora luzea izango nuen udagoieneko hilabete malenkoniatsuetan, ilunpeak hazten diren garai horretan, euria goian behean ari denean, biluzten hasitako zuhaitzen hostoek, urrezko lore erraldoi bilakaturik, zabaltzen duten distira dekadentearen argitan. Azkenean, jada Prateko aireportuko gela hits zatatatsu horietako batean nengoela, Donostiarako hegaldia hartzeko puntuan, neure buruari galdezka ari nintzaion, halakoetan beti ohi dudan moduan: Zergatik noa? Zergatik noa? Calderaren erritmoarekin bat egiten zuten nire bihotzeko taupadek. Erantzuna, alabaina, argia zen. Joan nindoan irakurrita neukalako topaketara deitzen gintuen pertsonaren liburu zoragarri bat, Anjel Lertxundiren *Eskarmentuaren paperak*. Irakurri nuenean, duela zenbait urte, berehala antzeman nuen halako gertutasun bat, senidetetasun bat. Ezaguna nuen orri haiek ibiltzen zuten paisaia literarioa —Kosztolányirena, Márairena, Kertész, Gombrowicz, Miłosz, Klaus Mann eta Joseph Rothena—, eta hain gertukoa ez zitzaidan beste mundu bat ezagutu nuen, euskararena. Izan ere, Anjel Lertxundiren liburu horretako 160. orrialdean agertzen da topaketaren abiapuntua eta neurri batean gidaria den Witold Gombrowiczen esaldi aztoragarria: «Hemendik ehun urtera, artean gure hizkuntza existitzen bada...».

Czesław Miłoszentzako gutun batean idatzi zuen Gombrowiczek esaldia, eta bere hizkuntza zuen hizpide, poloniera. Anjel Lertxundiren kezka euskarari buruzkoa da; hizkuntza ez-hegemoniko bat, haren esanetan. Azaldu behar dut nire lan hizkuntzetako bat ere ez-hegemonikotzat jo daitekeela gaur egun, ez-inperialtzat, nahiz eta euskararekiko desberdintasunak handiak izan, historiagatik, kokapen geografikoagatik, etab. Hungarieraz ari naiz. Hungarieratik itzultzen dut, eta

hizkuntza hori ere, euskara bezala, hizkuntza eranskaria da, eranskariak ez diren hizkuntzek inguratua. Anjel Lertxundik ez-hegemoniko esaten dien hizkuntza horietan idazten dutenek badute ezaugarri komun bat: zalantzan jartze moduko bat, pitzadura, arrakala, duda antzeko zer bat hizkuntzaren pertzepzioan; hizkuntza ez baita azalera lau, eta beraz ikusezin, baten modura azaltzen; ez da agertzen beti bertan dagoen aintzira baten naturaltasunaz. Horren eraginez, batzuek hizkuntza horietako idazleei (ez, ordea, hegemoniko esaten zaien hizkuntzetako idazleei) egin ohi dizkieten galderak —«zergatik idazten duzu hizkuntza horretan?», «zer esan nahi du zuretzat hizkuntza horretan idazteak?»—, Anjel Lertxundik arrazoi osoz errespetugabetzat jotzen dituen galdera horiek barneratu egiten dira zenbaitetan, barne galdera bilakatzen dira: «zergatik idazten dut hizkuntza honetan?», «zer esanahi du niretzat hizkuntza honetan idazteak?». 2002ko Literaturako Nobel saridun Imre Kertész hungariarrak ere galdera berak planteatzen ditu, eta ondorio erabateko eta aldi berean anibalenteetara heltzen da.

Batzuetan —ez beti—, Holokaustoko idazletzat jotzen du bere burua Kertészek; Tadeusz Borowski poloniarraren eta Jean Améry austriarraren parean jartzen du bere burua, eta honela dio *A száműzött nyelv* (Hizkuntza erbesteratua) liburuan: «Holokaustoko idazlea nonahi eta hizkuntza guztietan da erbesteratu intelektuala, beti asilo eskean atzerriko hizkuntzei». Eta horrekin ez du bakarrik adierazi nahi bere lana itzulpenaren bidez zabaldu zela, behin baino gehiagotan azpimarratu badu ere, ezpada idazteko darabilen hizkuntza bera arrotza dela, neurri batean, Holokaustoaren berezko hizkera izan beharko lukeenari dagokionez. Holokaustoak ez baitu bere hizkuntza propiorik; hizkuntza berria sortu beharko litza-

teke hura erabat azaldu ahal izateko. Hungarieraz, alemanez, italieraz, polonieraz edo grezieraz idatzita dagoela ere, Holokaustoaren literaturak maileguan hartutako hizkuntzan jarduten du, ez dagoelako hori adierazteko gauza den hizkuntzarik, bizirik atera dena berez delako pertsona zokoratua, berea beharko lukeen hizkuntza ez baitator bat hizkera nagusiarekin, besteen hizkerarekin. Tadeusz Borowski, Auschwitzetik bizirik irten-dako idazle poloniarra aipatzen du Kartészek, honela baitzioen hark: «Euren oihuekin isiltzen gaituzte poetek, abokatuek, filosofoek, apaizek».

Imre Kertészek harreman anbigua zuen bere hizkuntzarekin. «Hungarieraz idazten dut, hori dut zoritxarra», aipatu izan zuen inoiz. «Hungariera dut hizkuntzarik apartekoenena, ama hizkuntzaren mailan hitz egiten dudana». Edota, *Gályanapló (Galeretako egunkaria)* obran: «hungariera beti izango da bigarren mailako hizkuntza bat, bazter utzitakoa eta gaizki ulertua; kultura hungariarrak ez du sekula tokirik izango garrantzia duen kulturaren baitan, kultura unibertsalean, kultura hungariarra beti hartzen baita bigarren mailakotzat, bazter utzitakotzat, gaizki ulertutzat». Aldi berean, hizkuntzak bultzatzen du Kertész, beste gauza batzuen artean, bere herrian geratzera, 1956an alde egiteko aukera duelarik; geratu egiten da bere nobela idatzi behar duelako; horrela agertzen da, fikziora eramanez, *A kudarc (Porrota)* liburuan. Gozatu ere egiten du Kertészek bere hizkuntzaren ñabardurekin, eta hala ikus daiteke bere lanetako zenbait pasartetan, estilo kontuez egiten dituen gogoetetan edo idazle hungariar zenbaiti dien maitasunean; Szomory edo Krúdy, esaterako, atsegin handia hartzen baitzuen prosalari handi horiek irakurtzen.

Alabaina, norberak idazten duen hizkuntzarekiko harreman urrun samar, zalantzatsu hori bera agertzen da hizkuntza hegemoniko edo inperialetan ere. Esango nuke haien periferian gertatzen dela, eta ez txiripa hutsez. Alemanaren esparruan, adibidez, Austrian gertatzen da gehienbat. Hain zuzen ere, literatura austriarraren ezaugarrietako bat da hizkuntzari buruzko gogoeta etengabea, hizkuntzarekiko zalantza, hizkuntzaren kritika. Austriako alemana aleman «txiki» bat dela esan genezake Deleuze eta Guattari parafraseatuz, Kafkaren idazkerari eta Kafkaren alemanari buruz, Pragakoaz, dihardutelarik; Paul Celan ere periferiatik zetorren, inperio austrohungariarra izan zen haren mugaldeetatik.

## II

Bada Anjel Lertxundiren liburu zoragarri horretan arreta eman zidan beste elementu bat: hizkera administratiboari, burokratikoari buruzko gogoeta. Honela dio: «Euskararen batasuna eta etorkizuna teknikarien lana dela, politikarien praktikak hala sinestarazi zigun eta euskalgintza halaxe dabil aspaldi». Eta, aurrerago: «Pobretasuna da halako hizkera baten ezaugarri nagusia: monotonoa da, lexiko unibokoa du, kate morfosintaktiko beti bera, kolore bakarra, tonu elkor lehorra eskaintzen du (robotek robotekin jarduteko ezin aproposagoa) [...] Ez ditu ahozko hizkera eta idatzia bereizten, ez ditu erregistroak desberdintzen, den-dena lautzeko joera du arruntasunaren galgan (lapa beltzak ere aspertuko lituzke) [...] Hedabideek, beren kode propioa landu ordez, hizkera burokratikoa imitatzen dute, eta, are okerragoa dena, hizkera burokratikoari bermea ematen diote. (Hedabideak boterearen

bozgorailu bihurtu dira, baita hizkera klase baten transmisioa egiterakoan ere)».

Karl Krausek —jakina denez, sarritan itzuli dut autore hori, baita luzaz aztertu ere— barre egiten dio, Lehen Mundu Gerraren amaiera aldera idatzitako *Ampliado y profundizado* satiran, garai hartan prentsa zenaren eta egun hedabideak, oro har, diren horien paperari. Eta iradokitzen du XX. mendetik aurrera hizkera bera partekatzen dutela botereak eta hedabideek, eta hala, fartsa hutsa bihurtzen dela hedabideek botereari kontu hartzeko asmoa. Ezin dute halakorik egin, hizkera bera darabiltelako. Estatu modernoaren funtzionamendutik eta horren hizkeratik ezin berezizkoa da prentsa, iradokitzen du Krausek. Administrazioaren eta hedabideen arteko aliantza hori, gainera, loturik dago hizkeraren ikuspegi murriztaile bategin: hizkera bitarteko hutsa da, informazioarena zein desinformazioarena. Hala bada, topikoz elikatutako eta topikoetan itotako hizkuntzak, esperientziazatik bezainbat ideiazatik alden-  
durik, galdu egiten du, azkenean, adierazteko ahalmena; galdu egiten ditu bere alderdi askotarikoak, eta bakarrari eusten dio; horrexek kutsatzen du dena: irakurleak, entzuleak, hiztunak, baita gauzak eurak ere. Behin betikoa eta saihestezina dirudien prozesu baten aurrean gaude, eta kezka baino ezin diogu begiratu.

### III

*Demagun ehun urte barru gure hizkuntza ez dela jada existitzen...* Esaldi horrek etorkizunarekiko larridura adierazten du... Gaur egun, ziurgabetasuna da nagusi gure etorkizunari dagokionez, dagoen krisi ekonomikoaren, politikoaren eta sozialaren

eraginez, baina baita teknologiak zabaltzen dituen aukeren eraginez ere. Oro har, halako dimentsio apokaliptiko bat nabari da gure zibilizazio teknologiko hau hautemateko moduan.

Azken hamarkada luzeetan egonezin eta larritasun handia, apokaliptikoa sortarazi du teknologiak pertsonon etorkizunari gagozkiolarik. Zibilizazio teknologikoak arriskuan jartzen duelako gizateriaren existentzia bera. Aukera egon daitekeelako pertsona funtsean manipulatzeko, ingeniariak genetikoaren alorreko zenbait praktika tarteko. Distantzia izugarria dagoe-lako teknikaren esparruko ekintzen eta horien ondorioen artean; ekar ditzagun gogora, adibidez, energia nuklearra eta haren hondakinak, mendetan zehar jarraituko baitute izaki bizidunen ingurunea eta osasuna mehatxatzen. Ez garelako jada bitarteko batez, baliabide batez, gure luzapena den zer batez ari, gu geu bilakatzen baikara bitarteko, baliabide, aldaketa teknologikoen beraien akuri. Dialektika bat dago, helburu eta eskari berriak sortzen dira; pentsaezinak ziren orain arte, eta ez dira nahitaezkoak, baina gainezka daude gure bizitzetan. Guk jada menderatu ezin dugun dinamika propioa sortzen du teknologiak. Pentsa dezagun, gainera, gaur egun kapitalak ezin duela jada enplegua bermatu, pertsonak lanpostuetatik baztertzeko joera duela, haien ordez makinak, robotak jartzeko. Nabaria da hori, guztiz bistakoa. Bestela esanda, etorkizunarekiko kezka-, larritasun- eta zalantza-egoera bizi dugu.

Testuinguru horretan kokatzen da, nire ustez, mintzo garen eta idazten dugun hizkuntza hori hemendik ehun urtera desagere daitekeelako hipotesia. Hau da, hizkuntzagatiko kezka etorkizunagatiko kezka edo larritasun orokorraren baitan txertatzen da. Eta ez da bakarrik euskararen kontua. Zer gertatuko da gure hizkuntzarekin? Zer gertatuko da gure hizkuntzekin?

Estatu Batuetako gobernuaren Energia Saila, adibidez, 1983az geroztik ari da hizkuntzalariak, arkeologoak, antropologoak, zientzialariak, zientzia fikzioko idazleak eta futurologak biltzen, ikertzeko nola ohartarazi arriskuaz, hemendik milaka urtera, Carlsbaden (Nuevo Mexiko) dagoen hilerri nuklearrera hurbil litekeen jendea. Nola jakinarazi hamar mila urte barru pertsoneri —pertsonak baldin badira— han bildutakoa arrisku-tsua dela, guztiz kutsagarria? Ez dirudi gaur egun erabiltzen ditugun hizkuntzek ordura arte bizirik iraungo dutenik, beraz, orain jar ditzakegun abisuak ez dira ulertuko. Eta hala, pentsatzen ari dira irudiak, ikonoak baliatzea —Edvard Munchen *Oihua*, esaterako— arriskuen berri emateko. Ideia bat egiteko, nahikoa da esatea badagoela «semiotika nuklearra» izeneko diziplinarteko esparru aztoragarri bat. Horraino heldu gara...

#### IV

Eranos taldeko batzarretako batean —hogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, urtero, filosofoak, teologoak eta zientzialariak bildu zituen talde horrek Suitzan, Ascona herrian; aipatuko dut, bidenabar, *eranos* hitz greziarrak «jendarteko otordua», «lagunarteko otordua» esan nahi duela, hots, gure topaketa honen antzeko zerbeit—, bada, batzar haietako batean, 1970ekoan hain zuzen ere, duela ia berrogeita hamar urte, «Gizakia eta hitza» izan zen izenburua. Bertan parte hartu zuten Ernst Benz teologoak, Gershom Scholem filosofo eta mistika judutarraren ikertzaileak eta beste zenbait adituk, eta horietako lehenak adierazi zuenez, honoko hau izan zen bileraren arrazoia: «hizkeraren bilakaera izugarri azkartzen ari da, eta bilakaera horrek hizkuntzaren desagertzera garamatza.



Automatizazioan ikus daiteke, gizakiak asmatutako ordenagailuetan, zeintzuen esku utzi baitu gure zibilizazio modernoak geure bizitzaren zenbait alorretako planifikazioa...».

Lehenago esan dudanez, urte luzez landu dut Karl Kraus satiriko austriarraren lana, *Die Fackel (Zuzia)* aldizkariaren sortzaile eta egilearena. Hura ere idazle apokaliptikoa izan zen. Haren obra nagusietako batek Lehen Mundu Gerraz dihardu, eta *Die letzten Tage der Menschheit (Gizateriaren azken egunak)* du izena; ez da kasualitatea. Kraus, aldi berean, hizkuntzaren degradazioaz kezkatzen zen. Bestela esanda, badirudi lotura bat dagoela apokaliptikoa dei genezaken larritasunaren eta hizkuntzaren degradazioagatiko, are desagertzeagatiko kez karen artean.

## V

Hizkuntzari edo hizkuntzei buruzko gogoeta filosofikoak iker-tu dituztenek badakite une jakin batetik aurrera luze hitz egin dela hizkuntzen bilakaeraz, izan dituzten eraldatzeez, haien historiaz. Hala gertatzen da, adibidez, Giambattista Vico filosofo napolitarraren historiaren ikusmoldean, historiaren eta hizkeraren bilakaerak paraleloan ikusteko moduan. Vicok zenbait aro edo garai bereizten ditu historian, baita, aldi berean, hizkuntzan ere. *Scienza nuova (Zientzia berria)* lanean, aro jainkotiarra, aro heroikoa eta aro gizatiarra aipatzen ditu; beste modu batera esanda, garai teokratiko bat, garai aristokratiko bat eta garai demokratiko bat; lehenak jainkoak gorai patzen ditu, bigarrenak heroiak ditu handiesten, eta hirugarrenak, pertsonak. Eta honoko hau gehitzen du: «Hiru izaera eta gobernu modu horiekin lotuta, hiru hizkera mota hitz egin ziren»;

aurrerago, hiru hizkera mota horiek zehazten eta deskribatzen ditu. Guri aro gizatiarra legokiguke, garai demokratikoa, hizkera prosaikoa duena, «bizitzaren erabilera arruntetarako egokia». Apur bat gehiago zehaztuz, Vico baino murgilduago bikaude garai honetan, esan genezake Anjel Lertxundik aipatzen duen hizkera burokratiko-kazetaritzako hori dagokiola garai honi, dena hartzen duen eta denok ohitu garen hizkera elkor, monokromo, uniboko eta estatuaren menpeko hori.

Vicok ez zuen, ez, ustekabean idatzi hizkuntzaren historiaz XVIII. mendearen hastapenetan. Mende hartan, funtsezkoa eta gorabeheratsua izan zen hizkuntzari eta horren sorrerari buruzko eztabaida. Horri buruz idatzi zuten, besteak beste, Jean Jacques Rousseauk, Johann Gottfried Herderek eta Johann Georg Hamannek, baita beste zenbaitek ere. Pitzatu egin zen hitzaren jatorria jainkotiarra zelako sineste sendoa. Gizon-emakumeen zer bat bilakatu zen hitza. Hori frogatzeko, lehiaketa bat antolatu zuen, 1769an, Berlingo Zientzien Akademiak, Frederiko Handiak bultzaturik. Funtsezkoa zen auzia. Eta hau zen galdera: *En supposant les hommes abandonnés à leurs facultés naturelles, sont-ils en état d'inventer le langage?* Herderek irabazi zuen lehiaketa, *Hizkuntzen jatorriari buruzko tratatua* izeneko saiakerarekin. Lan horren eraginez, eztabaida piztu zen Herderen eta Hamannen artean. Hamannek filologo kabalistikotzat zuen bere burua, eta hitzaren jatorri jainkotiarra defendatu zuen. Oro har, hitzak toki garrantzitsua zuen bere hausnarketetan. Hizkuntzaren magia desagertzearen kontra jarduten zuen, hizkuntzaren adierazkortasunaren, koloreen eta ñabarduren galeraren kontra; unibokoa denari egiten zion eraso, sinpletzeari, abstrakzioaren nagusitasunari, zeren, Hamannen ustetan, arrazoiak berak ere bai baitu funts linguistiko, eta,

beraz, poetiko bat. *Rede, dass ich dich sehe!*, «Mintza zaitez, ikus zaitzadan!», dugu haren esaldi aipatuenetako bat. Izakiek beren burua agerraraztea bera bada hizkera bat. Hamanek zioen askotarikoa dela hizkera; esan egiten du, iradoki, erakutsi, adierazi nahi ez duena ere adierazten du. Haren iritziz —Vico ere bat zetorren—, poesia zen «gizon-emakumeen ama hizkuntza». Lehen esandako moduan, filologo kabalistikotzat zuen bere burua Hamanek. Ez gara hemen barneratuko Kabalaren mistikak hizkuntzaz duen ikuskeraren mundu zabalean, bai ordea ohartuko, kontzepzio horren eta gaur egun dugunaren arteko aldearen handiaz, tresnatzat jotzen baitugu orain hizkuntza, informazio- eta komunikazio-bitartekotzat, edo, nahi bada, inkomunikazio- eta desinformazio-bitartekotzat, eta Anjel Lertxundik aipatzen duen hizkuntza elkor, monotono, monokromo eta uniboko horretara garamatza. Kabalaren ustetan, Jainkoaren hitza da, ezerezetik mundua sortzen duen hori, gizon-emakumeon hitzaren prototipoa. Eta pertsonon hitzak, aldi berean, Jainkoaren hitz sortzailea islatzen du. Hitz egitea Jainkoaren sorkuntza erreproduzitzea da. *Séfer Yetzirah* testuan —Kabalaren testu oinarrikoenetako bat— alfabetoa da hizkeraren jatorria, baita, aldi berean, unibertso osoaren jatorria ere. Lotura horretatik dator, halaber, hizkuntza zaindu beharra. Kabalako zenbait idatzik berariaz adierazten dute Tora osoa Jainkoaren izena dela. Ondorioz, testua transkribatzerakoan egindako akats txikiak ere mundua suntsituko luke.

Nolakoa litzateke mundua hizkuntzarik gabe? Besterik gabe, ez litzateke. Ideia hori dago Kabalaren hizkuntzaren filosofian oinarrian. Hitza ezin daiteke mundutik bereizi. «Orok hitz egiten du», dio Novalisek. Hitzaren jatorri jainkotiarren ideia aipatu dugu, baita gizon-emakumeon ama hizkuntza

poesia dela baieztatzen duen ideia ere, hau da, gure gaur egungo nolabaiteko handiustea iraultzen duten errepresentazioak, egungo ustea baita gailurra erdietsi dugula, umeen modura zezelka hasi zela pertsona hizketan eta gaur egungo mailara heldu dela etengabeko aurrerabidean.

Zenbaitek, ordea, kontrara ikusten du prozesu hori. Karl Krausen lanetan ere badago hizkuntzaren genealogia bat; hobeto esanda, hizkuntzaren behera jotzearen, degradazioaren genealogia, eta data ere jartzen dio. Data jartzen dio degradazio horren —eta, bere joera apokaliptikoari eutsiz, munduaren gainbeheraren— hastapenari: kazetaritza-hizkuntza sortu zenekoa, zehaztasun gutxiko eta hausnarke-ta urriko hizkuntza hori sortu zenekoa, hizkuntza informazio —edo desinformazio— bitarteko huts, topikoen gordailu, esperientziatik eta ideietatik aldentutako automatismo bilakatu zenekoa, eta, horretarako, bereak ez diren lurraldeetan ere barneratzen da kazetaritza; literaturan, esaterako, eta fagozitatatu egiten du. Hizkera guztietara zabaltzen da kazetaritza-hizkera, eta horri leporatzen dizkio Krausek gaitz guztiak: Lehen Mundu Gerra hastea, baita nazismoa sortu izana ere. Degradazio moralaren sintoma da hizkera txarra. Hizkuntzaren zaintza, berriz, moraltasunaren eskola. Hogeita hamarreko hamarkadaren hastapenetan, japoniarrak Shanghai bonbardatzen ari ziren artean, Kraus hizkuntzaz, gramatikaz eta estilo kontuez arduratzen zen nagusiki. Aurpegiratu egin zioten. Eta hark erantzun: «Shanghai bonbardatzen duten bitartean, ni komez arduratzen naiz. Hala da, uste osoa baitut Shanghai ez zuela bonbardaketarik pairatuko komak euren tokian baleude». Hor ikus dezakegu nolako hari sendoek lotzen duten esaldi hori Kabalako ideiekin, Kabalako mistika linguistikoa dagoen

hizkuntzaren laudorio eta goraipamenarekin. Hizkuntzaren ordena da munduaren ordena. Lehendabizikoa nahasteak bigarrena nahastea dakar.

## VI

Karl Krausek, bere testuetako batean, hizkuntza gaietako garbizaleen kontra jarduten du, Lehen Mundu Gerraren hasierako liskar gune hura baliaturik beren tesiak ezarri baitzituzten, baita agintariek jatorri arrotzeko zenbait hitz, batez ere frantses eta ingeles jatorrikoak, debeka zitzaizen lortu ere, eta testu horretan, Goethe aipatzen du; honela zioen Goethek: «Ama hizkuntza garbitzea eta aberastea bururik onenen zeregina da. Aberasterik gabeko garbiketa, ordea, asmamenik gabekoa izaten da sarritan. [...] Pertsona argiak material lexikoa biltzen du, zer elementuk osatzen duten kontuan hartu gabe; buruargia ez dena aratz mintza daiteke, ez baitu zer esanik. [...] Garbitzeko eta aberasteko modu askok jardun behar dute elkarlanean hizkuntza bizi haz dadin. Poesia eta mintzaira sutsua dira bizitza horren iturburu bakarrak, eta, oldarrean mendiko hondakinak ere garraiatzen dituzten arren, hondoan jalkiko dira hondakinok, eta haien gainetik ibiliko uhin garbiak».

Poesia eta mintzaira sutsua dira, baiki, hizkuntzen hitz biziaren iturburu bakarrak. Eta nahiz eta joera egon horiek burokratizatzeko, itozeko, mendean hartzeko, bigarren mailako eta estatuaren menpeko bilakatzeko, irudiaren, propagandaren edo etengabeko publizitate kanpaina bateko konpartsa bilakatzeko, elkor, monokromo eta geldo bilakatzeko, oraindik ere badabil erreka bat.

## VII

Hodei beltzak gorabehera, ematen du badagoela esperantza. Hala frogatu zen Donostiako Aquariumeko espazio magikoan, 2016ko abenduaren 12 eta 13an egindako topaketan. Magikoa zen espazioa, zeren, eszenaren atzeko arrainontzi erraldoian, errezel batek ezkutaturik, marrazoak eta arraiak mugitzen baitziren, dortokak eta suge arrainak; egokia, errezela, bestela animalia patxadatsu haiek eurenganatuko baitzuten ikusleen arreta, eta hizlarien oratoria isilarazi eta are gezurtatu ere egin zezaketen euren urrezko isiltasun misterioitsuaz. Argigarria eta esanguratsua zen hizlarien jarduna, esaten zutelarik, adibidez, askotarikotasuna dela nagusi gizon-emakumeon artean, baita pertsona bakoitzaren baitan ere, gizon-emakume gehienak elebidunak direla, emankorra gertatzen zaiola idazleari bere lana periferian sortzea, boterearen muinetik gertu egoteak dakarren pobretze mentala saihesten baitu horrela, idazlearen lanerako tresna ez dela hizkuntza hau edo bestea, hizkera bera baizik, ez gaudela identitate bati kateaturik, ibili gabiltzala, etengabeko bilakaeran, itzulpenean zerbait galdu egiten dela, baina handiagoa dela irabazia, itzulpenak literatura unibertsala dakarkiola hizkuntza bakoitzari, eta, hala, hizkuntza hori joriago egiten duela. Musikak jarri zuen azken puntua, sarritan gertatzen ohi denez. Antton Valverdek Lauaxetaren eta Lizardiren poemak kantatu zituen. Hitz ederrak, are ederragoak musikak, txotxongilolari baten modura, jaso egiten dituelarik. Hori, ordea, beste kapitulu bat da...







# ***ghost in translation***

***itzulpenaren mamua***

***Miguel Sáenz***

*Koro Navarroren itzulpena*

*“Beti puskatzen dira gauzak etxe-aldaketak egitean”*

*William Brown*<sup>1</sup>

Bitxia gerta daiteke bigarren solasaldi honen titulua, eta are gehiago azalpena (“Demagun mamua itzultzailea dela”). Argi dago “*lost in translation*” ingeles esapide ezagunaren parafraasi bat dela, adierazi nahi baita itzultzean zerbait galtzen dela beti.

Titulu horrek Sofia Coppolaren film bikain bat (2003) gogoraraziko dio askori, nahiz eta, izan, zerikusi handirik izan ez gaiarekin, eta ahaztuko ditugu orain Scarlett Johansson eta Billy Murray ezin ahantuzkoak. Eta duela gutxi titulu bereko liburu bat argitaratu da, Ella Frances Sandersena, zenbait hizkuntzatako hitz teoriarik ezin itzulizkoen bilduma bat dena

<sup>1</sup> Crompton, Richmal (1939). *Guillermo el incomprendido*, Guillermo López Hipkissek itzulia, Bartzelona, Buenos Aires: Editorial Molino, (144. or.).

(harrigarria bada ere, “*vacilando*” hitza jasotzen da gaztelaniatik, bidaiatzearen plazer hutsagatik egiten den bidaiatzea delakoan, eta, Karibeko espainieratik, “*cotisuelto*”, alkandoraren behealdea galtzen gainera eramaten tematzen den pertsonari esaten zaiona).

Aparteko liburu bat nahi nuke ordea aipatu, emakume poloniar batek idatzia, Eva Hoffman, titulu bera duena, *Lost in Translation*, eta gaztelaniazko eta euskarazko itzulpena aspalditik eskatzen duena. Eva Hoffmanek, hamahiru urte zituela, Kanadara emigratu zuen bere gurasoekin, eta kultura berri batera eta hizkuntza berri batera egokitu behar izan zuen. Inork ez ditu deskribatu hark bezala egokitzapen horren ondoriozko identitate-arazoak. Hona zer idazten duen une jakin batean: “Orain polonieraz egiten dudanean, nire gogoko ingelesak infiltratzen, barneratzen eta modulitzen du nire poloniera. Hizkuntza batek bestea aldatzen du, harekin gurutzatzen da, ongarritu egiten du. Hizkuntza bakoitzak bestea erlatibizatzen du. Mundu guztia bezala, nire hizkuntzen batuketa naiz. . . nire familiaren eta nire haurtzaroko hizkuntzen batuketa, heziketa-aren eta adiskidetasunaren hizkuntzena, eta maitasunarena, eta mundu handiago eta aldakorrago batena. . .”<sup>2</sup> Inork ez du hark baino hobeto landu zer esan nahi duen hizkuntzaz eta identitateaz aldatzeak.

Itzultzean zer galtzen den. . . Poesiaren alorrean, Robert Frost poeta iparramerikar handia gogoratzea gustatzen zait. Esan omen zuen behin (inoiz ez dut aipua dokumentaturik aurkitu): “Itzultzean zer galtzen den, hura da poesia” (*Poetry is what disappears in translation*). Eta gustatzen zait Goethe gogoratzea ere, hark, beste muturrean, idatzi baitzuen, *Poesia eta egia* obran, ez direla erritmoa eta errima poesia egiaz

<sup>2</sup> Hoffmann, Eva (1998). *Lost in Translation: A Life in a New Language*, London, Vintage, (273. or.).

poesia egiten dutenak, baizik eta poetarengandik geratzen dena, hura prosaz itzuli ondoren<sup>3</sup>.

Nik, neure aldetik, beti esan dut Douglas R. Hofstadterren tesiaren aldekoa naizela. Ez da hain ezaguna, baina *Gödel, Escher, Bach* liburu bikainaren egilea da (1979), eta ez zaio inoiz jaramon handirik egin itzulpenaren alorrean, ez baita hizkuntzalaria, adimen artifizialeko irakasle aditua baizik. Liburu aparta idatzi zuen, *Le Ton beau de Rameau* (Ravelen *Le Tombeau de Couperin* gogoratzuz). Liburu horretan, Clément Marot frantsesaren (1496-1544), “*A une Damoyseille malade*”<sup>4</sup> poemaren ezin konta ahala itzulpen eman ondoren (laurogeita zortzi zehazki) “*lost in translation*” behin eta berriz erabiliaren interpretazio hobea proposatzen du, eta *translation* hitzaren anagrama dotore bat eratzen du, zeina izango bailitzatekeen, besterik gabe, “*lost in art*”. Eta honela azaltzen du: “*For poetry’s found, not lost in translation*”<sup>5</sup>, hau da, “poesia aurkitu egiten baita, ez galdu, itzultzean.”

Itzultzean zer galtzen den... Nik ezin dut Salman Rushdie ahaztu, nola behin idatzi zuen (bere *Lotsa* nobelan): “Ni ere gizon itzulia naiz. *Zeharka eraman* naute. Orokorrean, uste izaten da beti galtzen dela zerbait itzulpenean; ni beste ideia bati lotzen natzaio —eta, ideia hori frogatzeko, Fitzgerald-Khayyamen arrakasta aipatu ohi dut—, posible dela orobat zerbait irabaztea.”<sup>6</sup> Turingo Unibertsitatean literatura-eraginei buruz 1999an eman zuen hitzaldi batean, esan zuen nola zeinen garrantzitsua iruditu zitzaion Rabindranath Tagorek, Bengalako Nobel sariak, askoz ere eragin handiagoa izatea Latinoamerikan, Victoria Ocampo bere argitaratzaile argentinarrari esker —eta Zenobia Camprubí eta Juan Ramón Jiménez itzultzaileei esker, erantsi behar zukeen—, Indian bertan baino<sup>7</sup>.

<sup>3</sup> Von Goethe, Johann Wolfgang (1948). *Aus meinem Leben: Dichtung und Wahrheit; Werke, Briefe und Gespräche* liburuaren oroitzapenezko edizioaren jasoia, Zurich, Artemis, X. Liburukia, (340. or.).

<sup>4</sup> “*Ma mignonne, / Je vous donne / Le bon jour; Le séjour c’est prison...*”.

<sup>5</sup> Hofstadter, Douglas R. (1998). *Le Ton beau de Marot: In Praise of the Music of Language*, New York, Basic Books, (139. or.).

<sup>6</sup> Rushdie, Salman (1985): *Vergüenza* (29. or.), Miguel Sáenzek itzulia, Madril, Alfaguara.

<sup>7</sup> Rushdie, Salman (2003): *Pásate de la raya (artículos 1992-2002)*, Miguel Sáenzek itzulia, Bartzelona, Plaza & Janés, (63. or.).

Bada ordu, ordea, “Itzulpenaren mamuez” hitz egiteko. Izan ere, ia horixe du titulua egilea eta itzultzailea —barka erredundantzia— den Javier Calvok duela gutxi kaleratu duen liburu bikain batek: *El fantasma en el libro (La vida en un mundo de traducciones)*. (*Mamua liburuan [Bizitza itzulpeneko mundu batean]*). Alabaina, Javier Calvorentzat *poltergeist* moduko bat da itzultzailea (espiritu burlati bat, hala esango luke Noel Cowardek), literaturan nahasten dena. Eta ideia horri nire indar guztiekin uko egin behar diot.

Calvok, aipatutako liburuan, honela dio: “Yo pienso que la invisibilidad es intrínseca a nuestra labor; no puede ser de otra forma [...]. Nuestro ideal es que nuestra traducción se lea «como si no fuera una traducción»”. (“Nik uste dut gure eginkizunak berezkoa duela ikusezintasuna; ezin da bestela izan [...]. Gure xedea da gure itzulpena irakurria izatea «itzulpena ez balitz bezala»”. Eta eranstean dio: “Berebat gustatzen zait mamuak garelako pentsatzea...”<sup>8</sup>. Ez du zehazten, Harkaitz Canok seguruen zehaztuko lukeen bezala, iparraldeko mamuez edo mamu mediterraneoez ari den<sup>9</sup>.

Nire iritzian, ideal (kimerikoa) izango litzateke, adibidez, liburu batek esatea: *Krimena eta zigorra*, halakorena (itzultzailearen izena), eta gero, letra txikian: “Dostoevskiren testu baten gainean”. Alabaina, Borgesek, “*Tlön, Uqbar, Orbis Tertius*” ipuinean, askoz ere ideia hobea izan zuen: Tlön —hala dio—, “...nekez egoten dira liburuak izenpetuak. Plagioaren kontzepturik ez da existitzen: obra guztiak egile bakarrarenak direla erabaki da, eta egile hori denboragabea eta izengabea da”<sup>10</sup>. Argi dago liburuetan ez egilearen ez itzultzailearen izena ematen ez den egunean, testuak besterik ez direnean, eskuratuko duela azkenik itzultzaileak berdintasun irrikatua.

<sup>8</sup> Calvo, Javier (2016). *El fantasma en el libro*, Bartzelona, Seix Barral, (8. or.).

<sup>9</sup> Cano, Harkaitz (2013). *Tivist: Seres intermitentes*, Gerardo Markuleta izulia, Bartzelona, Seix Barral, (21. or.).

<sup>10</sup> Borges, Jorge Luis (1980). *Prosa completa*, Bartzelona, Bruguera, I. Liburukia, (325. or.).

Itzultzailea, mamua ez ezik, liburu itzuliaren egilea da niretzat, besterik gabe. Inoiz ezin da ikusezina izan, *bere* itzulpenaren egilea baita. Itzultzailea idazlea da.

Horregatik, zentzugabea iruditzen zait itzultzailearen “ikusezintasunaz” aritzea. Itzultzailea ezin da ikusezina izan, zeren, nahita edo nahi gabe, itzulitakoan bere arrastoa utziko baitu, bere arrastoak utziko ditu. Ez dago partituraren aurrean desagertzen den musika-interpreterik. Nortasunik ez baldin badu, bere nortasun-falta besterik ez du islatuko. Asko idatzi zuen horretaz Lawrence Venutik.

Oso litekeena da gaur egun literaturaren mundua zentzu desiraezin baten aldera bilakatzen aritzea. Irakurleak edukiak bilatzen ditu, ez formak. Eta literaturaz hitz egiteak ikaragarri gauza zaharkitua ematen du. Itzulpen batek pare bat egunean behar du egina egon, irakurleek eskatzen duten bezala. Alabaina, egiaz al da hori itzulpena, aberastu da xede-hizkuntza, txertatu ote dugu atzerriko obra bat beste kultura batean? Zertaz ari gara?

Orain urte asko, zehatzago 1976ko azaroaren 22an, ontzat eman zuen UNESCOren Konferentziak Nairobiri, bere hemezigarren bilera-aldian, itzultzailearen izena obra itzulietan espreski agertzea eskatzen zuen erabaki bat. Harrezkero, dagoneko konbentzitu dira argitaletxe batzuk itzultzaileak, ustezko mamu horrek, modu ikusgairaren batean agertu behar duela itzultzen dituen obretan. Eta atseginez ikusi dut horixe gertatu ohi dela euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara egiten diren itzulpenetan.

Itzulpena literatura-lana da, liburu bat da, xede-hizkuntzaren literaturaren zati bat. Zergatik ote da horren zaila ulertzen halako gauza erraza?

Herri batzuetan errespetatzen da itzulpena (haien artean Polonian)... Idazle, egile ospetsu batek, ez du itzulpenak egitea mespretxatzen. Errusian, Pasternakek beti esan zuen bere libururik hoberena Goetheren *Faustoren* itzulpena izango zela, zeinean urte askoan aritu baitzen lanean... Espainian, berriz, oro har, itzultzailea gizajo bat da, inor ez da. Asko dira horren arrazoi historikoak, baina ezin azalduzkoak. Nik neuk, itzultzailearen izena liburuaren azalean agertzea defendatzen dut, zeren, ona edo txarra, *harena* baita liburua. Itzultzailea zein den jakin gabe liburu itzuli bat erosten ez den egunean, egun horretan kultura-bataila garrantzitsu bat irabaziko da.

Zein joango da kontzertu batera jakin gabe zer zuzendarik zuzentzen duen edo zer pianistak jotzen duen? Itzultzailea interpretea da. Musika ez du berea, baina interpretazioa bai. Eta erokeria bat iruditzen zait “itzultzaile ikusezin” batez hitz egitea, hura delakoan pentsa litekeen itzultzailearik hoberena. Onerako edo txarrerako, itzultzailea ez da inoiz ikusezina izango, ezin da ikusezina izan.

Orain urte batzuk (2000n), hona zer idatzi zuen New Yorkeko Vassar Collegeko Don Fosterrek, zeinak bizitza osoa eman baitu seguruak ez diren autoretza literarioak argitzen (Shakespeare, Thomas Pynchon, Ted Kaczynski “Unabomber”...): “Atrebitzen naiz esatera ez direla bi pertsona modu berdin-berdinean idazten dutenik, hitz berak erabiliz, konbinazio beretan, edo ortografia eta puntuazioko jarraibide berberak baliatuz. Ez dira bi pertsona nagusi familia berean (edo enpresa, edo motoziklista-kuadrila berean) liburu berak irakurri dituztenik. Inork ez ditu idazten beti segidan-segidan esaldiak. Idazle bakoitzak hizkuntza erabiltzeko duen jarraibide-diferentzial horrek, eta ezaugarri bereizleen errepikapenak,

horiek egiten dute posible testu baten analistak dokumentu anonimoen, pseudonimoen edo faltsutuen autoretza aurkitu ahal izatea<sup>11</sup>.

Fosterrek dio, bere teoria modu sinesgarrian frogatuz, gizaki baten hizkuntza idatzia gizaki horren berorren hatz-markak bezain berezia dela, DNA literario moduko bat. Azken batean, aditu duguna eta irakurri duguna gara, eta, behar adina material izanik, eta programa informatiko on batekin, ia-ia batere errakuntza-tarterik gabe jakin liteke zein den testu jakin baten egilea, edozeinena.

Eta hauxe da berehala datorren galdera: eta itzulpenekin zer gertatzen da? Jakin liteke zeinek itzuli duen testu literario bat? Itzultzailea definizioz da kameleonikoa, berez da ahotsen imitatzailea, eta, itzultzaile ona baldin bada, estiloak itzuliko ditu mamiez gainera, hiztegiak eta sintaxiaz aldatuz alkandoraz aldatzen den bezala. Alabaina, nik ez baitut itzultzailearen ikusezintasunean sinesten, uste dut, behar adina material izanik, ez bakarrik zein den jatorrizko testu baten egilea, baita ere zeinek itzuli zuen jakin behar litzatekeela, edo (hala nahi bada) zeinek faltsifikatu zuen... Itzultzailea inoiz ez da ikusezina, eta, onerako edo txarrerako, bere arrastoak uzten ditu beti testuan.

Octavio Paz, poeta handia eta itzultzaile bikaina baita, garrantzitsua da alor honetan. Hala dio: "Itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko diferentziak prosaren eta bertsoaren artekoak bezain lausoak dira. Itzulpena birsorkuntza da, sormena leialtasunarekin hitzartzen den jolas bat da: itzultzaileak beste irtenbiderik ez du, imitatzen duen poema asmatzea baino"<sup>12</sup>. Octavio Pazentzat, "Operazio bikiak dira itzulpena eta sorkuntza"<sup>13</sup>.

Eta niri, hori dela-eta, Los Tigres del Norte *corrido*-kantarien talde mexikarra aipatzea gustatzen zait: hala dio-

<sup>11</sup> Foster, Don (2000). *Author Unknown: On the Trail of Anonymous*, New York, Henry Holt and Company, (5. or.).

<sup>12</sup> Paz, Octavio (1998). *Obra poética (1935-1988)*, Bartzelona, Seix Barral, (12. or.).

<sup>13</sup> Paz, Octavio (1971). *Traducción: literatura y literalidad*, Bartzelona, Tusquets, (16. or.).

te *Somos más americanos (Amerikarragoak gara)* abestian: “Quiero recordarle al gringo / yo no crucé la frontera / la frontera me cruzó”. (“Gogorazi nahi diot gringoari / nik ez nuen muga gurutzatu / mugak gurutzatu ninduen ni”.

Euskarri sendoa aurkitu dut Karl Dedecius poeta eta itzultzaile poloniar handiarengan. Dedeciusek dio, ezin eztabaidatuzko moduan nire ustez, poemak idazten dituenak ez dela berez poeta, eta bere poesia “propioa” idazten ez duenak ez diola horregatik poeta izateari uzten. Talentu poetikoak, besterik gabe, ez du talentu itzultzailea hartzen ez kentzen, eta indar eta irudimen sortzaile berbera behar dute itzultzaileak eta poetak. Baina gertatzen da haien bideak bereizi egiten direla gero, eta, bidexka desberdinetatik, helburu berera daramatzatela. Helburu horretara heltzea edo ez heltzea, hori beste kontu bat da”<sup>14</sup>.

Azkenik, Michael Emmerich Santa Barbarako (Kalifornia) unibertsitateko irakasleak ere, zeinak japonieratik itzultzen baitu, idatzi du itzultzaileaz mamu gisa: “Imajinatu beharrezan itzultzailea hizkuntzen, kulturen eta nazioen artean dagoen norbait bezala, hobe genuke hizkuntzen, kulturen eta nazioen inguruan ibili ohi den mamu bat balitz bezala lantzea haren irudia, aldi berean bi munduren artean existitzen dena baina osorik haietakoa izan gabe. Itzultzailea, mamu gisa, ez da ez guztiz nazionala ez guztiz atzerritarra, aitzitik, aldi berean da nazionala eta atzerritarra; ez da ez guztiz ikusgaia ez guztiz ikusezina mundu batean edo bestean daudenentzat, baita bere ekoizpenaren azken forman ere, bere munduan baitago, baina ez da berea”<sup>15</sup>. Agian hauxe izan liteke tarteko postura onargarria.

Nora garamatza honek guztiak, “Demagun ehun urte barru” gaian zentratutako solasaldi hauen testuinguruan? Lehenik,

<sup>14</sup> Dedecius, Karl (1986). *Vom Übersetzen: Theorie und Praxis*, Frankfurt, Suhrkamp, (120. or.).

<sup>15</sup> Allen, Esther eta Bernofky, Susan (2013). *In Translation: Translators on Their Work and What It Means*, New York, Columbia University Press, (50. or.).



adieraztera itzultzailea funtsezkoa dela hizkuntza baten literaturarentzat. Walter Benjaminek, itzulpenaz asko eta oso ondo idatzi baitzuen hark, funtsezko saiakera bat dauka: *Die Aufgabe des Übersetzers (Itzultzailearen eginkizuna)*. Benjaminentzat, atzeritar bertsio berri bakoitzak jatorrizko testuaren alderdi jakin bat argitzen eta osatzen du, eta, azkenean, testu ideal baten beste bertsio bat bihurtzen da jatorrizkoa. Literatura-lan bat, Literaturaren historian, ez da obra bakar-tu hori, baizik eta obra hori *gehi* beste hizkuntzetara egindako itzulpenak... Itzultzaileak jatorrizkoaren bizitza luzatzen du, jatorrizkoa iraunarazten du. Hura gabe, ez litzateke posible izango mundu-literatura.

Imajinatzeko moduko gauza ote da euskara egun batean desagertzea? Nik ezin dut hori imajinatu, ondo dakidan arren ausarkeria handia dela hizkuntza baten etorkizunari buruz edonolako iragarpenak egitea. Eta beti esaten den gauza bat besterik ez zait bururatzen (eta, topiko guztiak bezala, egia hutsa da): inor ez da hiltzen norbaitek harengan pentsatzen duen bitartean. Anjel Lertxundik idatzi zuen: “Ez dakit nork esan zuen memoria dela bertatik bota ezin gaituzten paradisu bakarra”<sup>16</sup>.

Gauza batez seguru nago ordea, eta hura da euskal *kultura* ez dela hilko, eta, batez ere, itzulpenari eskerrak ez dela hilko. Beste hizkuntzetatik euskarara egiten den itzulpenari eskerrak (horrek ezin dudatuzko moduan aberasten baititu hizkuntza eta ideiak) eta euskaratik beste hizkuntzetara egiten den itzulpenari eskerrak, gaztelaniara batez ere (bostehun milioi balizko irakurle, etorkizunean askoz ere gehiago izan daitezkeenak). Badira dagoeneko itzultzaile guztiz trebeak.

Eta azken aipamen egin nahi nuke hemen, gogora ekarriz Javi Cilleroren “Una botella a la deriva” saiakera (“Botila bat

<sup>16</sup> Lertxundi, Anjel (2009). *Vidas y otras dudas*, Jorge Giménez Bechek itzulia, Irun, Alberdania, (76. or.).

noraezean”)<sup>17</sup>. Euskal idazle-itzultzaileen belaunaldi oso batez (edo, hobeto esanda, zenbait belaunaldiz) mintzatzen da Cillero hartan. Haiexen eskuetan dago etorkizuna.

<sup>17</sup> Cillero, Javier (2006). “Una botella a la deriva” (4. or.), “Encuentros en Verines” batzarrean aurkeztutako txostena (XXII. batzarra, “América desde las dos orillas: sueño, mito, utopía, literatura”), Asturias, Espainia. Erabilgarria: [mcu.es/lectura/pdf/277.pdf](http://mcu.es/lectura/pdf/277.pdf) helbidean.

**Beste erreferentzia batzuk:**

Benjamin, Walter (1992). *Die Aufgabe des Übersetzers, Sprache und Geschichte* liburuan jasoa, Stuttgart, Reclam, (50. orrialdea eta hurrengoak) (gaztelaniaz hainbat aldiz itzuli da).

Emmerich, Michael (2013). *Beyond, Between: Translation, Ghosts, Metaphors, In Translation: Translators on Their Work and What It Means* liburuan jasoa (44-57 or.).

Venuti, Lawrence (1995). *The Translator's Invisibility: A History of Translation*, London, Routledge.





-

# *mamu izoztua – bidaia izotzerantz*

*Raul Zelik*

*Petra Elser eta Edorta Mataukoren itzulpena*

Euskal mamua hondartzan agertu zitzaidan, Malaga ondoan. Hondar gainean liburu hau irakurtzen ari nintzela, irudipena nuen, guztiz ez ulertu arren, niretzat egina zegoela. Eleberri bat, aldi berean lehenaldian, orainaldian eta geroaldian konstatua, izotzak hartutako gizonezko erizain batez ziharduena. . . Europatik ihes egindako iraultzaile batez, orain Nikaraguako kostalde atlantikoan bizi zena, banana eta palmondo sailen artean, Bluefields alboan.

Etxera itzuli ahal izateko zain zegoena.

*Lagun izoztua*<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Joseba Sarrionandia: *Lagun izoztua*, Elkarlanean, 2001. Edizio alemana: *Der gefrorene Mann*, (Itzultzaileak: Petra Elser eta Raul Zelik), Blumenbar-Verlag, 2007. 1980an Joseba Sarrionandiari (Iurreta, 1958) urte askotako espetxe zigorra ezarri zioten ETAKide izatearen akusaziopean. 1985ean ihesaldi sonatu baten protagonista izan zen, eta 2016 arte klandestinitatean bizi izan da.

Nahiz eta euskaraz ongi jakin ez eta hala hitz nola deklinabide zein aditz-jokoekin estropezuka ibili, eleberrian nabarmen hurbilekoa gertatzen zitzaidan dena: euri-jasa etxola umeleko uralitazko teilatu gainean, haurrak ibai ondoan oinutsik korrika, tiburoi baten bizkarreko hegatsa laku bateko ur azala ebakitzen, ilargiaren jabegoa ematen duen ur ispiluan. Erizaina ez zegoen, liburuaren izenburuak zioen bezala, literalki “izoztua”, tristurak zurrunduta baizik. Mututasunak eta nostalgiak jota. Maribel laguna, bera ere erbesteratua, Managuatik abiatzen zen erizainari bisita egitera. Berak erabakitzen zuen “lagun izoztua” eramatea Ekuadorren bizi zen haurtzaroko lagun batengana, erizainaren arimaren gainean hormaturiko izotza hautsi ahal izateko itxaropenarekin. Baina, harako bidean, denbora laburrez militarrek gerarazten zituzten, eta berriro kamufflatu behar zuten. Gizon baten etxean ezkutatzen ziren, bera ere, haiek bezala, iheslari izandakoa. Duela 50 urte.

Eleberriaren gertalekuak eta egoerak harrigarriro hurbilak egiten zitzaizkidan. Jarraian, alabaina, hori guztia argitzen zuena ahotsak zirela iruditzen zitzaidan. Nik ere ez al nuen beti pixka bat bera bezalakoa izan nahi izan: idazten zuen iraultzaile bat, idazle iraultzaile bat? Norberaren bizitza eta aldi berean mundua aldatu nahi zuen norbait... behin eta berriz porrot egin arren?

Ez nituen aintzat hartu ezezagunak zitzaizkidan hitzak eta aditz-jokoak; horren ordeztan, nire buruari utzi nion beste orotzapen batzuetara lerratzen: euri tropikala, Barranquilla inguruko herrixketako lehortea, militarren eta beren soldatapeko hiltzaile paramilitarren aurrean edonor mendean hartzen zuen izua. Baina, batez ere, nostalgiari errenditu nintzaion. Izan ere, idazle iheslaria ez bezala erbestean inoiz ez izanagatik ere, behala ulertu nuen Kalaportuz gogoratzen zen kontatzailearen

mina, Kalaportu sortu zuenarena, Mutrikuz, Ondarroaz eta bere haurtzaroz gogoratu ahal izateko. Okerrena zen irudi horiek ez zirela barreiatzen, baizik eta, erbesteak behartutako bereizketagatik, gero eta tematiagoak zirela. Alegiazko min progresiboa. Kontatzailearentzat, horrela sumatzen nuen, haurtzaroko irudiak, zenbat eta denbora-espazioan urrunago egon jatorria zuten lekua, hainbat biziagoak ziren.

Eta hori guztia nire parte bat balitz bezala sentitzen nuen, pentsatzen nuen kartzelatik ihes eginda eta desagertuta zegoen idazleak bere ahotsa altxatuko zuela nire barnean.

Horregatik, harritu ere ez nintzen asko egin nire semea, artean haur bat, gure toalla zabalduaren aurrean agertu zitzaidanean, botila bat eskuan zuela. Semeak beldur handia zien olatuei, eta garai hartan bakanetan hurbiltzen zen itsas ertzerara. Dena den, goiz hartan ausartu zen uretan pauso batzuk ematera, ziur asko urak hara eramane eta orain luzatzen zidan botilak jakin-mina piztu ziolako. Botila gasolio zikineko geruza mehe batez estalia bazen ere, berehala jabetu nintzen ez zegoela hutsik. Semeak, nire ondoan kokoriko, ordurako bazekien zer zegoen barruan: seguru behin baino gehiagotan atereak zituela altxorrek lurpetik eta ez zitzaizkiola arrotzak botilatan harrapaturiko jenio mezularien istorioak. Begirada zorrotzaz hertsatu ninduen guri bidalitako mezua ateratzera.

Ez zitzaidan erraza gertatu botila irekitzea, kortxoz itxita ez ezik, lakrez zigilatuta ere bazegoelako. Eta, azkenean itxitura erauzi nuenean, hurrengo arazoaren aurrean geunden: kristalaren barruan zegoen paketea ez zen botilaren lepotik pasatzen. Poztu egin nintzen semea oraindik zaharxeago ez izateaz; izan ere, hura bizpahiru urte geroago gertatu balitz, ordukoxe galderaz josiko nindukeen eta onartu beharko niokeen gure

eskuetan geneukana ezinezkoa zela: botila barruan plastikoz bildutako paketetxo bat zegoen; niretzat, ordea, ulertezina zen nola sartua zuten han barruan. Behin edo behin ikusita neukan, jakina, egurrezko itsasontzi txikiak nola muntatzen ziren, baina kasu honetan ezin zen horrela izan. Botila paketearen inguruan puztuz eginda zegoen, antza. Mezua eskuratzeko bide bakarra botila haustea zen. Ni zalantzan nengoen, baina semea tematu egin zitzaidan: altxorraren mapa aurkitu nahi zuen edo, behintzat, jenioa bizitzara iratzarri.

Gauzak horrela, bi harri handi bilatu, haien artean botila finkatu, eta pixka bat aldendu ginen. Lau aldiz jaurti eta gero, azkenean pitzatu egin zen beira. Zatiak baztertu eta paketetxo eskuan hartu genuen. Semeak bazuen jenioaren indarraren berri, eta ikaragarria egiten zitzaion. Baina lasaitu egin nuen eta, paketetxoaren inguruko plastikozko bilgarria urratzen nuen bitartean, argitu nion botilako iratxo hark seguru ekarriko zizkigula gauza onak: urrutiko eragin espektral baten bidez sentitzen nintzen haren sortzaileari lotuta. Eta azkenik edukia eskuetan jaso genuen. Semeak zapuztu samar zirudien, mezua ez zelako pergamino biribilkatu bat, *pendrive* zahar bat baizik, atzealdean marraztuta M txiki txuri bat zuena. M, alias Joseba.

\*\*\*

Zortea izan genuen. Ordu erdi bat geroago hondartza gaineko gure etxetxoan *pendrivea* ordenagailuan sartu nuenean, pasahitza eskatu zigun. Nik kantu lerro bat erabili nahi nuen pasahitz modura, *Maitasunaren kariaz hainbeste eman zuten*, hain zuzen, zeinaz gerora pentsatu bainuen ezen desagertua zegoen idazleari erreferentzia egiten ziola; semeak, berriz, bere



katu oso kutunaren izena erabiltzea proposatu zuen. Ezin dut ziur esan bi pasahitzetako zein izan zen jenioa bere kartzelatik askatu zuena. Egun, biak izan zirela iruditzen zait. Gauza ziur bakarra da iratxoa *pendrivetik* irten zela, adiskide gisa agurtu gintuela eta bere edukia, altxor mapa baten ordezt, hiri urrun baterako bidaia-gonbidapen bat izan zela. Hiriaren kokapena zehaztu gabe zegoen. Zehaztu gabe egon behar zuen.

Orain, ordea, ni nintzen zeharo nahastuta zegoena, begi bistakoa baitzen gertaera ezberdinak denbora berean edo hurrenkera kronologiko faltsu batean jazoak zirela: botilako mezua seguru asko luzaro ibilia izango zen nora gabe itsasoan, baina idatzi eta barruan itxi egin behar izan zuten guk orduan sei aste zituen gure katuari izena jarri *ondoren*. Liburu irakurri berria itzultzeko hitzarmena ez nuen argitaletxearekin itxi-ko hilabete batzuk geroago arte, ni Alemaniara itzuli ostean. Kartzelatik ihes egindako idazlearen gonbidapenak, jenioak eskura jarri zidanak, erbesteko leku zehaztugabe batean hari bisita egiteko, bestalde, balio behar zuen eleberriaren itzulpenari buruzko zalantzak argitzeko. Nola izan zitekeen, neure buruari galdetzen nion, puntu kronologiko ezberdinetan ordenaturiko gertaerek elkarren arteko kausazko lotura izatea? Edo ondorioa kausaren aurretik azaltzea? Hala ere, galderak alde batera utzi nituen, botilako mezuaren igorlea sasiaz bizi zelako, muturreko ziurgabetasun egoera batean, eta ez zitzaidan egokia iruditu nik jakin nahiko nukeen guztia galdetzea.

\*\*\*

Egun batzuk geroago, semea eta biok Mediterraneoko oportetatik Berlin aldera itzuli ginen, eta laster heldu nion lanari. Lehe-

nik eta behin, hobeto ezagutu behar nuen hizkuntza, zeinaren aditz-joko taula korapilatsuek bertako hiztunak ere etsiarazten baitituzte noizbehinka. Hortaz, ordura arte ez zegoenez euskara-alemana hiztegirik, nik dakidala behintzat, euskara-gaztelania hiztegi bat hartu nuen lanerako oinarri gisa. Eta berehala ohartu nintzen lagun izoztuaren eta narratzailearen bizitzako ziurtasun ezak zer-nolako eragina zuen itzultze lanean. Hala ere, itzulpenaren ziurgabetasunak, ihesarenak ez bezala, betebeharra baino gehiago askatasuna ematen zuen. Dena lurralde berria zen. Oso gutxi ziren lehenago euskaratik alemanera zuzenean eramandako esaldiak. Oso gutxi, kidetasun finkatua zuten hitzak. Esanahia, lengoaiaren teoriaran esaten den moduan, diferentzian oinarritzen da. Hau da, zeinuek beste zeinuen arteko bereizketaren bidez bereganatzen dute beren adiera, nahiz eta hizkuntz komunitate bakoitzean bereizketaren mugalerroa ezberdina izan. Zenbateko tenperaturatik gora ez da ura “epel”, “bero” baizik? Zenbateko bolumena behar da “ozen” mintzatzetik “oihu” egitera pasatzeko? Eta zer gertatzen da hizkuntza batek literaturaren bidez modelatzen dituen ñabardurekin? Egia esan, eguneroko erabileran ez da hain garrantzitsua baten bat “abian” edo “ibilian” doan. Hitzak eta adierak idazketa, irakurketa eta gogoetaren bidez zehaztuz joaten dira gehienbat. Alderdi askotarik euskara oraindik zabalik zegoela iruditzen zitzaidan, baita bertako hiztunentzat ere. Segurua zen, behintzat, horrek balio zuela alemanera aldatzerakoan. Epel: *warm* edo *lau*?... Urdin: *grau* edo *blau*?... Xirimiri: *dunst* edo *nieselregen*?

Betiko leloa da itzulpenak egokitzapenak direla esatea. Horrek, dena den, euskaratik eginiko itzulpenetarako balio du, bereziki. Dena birpentsatu zitekeen, birpentsatu behar zen.

*Segalaria* benetan *Schnitter* al zen, edo gutxienez esaldi batean zirriboratu behar al zen egoeraren funtsa? Alemanez *Schnitter* hitzak ezer baino lehen herio dakar burura, Erdi Aroko irudi bat, segaz bere biktimaren bila doanarena. Interneteko foroetan gotiko —eta *new wave*— zaleek gogoko dute beren buruei *Schnitter* deitzea, agonia irudikatu nahi dutenean. Euskal Herriko baserri batean uda eman dugunontzat, ordea, *segalaria* errealitate guztiz arrunta da, hainbat eta hainbat irudi eta impresiori lotuta: airean belar-ondu usaina zegoen, Aralarko Mailoetara begira geunden, laster hastekoak ziren Leitzako jaiez edo manifestazio batez mintzatzen ginen, norbaitek —txapel eta alkandora laukidunarekiko osaba zahar hortz gabeak edo intsumisoen kamisetarekiko gazteetako batek— mendi mazela malkarrenetan belarra segaz mozten zuen bitartean.

Kontzeptu eta zeinu askok, hizkuntz eremuen arabera, esanahi ezberdinak dituzte. Nola adierazi zitezkeen, literatura kontuetan hain hilgarria den perifrasiari erori gabe?

Baina itzulpenak, ikuspegi askoz sinpleago batez, lurralde berrietara ere bazeraman. *Lagun izoztua* itsasoaz eta nabigazioaz mintzo zen; hortaz, marinelen hizkeraz zerbait ikertu behar izan genuen. “Genuen” diot, zeren nire aurkikuntza-bidaia zorionez beste itzultzaile batenarekin gurutzatu zen. Petra Elserri ere botilako mezu baten antzera heldu zitzaion *Lagun izoztua*, eta, nahiz bere sarbidea literaturan nirea bezalakoa ez izan, bere sarbidea euskaldunagoa baitzen, antzeko zerbait gertatu zitzaion: eleberri honen atzean ezkutatzen zen mamuari jarraitu nahi zion, eleberria sortua zuen eta eleberria bera zen mamuari.

Paraleloan hasi ginen lanean, eta, nahiz gure idazmahaien artean 2.000 km urrun egon eta bakanetan baino ez genuen

zuzenean hitz egin ahal izan nahitaez sortzen zitzaizkigun iritzi ezberdinak argitzeko —haserre txikiren bat ere izan genuen, batzuetan gure ikuspuntuak ez baitzetozen bat—, oso ondo elkar hartu genuen. Petrak hitzen esanahien inguruko kontu labainak ikertzen zituen, baita nabigazio edo euskalkien ñabarduren ingurukoak ere; ni testu alemanari egokituko zitzaion tonu baten atzetik nenbilen. Ia testu osoa bikoiztu genuen, eta gero esaldiz esaldi, hitzez hitz alderatu, hartara ikusteko zein izan zitekeen irtenbiderik zuzenena, baina ederrena ere bai. Nobela berri bat idatzi genuen... sei eskutara: autore desagertuak, geroko euskara irakasleak eta nik.

Eta a zer gauza mordoaz egin nuen gogoeta, berriro edo estreinako aldiz: zer kolore du Hego Atlantikoko urak, eguzkiak izozmendien aurrean ur gardenetan jotzen duenean? Anbar kolorea ote? Urdin azura? Zafiroa? Urdinabarra? Nolakoa da izotz labarren distira, zein jarreratan mugitzen dira ostertzerantz, korronte epelagoetan urtu baino lehen? Eta zein latituderaino iristen dira beren bidaia noragabeen? Zertaz idazten du Lévi-Straussek bere *Tropiko tristek* liburuan? Ba al du arrazoirik kultura “beroen” eta “hotzen” bere definizioarekin? *Esclaves, ne maudissons pas la vie...* Horrekin zer esan nahi zuen Rimbaudek? Rimbaud... zelako desio eroa, basatia! Nolakoa izan zen bere harreman homosexuala Verlainerekin, noiz izan zen deskubritua poeta bezala, nola bizi izan zuen azkenean lurpera eraman zuen minbizia?

Eta areago: Zer zegoen ‘heterotopia’ kontzeptuaren atzean? Autoreak Foucaultengandik hartu zuen maileguan? Eta eleberrian agertzen diren aipamenak: Conrad, Heidegger, Melville, Benjamin, Salinger, Fassbinder eta beste? Testu horiek guztiak irakurri nituen behingoan, aipatutako filmak ikusi, agertzen

ziren lekuen argazkiei begiratu. Itzultzaileak jarraitzen dio bere narratzaileari, zeina mamu bat bezala erdizka agertzen baita. Itzultzailea orpoz orpo darraio, saiatzen da atoian pentsatzen eta autorearen ulertzen, agian, hark bere burua ulertu duen baino hobeto. Itzultzaileak deskubritu nahi du mamuari, idazleari, akatsik itzuri ote zaion. Eta itzultzailea ohartzen da, bere perspektibatik, egile bakoitza errealitatean iheslari bat dela. Izan ere, egileak testu bat sortu eta aurrera egiten du; itzultzaileak, ordea, harrian zizelkaturiko obraren aurrean paratu eta emaitzari begiratzen dio.

Esaldi bakoitzari bueltak eman genizkion. Aztarnategi bateko harriari bezala. Gure mamua ezagutu nahi genuen. Zer-nolako bizimodua zeraman. Bere liburuaren, bere lanaren historia ulertu, baita bere ihesarena ere.

\*\*\*

Eta horrela, azkenean ekin nion hilabete batzuk lehenago jenioak gonbidatutako bidaiari. Ibilbide luze eta zaila izan zen, mundu zehaztugabe batean barrena. Erosi nuen hegazkin txartel bat, ez Interneten, bidaia-agentzia batean baizik, aztarna gutxiago uzteko; zenbatu nituen irteteko falta ziren egunak, eta gero, egun batean goizean goiz, abiatu egin nintzen. Ordu asko eman nituen lurralde oso urrun baterantz hegan, hiriraino autobusa hartu, gero metroa, baso sarri bat zeharkatu, arropa aldatu, baten bat atzetik ote zetorkidan egiaztatu, eta mendilerroaren beste isurialderantz jaitsi nintzen. Jeep batek kostaldeko leku batera eramanez ninduen, kale nagusia alde batera utzi eta isil-gordeka portu aldera joan nintzen, han arrantzale bati galdetu nion ea eramango ninduen hurrengo badia-

raino. Groenlandiako itsasertza, baso tropikal sarrien alboan. Haize hotz epel batek jotzen du mendietatik itsas aldera; eskimal batzuk, moilan eserita, beren fruta tropikalak antolatzen. Arrantzalearen txalupa olatu gainean / dotoreziaz ebakiz ispilu antzeko ura / bere bidea astiro eginez. Gogoan nituen semea, berriz haurdu zen emaztea, Rimbaud, Fassbinder, gure mamua: desagertua zegoen idazlea.

Txalupa amarratu zuenean, zorabiatuta nengoen. Eleberriko protagonista bezala, historiako erizaina bezala, zeinak zientzialari hil-hurren bati lagundu izan zion haren Antartikarako bidaian, haren *azkeneko* bidaian. Baina eleberriko erizaina iritsi al zen benetan zorabiatzera, edo besterik gabe irudikatu egin nuen, harekin antz handiagoa izateko, hurbilago egoteko? Bizkitartean, ez al nintzen ni neu historiako zati bat? Liburuko atal bat, *pendrive* bateko mezu bat, itsasora jaurtitzen dena bere hartzaileari, hura presente egon baino lehen, iritsi dakion?

\*\*\*

Azkar aurkitu dut glaziarreko hotela, eta horrela hasi da azkenean itxaronaldia. Etzan naiz altzari urriko logelako ohean, gelan bertan ibiltzen hasi naiz alde batetik bestera beroak hartzikaturik, liburu batzuk hartu ditut eskuan, baina ezin naiz kontzentratu, paseo etsigarri bera egin dut behin eta berriz. Giza altuerako garoen azpian, glaziarraren behealdean, solairu bakarreko etxe-orratzen artean. Ito egiten nau ahituz doan denborak eragindako asperdurak; heldu naiz, oraindik heldu gabe banago ere, eta eguna antolatzen saiatu naiz, unitatetan zatitzen, eritmo bat ematen. Hemendik ezin diot semeari deitu, ezta emazteari ere... hemendik, bi munduren arteko toki honetatik.

Egunsentian esnatu naiz, *jetlagak* joa, leiho ondoan arnastu egin dut goi-mendi, basamortu, herrixka, glaziar usaina duen aire hori; gosaria zerbitzatzen duten hoteleko langileekin esaldi herabetiak trukatu ditut, sentitu dut hizkuntza den aberri —aberi habitagarri bakar— horren bakartasuna, inguruetan ibili naiz. Eta aldean daramat, zorroan, beti irrigarri samar, itzulpenaren inguruko zalantzak dituen kaiera, edozein unetan botilako mezuaren egilea ezustean kalean agertuko zaidala espero beharko banu bezala. Zenbatu egin ditut poliki igarotzen diren egunak, baina gero haiek zenbatzeari utzi diot, esan didate-eta ihesa den lurralde honetan dena zehaztugabea dela, *zehaztugabe geratu behar* duela. Irudipena dut horrela, zenbatu gabe, jada ez direla igarotzen. Eta, jakina, nire buruari galdetu diot halaber zer espero dudan egiazki topaketa honetatik, zeren eta zer jakin zezakeen mamuak bere testuaz, guk aspalditik ez genekiena?

Mahai hutsekiko kafetegi bat, parkeko banku ikuspegidun bat, bide bazterrean lagatako fruta-kaxa bat. Batzuetan burua sutan jartzen zait, soin adarrak sorgorturik sentitzen ditut, badirudi han urrutian izotza mugitzen dela. Zabor biltzailak egunsentian etorri eta edukiontzi astunak etxe atarrietatik kamioira deskargatzen dituztenean, ihesaren lurraldea ziuertasunik gabeko lurralde bat dela sumatzen dut. Primeran bizi litekeen lurralde bat.

Utziko baligute.

Aberri bat, etengabe mugimenduan dabilena.

Eta gero, zenbatu gabeko zenbait egun igaro ondoren, azkenik iritsi da unea. Ostertzean, zeru eta ur, zeru eta lur, zeru eta infernu arteko lerro hartan, nora gabe igerian, ispilaturik, hara bloke zuri bat, iceberg bikoiztu bat, lebitatzen, antza. Egun,

inorena ez den lurlean ez-leku bat ageri da. *Heterotopia* bat, leku guztiez kanpoko leku bat; eleberrian botilako mezuaren egileak idatzi zuen bezala, leku ez-erromantiko bat.

Paseoa alde batera utzita, gelan zain geratu naiz, sumatzen baitut iritsi dela unea, *espektroarena*. Azkenik, arratsaldean, adostutako ordua baino lehentxeago, leiho ondoan jarri naiz, balkoian, terraza bat ere izan liteke. Pentsioaren parean, izotz kasketa ikus daiteke urrutian, betiere modu irrealean islatuta; azukrezko palazio jelatu bat antzematen da ostertzaren lerroaz goiko eta beheko aldean, aldizka.

Aurrerantz makurtuta, kalera begiratu dut. Idazlearen ma-muaren azkeneko argazkia 1985ekoa da. Bizarra zeukan, eta maleziako irribarrea. Begirada arakatzailak zuzendu dizkiot jendeari, eta nire buruari galdetu diot haietako bat izan ote litekeen azken 22 urteetan bilatutako gizona.

Eta azkenik, agian ordu laurden bat bakarrik, agian eter-nitate bat geroago, ia berrogeita hamar urteko gizon bat azaldu da izkina inguruan, eskuak galtzetako poltsikoetan hondoratu-ta, espaloian poliki ibilian. Oraindik urrutitxo dagoela, ia 50 metrora, izkin egin dio eguerdiko eguzkipean urtzen ari den putzu izoztu bati. Behakoa altxatu duenean, gure begiradak gurutzatu egin dira; bisaian irribarre bat antzeman zaio. Ez nago ziur: gizonak jakaren lepoa altxatu du, eta gero kol-petik albo batera jiratu da denda batean sartzeko. Eta leiho ondoan nagoen tokitik, balkoitik, terraza ere izan liteke, ikusi dut, dendako erakusleihoaren beiretan zehar, zelan erosi dituen egunkari bat, folio sorta bat, agian gailetak ere bai.







-  
*post*  
*scriptum*



# - *agente bikoitz baten aitorpenak*<sup>1</sup>

*Harkaitz Cano*

Filmak ikustea maite dut. Eta, oroz gain, maite dut filmak ikustea jatorrizko hizkuntzan. Film *noir* on bat bada, are hobea. Dakidan hizkuntza kopurua oso mugatua denez, filmak azpitudatuta ikusi beste aukerarik ez dut gehienetan izaten. Baita telesailak ere. Teknologia berriei esker, telebistako telesail asko entzun litezke gaur egun jatorrizko hizkuntzan. Ia denak, ingelesez, jakina. Baina film eta telesail hauetan ere, gero eta gehiago dira ingelesaz besteko hizkuntzetan mintzo direnak: dela arabiera (terrorista arriskutsuen kasuan), dela urdua (24 orduz zabalik dauden *delietako* langile amorratuen

<sup>1</sup> Bihoa hasi aurretik lehena. Anjel Lertxundik eskuzabalki gonbidaturik Donostian ospatu ziren jardunaldiotan parte-hartzeari baiezkoa eman banion, bi arrazoiengatik izan zen, nagusiki: infiltratu lanetan jende artean ezkutaturik inorenak entzutea jarri zidalako zeregin nagusi, batetik, eta jardunaldiak Aquarium-ean ospatzekoak izanik, Orson Welles *The Lady from Shanghai* filmean bezala sentitzeko poza eragin zidalako horrek, bestetik.

kasuan), edo direla txinera edo errusiera (mafia antolatuetako buruzagiak, elkarri argibide kriminalak ematen). Kontu deigarria da, nola, pertsonaiak ingelesaz besteko hizkuntza batera jauzi egiten duen kasuetan, azpitiuluak linbo batean sartzen diren hamarretik zortzitan. Itzulpena esekita bezala geratzen da, hizkuntza horiek ez dakizkigun guztiok mamia ez ulertzea kondenatuz, testua kontestuaren arabera interpretatzera derrigortzen gaituztelarik; ez dago itzulpenik, entzuleak zerbait galtzen du bidean. “Azpitiuluen makina” trabaturik geratu da derrepente, “HABLA EN SU IDIOMA” edo “HABLA CHINO” dioen ohar txo orokor eta murriztaile batekin zuritzen du bere burua telebistako azpitiulatzaileak, “OUT OF ORDER” edo “EZ DABIL, BARKA ERAGOZPENAK” zintzilikatu zaion gailu matxuratu bat bailitzan. Azpittestua, askoz ere maltzurragoa da, ordea: ez dabilena, itzultzailea barik, pantailan dagoen pertsonaia bera dela aditzera ematen baitzaigu, oso modu sotilean (“ongi funtzionatuko balu ingelesez mintzatuko litzateke, ala?”). Zergatik itzulpenaren etena? Ez du, akaso, pertsonaia horrek esaten duenak, arretarik merezi? Ala, hizkuntza bera bihurtu nahi da mezu eta mami, esanahia gutxietsiz? Badirudi, ideia hau barneratua dagoela zinema munduko sortzaile, ekoizle edo ustiatzaileen artean: “Zertarako itzuli hegemonikoa ez den hizkuntza? Hobe pertsonaietako bat berriro ingelesez hasi arte azpitiulurik ez jartzea”.

Ez da kontu berria. 80. hamarkadan, eta are lehenago ere (haur sasoiaren bikoiztuta ikusten genituen artean filmak) Gerra Hotzaren garaian, errusieraz edo japonieraz hitz egingo zuen film iparramerikarreko antagonistak, eta haren hitzak ez zituzten sekula bikoiztuko; etsaiaren logika eta hitzak (hizkuntza) ez ulertzea, tramaren parte zelako, “bestearen”

argumentuak ezeztatzeko modua; haren lantua eta haserrea suma genitzakeen erabiltzen zuen tonuaren eta jartzen zuen aurpegiaren arabera, ez, ordea, bere arrazoibideen hedadura. Ez ulertzearen poderioz, mundu gizatiarretik apartatuak ziren pertsonaia hauek; marmar barbaroa zen garrantzitsuen, itxurazko “artikulaziorik eza”. Paradoxikoki, bikoiztuak eta aktorearena ez beste ahots batekin ezabatuak ez ziren bakarrak “gaiztoak” izaten ziren, haien jatorrizko hizkuntza —guretzat ulertezina— eta haien etsaitasuna bat izan zitezeten. Jatorrizko hizkuntza, “jatorrizko gaiztakeriarekin” parekatzen zen, hartara. Hautzaroko film horiei begira jabetu nintzen lehen aldiz, hiztunek hizkuntza borrokagai hartzeko zeukaten joeraz eta hizkuntzen erabilera ideologiko makurraz. Bazirela, alegia, hizkuntza batzuk kosifikatu edo “hotsifikatu” egiten zirenak, marmar bihurtu. Hitztunaren diskurtsoa eta hark defendatzen zuen mamia indartu edo menostu egiten zen erabiltzen zuen hizkuntzaren arabera. Baziren lehen mailako hizkuntzak, eta baziren (badira) bigarren mailakoak. Hizkuntza batzuk nagusi ziren, jopu beste batzuk. Hemen ere, “bitartekoa zen mezua”, hizkuntza bihurtzen zuten mami, edo, zergatik ez esan, munizio<sup>2</sup>.

*Western* batean ikusiko nuen, ia segurua, nire bizitzako lehen itzultzailea<sup>3</sup>. Esan nezake sioux izan gura nuela, baina gezurra nioke: azal gorriko “beste” horren hizkuntza ezagutzen zuen *cowboya* izan nahi nuen nik, alde bien abantailak eduki. Bataren hizkuntza ezagutu, bestearen bolbora eta arma saldoa eskueran izan. Umea nintzen, baina ez tentela.

Amorru handia ematen zuen nerabe garaian errusiarrak (gaztelaniaz) irakurtzen hasi berritan, tartean frantsesezko esaldiak topatzeak. A zer seta zutena Tolstoiren klase altuko

<sup>2</sup> Witold Gombrowicz handia, gauzak irauli eta itzulipurdikatuzko zeukan gaitasun itzelarekin, hizkuntza “tipien” patu hau azaleratu eta *rankingak* salatzen saiatzen zen *Recuerdos de Polonia* (Versal, 1985) zoragarrian: “¡Ay, esos Balzac, Dickens, esos Proust polacos! No es un Balzac polaco lo que necesitamos, sino justamente un escritor que no se asemeje a nadie, cuya escritura sea única, propia, insustituible, de quien se diría en Francia: «¡Oh, ese escritor nuestro es un Unilowski francés!»”

<sup>3</sup> Itzultzailea baino, “interpretea” esan beharko nuke, zehatzago.

pertsonaiek frantsesezko berben bidez euren burua hotsandit-  
 zteko! Eta guk frantsesik jakin ez, izorrai! Zergatik ez zizkiguten,  
 bada, esaldi haiek ere gaztelaniaz paratzen? Errusieraz idatzi  
 zuen idazleak halaxe jarri zituelako, frantsesez, azalduko zigun  
 irakasleak. Arrazoiarekin edo gabe, nagi agertzen zitzaigun  
 itzultzailea eta hankamotz geratzen ulermena. Hemen, ordea,  
 film iparramerikarretako indiar-japoniar ezinago gaiztoen ka-  
 suan ez bezala, itzulpenik ezak oso *chic* bihurtzen zituen per-  
 tsonaiok, gizon-emakume jantzi, eleaniztun, sofistikatu, zehatz.  
 Zer ematen zuen frantsesak, beraz, errusierak edo gaztelaniak  
 eman ez zezaketenik? Giza harremanak olioztatzeko balio zuen  
*politesse*a, maitasunerako giltza eta zirtorako giroa, idiosinkra-  
 sia jaso? Horrelako zerbait. Aitaren metodo zaharkitua hartu  
 eta uda hartan bertan ekin nion, *écoutez et répétez*, frantsesa  
 ikasteari, frantsesik ikasi ezean idazle errusiar bilakatzea zaila  
 izango nuelakoan. Izatez, horixe izan nahi bainuen Dostoiievsk-  
 ki eta Gógol irakurri ostean, idazle errusiar. Askoz ere gertua-  
 goko zait frantses kultura eta errazagoa zitzaidan frantsesaren  
 trikimailuak neureganatzea, japonierarenak baino, jakina,  
 baina galdera da, film estatubatuarretan japonieraren —eta  
 japoniarren— trataera beste bat izan balitz, ez ote nintzate-  
 keen japoniera ikastera zaletuko eta ez frantsesa? Hizkuntzen  
 gerra horretako peoi ote ginen ni eta nire zirkunstantzia? Batek  
 daki. Raul Zelikeyk, alemaniarra izaki, gaztelania ikastea He-  
 goamerikako garai zehatz bateko ezkerreko giro politiko bate-  
 kiko sentitzen zuen erakarmenarekin lotu zuen neurri batean.  
 Ez dakit “kontzeptzio erromantiko” esamoldea erabili ote zuen  
 uneren batean, baina nik halaxe zirriboratu nuen nire oha-  
 rretan. Zurea ez den beste hizkuntza bat ikastea, finean, beste  
 nortasun<sup>4</sup> bat eskuratzeko gurariarekin uste baino lotuago ez

<sup>4</sup> Aspaldi ez dela bi gogoeta interesgarri argitaratu dituzte hizkuntza hegemoni-  
 koetako bi idazlek, hizkuntza berriak ikastearen motibazio eta prozesuez. Bata, Lydia  
 Davisek (*On Learning Norwegian*, Freeman’s: The Best New Writing on Arrival, 2015)  
 eta bestea Jhumpa Lahirik (*Teach Yourself Italian*, ingelesez argitaratu zuena *The New  
 Yorker* aldizkariak... Lahirik berak, jatorrian, ikasi berri zuen italiarlan idatzi ostean!)  
 Ikus: [newyorker.com/magazine/2015/12/07/teach-yourself-italian](http://newyorker.com/magazine/2015/12/07/teach-yourself-italian)



ote dago? Hizkuntza berri bat ikastea, zeure buruaregandik atsedean hartzeko modu bat da, funtsean. Zeure buruaregandik urruntzeko era, distantzia hartzekoa. Ihes betearen kimerakonfesagaitza, dosi txikitik?

Atentzioa eman zidan Marie Darrieussecqek esateak frantses hizkuntzak “ments dituela alderdi batzuk; adibidez, soinuak edo ehundurak adierazten dituzten eleak ez dira nahi bezainbat eta, bertze hizkuntza batzuen aldean, pobreak dira hotsean eta ehunduran”. Hizkuntza bakoitzaren potentzialtasun eta ahulgune horiek sakonago aztertu beharko genituzke. Ingelesari buruz, kasu, beti esan ohi da haren silaba bakarrekohitz multzo ikaragarria berealdiko abantaila dela pop musika egiteko (bedeinkazio bat Bob Dylanentzat), nahiz eta Jonathan Swiftek madarikaziotzat jotzen zuen (“we are already overloaded with monosyllables, which are the disgrace of our language”)<sup>5</sup>. Ivonne Bordelosek, bere aldetik, hizkuntzen arteko oihartzunei buruz egiten du gogoeta: “Una de las consecuencias favorables de la explosión del inglés como lengua global reside en el hecho de que todos aquellos que lo aprenden como segunda lengua están inevitablemente expuestos a desarrollar un segundo oído interior, por el cual las comparaciones léxicas, por inconscientes que aparezcan, son potencialmente conductos de una percepción más clara y aguda de los distintos valores de representación que se dan en diferentes lenguas. De este modo, nuestras palabras adquieren impensadamente perfiles y brillos u opacidades inusitadas al compararse con sus equivalentes —muchas veces sólo aproximativos— en las lenguas que vamos incorporando”<sup>6</sup>.

Hitz hauek idazten ditudalarik, duela bi mila urteko ontzi baten hondakinak aurkitu bide dituzte Mediterraneoko Ba-

<sup>5</sup> *The Works of the Rev. Jonathan Swift, D. D. (The Tattler, No. CCXXX)*, William Durell and Co., 1812.

<sup>6</sup> *La palabra amenazada*, Libros del Zorzal, 2003.

lear Uharteetan. Arrantzaleek aspaldi hartua zioten susmoa, itsasalde hartan sareak botatzean anfora zatiak kateatzen zitzaizkiela ikusita. Zientoka anfora dira, itxura batera, hiru-rogeita hamar metroko sakoneran topatu dituztenak, zer eta, erromatarrentzat jaki kuttun zen *garuma* garraiatzen zutenak, ustez. *Garuma*, arrain ustelduz eta tripakiz egindako nahaske-ta gordin samarra zen, gure gaurko dastamenarentzat bortitz samarra litzatekeena. Erromatarren errezeta preziatuaren in-terpretazio asko egin dituzten arren, inork ez daki zehazki zein zapore zuen. Orain ere nekez jakingo dugu: anfora haietako *garuma* joana da, ontziak baino ez dira geratzen. Hizkuntzei buruz esan ohi dugu horixe direla, ontziak baino ez, tresna era-bilgarriak, ideiek irauten dutela eta galdu egiten direla bidean hizkuntzak, posible dela Ovidioren jarraitzaile izatea latinik jakin gabe. Baina batzuetan, urpean topatu dituzten anfora hauen kasuan legez, ontzia iristen zaigu eta *garumik* ez batere. Javier Cercasek eta Adan Kovacsicsek aipatutakoen harira diot hau, idazle baten aberria eta lanabesa “lengoaia dela eta ez hiz-kuntza” esatean bat etorri baitziren biak. Baina, benetan hain aise bereiz daitezke bata eta bestea, ontzi eta eduki? Zergatik setatzen dira orduan hainbeste Kentuckyko bourbon lantegiak eta bestelako upategiak euren isurgai goxoak “haritz ameri-karrez egindako upeletan onduak” izan direla esaten?<sup>7</sup> Abe-rriarri dagokionez, erraza da nork bere burua aberrigabetzat jotzea —sanoa eta derrigorrezkoa ere bai, ziurrenik, pentsalari aske baten kasuan deserri literarioaren intermitentzia balizkoa edo benetakoa besarkatzea: ezin upategitik at gaudela alda-rrikatzea—, baina ez ote da ilusio bat baino? Zergatik esaten du, osterantzean, Marie Darrieussecqek frantsesez gogotsuago idazteari ekin ziola García Márquezek “frantsesa hizkuntza hi-

<sup>7</sup> Ados, badakit hori literatura dela. Ez dago deus literarioagorik, alkohol botila baten etiketa baino.

la” zela esan ostein? Zer da hizkuntza bat, beraz, anfora ala *garum*, ezpata ala ezkutu, gezi ala arku?

Sylvia Molloy idazleak pasadizo durduzagarría kontatzen du hizkuntza bat edo beste hitz egitearen ondorio muturrekoen: “En un disparatado intento de limpiar el país de indeseables, el dictador dominicano Rafael Leónidas Trujillo determinó en 1937 eliminar a los haitianos que casi a diario cruzaban la frontera por razones de trabajo, o que ya la habían cruzado años antes para radicarse en un país que les ofrecía mejores oportunidades. El tamiz por el cual se hacía pasar al presunto haitiano era lingüístico. Se lo detenía, se le hacía decir la palabra *perejil* (o, dicen otros, *tijera colorada*) y si la pronunciaba con la erre gutural del francés y con la jota trabajosa, se le negaba la entrada y, en más de un caso, se lo mataba”<sup>8</sup>. Badirudi, Rafael Leónidas Trujillorentzat, “lengoaia” ez baizik eta “ahoskera” zela aberria.

Ivonne Bordelois saiatzen da hizkuntzaren ontzi edo *garum* izaera ebazten: “Las lenguas no son sólo construcciones verbales específicas, sino que acarrear con ellas la experiencia de cada nación, experiencia única para la cual existen, por cierto, leyes de traducción y validación en otras lenguas, sin que esto implique eliminar, sin embargo, un residuo intransferible que constituye lo precioso, lo único y necesario de cada lenguaje, o que cada uno aporta irremplazablemente a la mente universal. Lacan ha llegado a decir que el único saber sigue siendo el saber de las lenguas. Las lenguas orientan, fijan y limitan nuestro horizonte cognoscitivo: los celtas no conocían lingüísticamente la diferencia entre el verde y el azul, ante la muerte, los yámanas —que carecen del verbo morir— dicen que los hombres se pierden, pero los animales se rompen (...). Pero además

<sup>8</sup> *Vivir entre lenguas*, Eterna Cadencia Editora, 2016.

[a las lenguas] hay que hacerlas dialogar entre sí, del mismo modo que los anfitriones presentan a los amigos para alcanzar la diversidad y la plenitud de la fiesta.” Horrek gogorazi dit norbait hiltzen denean “ezkutatu” egin dela esan ohi dela euskaraz. Betidanik egin zait deigarri “natura hila” esaten diogun horrentzat anglosaxoniarrak esapide baikorragoa izatea: “Still life” (“bizitza geldia” literalki, “still alive”, edo “oraindik bizirik” esamoldetik hain gertu dagoena, bestalde). Kasu hauetan, ez ote dago esaterik hizkuntza ere badela idazlearen aberri, nola izan daitekeen hiztunaren hautazko aberria “cáncer” deritzona pairatu beharrean “minbizia”<sup>9</sup> pairatu nahi duenarena? Gauza bera ote da “hablar con uno mismo” edo “norbere buruari hitz egitea”? Ez ote da eleaniztasunaren abantaila hizkuntza bakoitzak eman dezakeen hipotesirik baikorrenaren uzta norberaren egiteko aukera —*aberrianiztasuna*, hain zuzen—?

Miguel Sáenzek gogorarazi digu, Pasternaken ustez, bere libururik onena Goetheren *Fausto* maisulanaren itzulpena zela. Gauza bera entzun genion behin Javier Mariási Laurence Sterneren *Tristram Shandy* aipatuz. Joseba Sarrionandia bera, idazle bezain itzultzaile ez ote da? Izan ote liteke inor benetan idazle, lehenago, ondoren edo aldi berean, itzultzaile —sikiera intrakraneal, sikiera ezkutuko— izan gabe? Ez ote da idazlearen lana *garuma* ontzi batetik bestera aldatzea, harik eta anforak *garumaren* kutsua bereganatu arte, eta alderantziz?

Hizkuntza bat utzi eta beste bat besarkatzeak nortasun aldaketaren fantasia eragiten badu —eman atsedean zure *ni bati* eta asmatu *ni berri bat*—, halatsu gertatzen zait idazle izateari utzi eta itzultzailearen larruan sartzen naizenean. Nortasunaren aldaketaren eta azalberritzearen sentipen kitzikagarria eragiten didala horrek, alegia. 2008. urte inguruan Grana-

<sup>9</sup> Bordoisek, aurrez aipatu liburuan adibide argigarri askoak ematen dizkigu: “Los ingleses hablan de sentencias (*sentences*), es decir, que se sienten jueces dirigiéndose a acusados; nosotros, en oraciones, dirigiéndonos como creyentes, a través de nuestros interlocutores, a Dios; más prácticos y racionales, los holandeses hablan de significados (*zinnen*); y los franceses típicamente, incurren en frases (*phrases*), ya que la frase es la unidad rítmica fundamental. Metafóricamente, el inglés considera el acto de hablar como un juicio, el holandés como una afirmación de sentido, el francés como una danza y el español como una ocasión de rezar, de hablar —con dios primero”.

dara joan nintzen, liburu bat besapean. Poema bilduma bat zen, euskaraz idatzi eta neronek gaztelaniara itzulia. Entzuleek hala eskatuta, poema batzuk ele bietan irakurri nituen, euskaraz lehenbizi, gaztelaniaz gero. Emanaldiaren amaieran, emakumezko atsegin bat inguratu zitzaidan euskararen musika zein gustuko izan zuen esatera. Berrogeita hamar urteak ongi beteak izan arren, euskara bertatik bertara entzun zuen lehen aldia zela esan zidan. “Creía que era un idioma más violento” aitortu zidan, hizkuntza bati atxiki dakizkiokeen bertute-akatsen artean guztiz bateraezina zen adjektibo *fatala* ahoskatuz. Atsegina izateaz gain tuntuna ez baitzen emakumea, hanka sartu zuela jabeturik, berehala saiatu zen zehazten: “Lo que quería decir es que creía que se parecía más al alemán”. Konpondu beharrean, putzuan plaust egin zuen ñabardura harekin, baina ez zait adibide hoberik bururaten hizkuntzari herritar inkontzienteak erants diezazkiokeen zamak eta estigmak azaltzeko. Ulertu ere, ezin hobeto ulertzen bainuen emakume hark zuen hizkuntzarekiko aurrejuzkua, nire irakurketaren ondoren, onerako aldatua: “Nazien filmetako aleman zaunkari huraxe da hizkuntzarik biolentoena, holokaustoaren hizkuntza ofiziala, eta euskara ere, fikziozko etakideen filmetan eta manifestari zakarren oihu eta aldarrietan baino entzun ez dudana, ez dabilkio urruti”. Darriussecqek primeran azaldu zuen: “Zaila da, hemen Frantzian, gutiengoa dena bertzela hartzea: iduri du gutiengoa agertzea haren apologia egitea dela”. Apologizatzen gauzkate, baina ez gara. Gutxiengo izatea eta hala agertzea, noiztik da apologia? Betidanik, nonbait. Entzulearen baitan dago arazoa: euskara entzuten du hainbatek, guk *western*etako siouxak edo mafiakide errusiarrak entzuten genituen ber gisan, azpituturik gabe (“HABLA VASCO, OUT OF

ORDER”). Nola ulertarazi munduari hizkuntzek ez dutela arimarik? Italiara, demagun, *cosa nostratik* eta operako arietatik haratago doan hizkuntza dela, mafiaz eta lirikaz gain beste dimentsio eta esparruetarako baliagarri? Erosoegia da, ordea, mundu globalean etiketekin *quattro stagioni* bat egin eta gauza guztiak dagozkion apalean daudela sinetsita lasai demonio geratzea. Denok egiten dugu: sailkatu, ez pentsatzeko. Nori ez zaio, bada, lasai bizitzea gustatzen?

Euskaraz idatzi eta geure burua gaztelaniara itzultzen dugunok piztarioko pieza gara, agian. Saguaren burua eta lehoiaren isatsa dudala senti nezake batzuetan, bi hizkuntz komunitatetan *nagoela* eta bi komunitate literario ezberdinetan *naizela* —eta, gainera, bi ogibide berdin *ruinosotako*<sup>10</sup> partaide—, baina, aldi berean, ez nagoela eta ez naizela ez batean eta ezta bestean ere. Schrödingerren katua bezala, kutxa barruan nago eta ez nago. Eta gustatzen zait egon gabe egote hori, eroso nago, bat dator hau nire izaera eta nortasun intermitente eta zalantzakorrarekin, atean edo leiho bazterrean egongelaren erdian baino gusturago egoten direnetakoa naizenez. Nire burua liburu berbera birritan bi hizkuntza ezberdinetan aurkezten harrapatzen dudanean (batzuetan urteak igaro direlarik jatorrizko edizioa argitaratu zenetik), fartsante sentitzen naiz, bigarren eskuko autoen saltzaile setati, nire buruarekiko izan dezakedan mesfidantza eta distantzia ironikoa handitu baino ez du egiten ispiluen jokoak, kontraesanak azaleratu egiten dira, eta nortasun, hizkuntza, eta are, lengoia berri baten bilaketan saiatu beste aukerarik ez zait geratzen nire burua nolabait erredimituko badut, handiegia baita gogoia esateko: “Liburu hau ez da nire gaurko niarena, beste ni urrun batena baizik”. Izan ere, erabat elebiduna izatea posible al da, *fifty fifty*? Ezezkoan

<sup>10</sup> Honatx euskaraz mintzo naizenean etengabe erabiltzen dudana gaztelaniazko hitza: *ruinoso*. Iragazkorra baita hizkuntzen arteko harremana, itzultzen ez dakigunak edo itzuli nahi ez dugunak definitzen gaituelako akaso, eta zenbait hitz ez itzultzearen plazera norbere buruari ematea bezalakorik ez dagoelako. Berdin egiten zuten idazle errusiarrek frantsesarekin, ala?

nago. Eta posible al da, bestalde, idazle eta itzultzaile izatea, erdi eta erdi? Hor ere ezezkoan nago. Ilusio bat da “cleanitzasun proporzionala”, nola den ilusio bat ogibide bien simetria. Beraz, eta simetriaz hitz egitea ezinezkoa den heinean, hizkuntzek eta ogibideek geure burmuinetan duten hedadura errizomatikoa onarturik, beti dago bat nagusitzen dena. Euskaraz idatzi eta gaztelaniara itzultzen dut nire burua, desagertzeko arriskutik urrun ez dagoen hizkuntzan sentitzen naiz idazleago, baina ez diot muzin egiten lehoi-buztan izan naitekeen komunitate literario hegemoniko batean gaztelaniazko *avatar* bat sortzeari. *Second life*. Espioitza joko bat da, infiltratu bat naiz, agente bikoitz.

Gero eta gehiago, nire aberria itzulpena dela sentitzen dut; ez hizkuntza, ezta lengoaia ere, baizik eta itzulpenaren ariketa. Eta baita nire ofizioa ere: *traducere*, zerbait leku batetik bestera eramatea baita latinez, mugitzea, alegia. Baita ofizio batetik bestera mugitzea ere. Jean-Luc Godardek ezin hobeto azaldu zuen: “Garrantzitsuena ez da nondik ateratzen dituzun gauzak, baizik eta nora eramaten dituzun”. Itzultzailea eta idazlea, ondorioz, gauzak garraiatzeaz arduratzen diren jendea dira, mudantza batzuetan erraz eta beste batzuetan konplikatuak egiten saiatzen direnak<sup>11</sup>. Hizkuntza hegemoniko eta ez hegemonikoen arteko bidea, etxe handi eta etxe txikien artekoa balitz, onartu beharko genuke etxe txikiak ere badituztela beren xarma eta abantailak (dena eskura izatea eta hautsak garbitzen denbora gutxiago pasatzea, demagun). Joan-etorriko bide horrek, garraio lanak, lur irmorik ezak, hizkuntza batetik bestera etengabe intermitentzian aritzeak, indartu baino ez du egiten nire ahultasuna, gure ogibide hauskorrarekiko dudan ikuspegi ironikoa, bizi ikuskera oso bat harrapatzen due-

<sup>11</sup> Eta Miguel Sáenzek Guillermo Brownen hitzak mailegatuta gaztigitzen digun legez, “beti puskatzen dira gauzak etxe-aldaketak egitean”.

na, pixkana-pixkana eta tantaz tanta iragazten doan jarrera hau nongotasunaren erroa pitzatzen ari balitzait bezala (Adan Kovacsicsek aipatzen du hegemoniko ez diren hizkuntzen ezaugarrietako bat dela pitzaduren hau), halako moldez non, Javier Cercasi arrazoia eman ez, anfora hautsi, hizkuntzaren mintza suntsitu eta *garum*arekin bat egiteko zorian bainago. Marie Darrieussecqek “euskal idazle frankofono europar” bezala deskribatu bazuen bere burua, “idazle alderantzizkagarri eusko-europartzat” deskribatu beharko nuke nik nirea, alde bietatik jantzi daitezkeen arren ia beti alde berera daramagun jaka *reversible*<sup>12</sup> horien gisara. Bigarren alde, alde erantzia, barrukoa, inauteri eta kamufflaje asmoekin soilik erabiltzen ote dut? Ez litzateke txarra hala balitz, jai-asmoak eta intentzio jostariak ez baitira inoiz gutxietsi behar, batez ere ni bezalako agente bikoitz baten kasuan<sup>13</sup>.

Karlos Cidek aipatu zigun Milan Kunderak itzultzaileekiko duen jelsia profesionala, nola hizkuntza ezagutzen ez duen kasuetan ere badituen Brnoko idazleak bere “berifikazio teknikak” itzulpena ona ote den ala ez jakiteko. Itzultzaileak Europa eraikitzen duten langile apalekin alderatzen ditu Kunderak. Zentzu berean, esana zuen inoiz Umberto Eco ere Europako hizkuntza komuna ez dela ingelesa, baizik eta itzulpena bera, itzultzearen ariketa, etengabeko jarduna, hitzak balantzan eta zalantzan jartzeko modu sanoa, amaierarik gabeko ikasgaia, latinezko *traducerea*, lekuz mugitzea, hitzen eta mugarren garraraio.

Hedapen urriko hizkuntza batean idaztearen nekerik handiena ez da, nire ustez, balizko tradizio falta edota *le mot juste* hori aurkitzeko zailtasun gehigarri bat izatea, baizik eta hizkuntzaren giharrak egiaz bereganatu ez dituen lurralde eta giroak fikzioan birsortu beharra (fikzio bikoitza: existitzen ez den

<sup>12</sup> Ikus 10. oharra.

<sup>13</sup> Agente bikoitza bai, baina agente bikoitz (edo hirukoitz) onek bezala, inongo zerbitzu sekretuentzat lan egiten ez duena, ezpada nire buruarentzat.



erregistro edo giro linguistiko bat existitzen dela irudikatzearen fikzioa, lehenik, gehi, simulakro hori fikzioan funtzionaraztea, gero). Geure epaitegiak, aireportuak, osasun zentroetako asko, hoteletako ia gehienak, ezlekuak dira euskararentzat. “Life vest under your seat” ez da sekula euskarara itzulia eta Airbus bateko besaulkiaren bizkarrean izkiriatua izan. Hotel batean ez didate sekula galdetu euskaraz “¿Ha consumido usted algo del minibar?”. Une horietan sentitzen dut hizkuntza hegemonikoen inbidia gehien. Esaldi horiek errealitatean euskaraz inork existiarazi ez dituenetz, fikzioan haiek kokatzea nekagarriagoa da-teke. “FUMAR MATA” esaldia ez du sekula irakurriko euskaldun batek tabako pakete batean<sup>14</sup>. Unibertsitatean hizkuntza juridikoa asko garatu den arren, epaien ehuneko %99a gaztelaniaz ematen da Euskal Herrian. Hara hor idazlearen zeregina: fikzio bikoitza. Ez dago gaztelaniaz emandako epai bat euskaratzen saiatzea bezalakorik hizkuntzaren tranpak eta hautsak astintzeko: “el juicio cautelar debe valorar circunstancialmente el interés del conflicto que la ampara, es decir, el cómo y el cuándo se ejercita, frente al grado de madurez y consolidación que ofrecen las decisiones sobre las que se intenta incidir o impactar, que en este caso resulta claramente decantado en favor del interés público en la ejecución” bezalako esaldi baten aurrean, itzulpen on bat izan liteke erasorik —apelaziorik— onena. Benetan behar da halako hizkuntza hanpatua XXI. mendean epai bat emateko? Zertara datoz “incidir o impactar” bezalako hitz ez-juridikoak? Binaka eman behar dira beti hitzak (“madurez y consolidación”) argudioak indartuko badira? Benetan zaila da gaztelaniazko jerga juridiko zaharkituaren aurrean *refresh* botoiari sakatzeko modu bat bilatzen ez saiatzea. Hizkuntza hanpatuak eta haren ezkutaketarako joerak, sumindu egin

<sup>14</sup> Iparramerikarrak bagina, honezkero eraman genituen epaitegietara, geure bira porrokatuen errua tabako konpainia erraldoien hizkuntz politika eskasari egotzita.

gaitzakete eta korrika batean beste hizkuntza baten babes eta abarora —bi hitz erabiltzeagatik nik ere— bultzatu.

Adan Kovacsicsek Ernst Benz ekarri zuen akordura, lengoaiaren garapenaren azelerazioak lengoaiaren suntsipenera ote garamatzen susmoa agertzeko. Suntsipen hori hemen dago, geure begi eta belarrien aurrean gertatzen ari da, eta ez da Amazoniako oihanarena baino onberagoa.

Idazlearen zeregina, honenbestez, itzultzailea izatea da, agian. Agente bikoitza. Makinak eta itzultzaile automatikoak isiltzen direnean, azpitoluek “HABLA EN SU IDIOMA, EZ DABIL” zurigarriarekin eskuak garbitzen dituztenean, *hotsifikatutako* guneen interpretazioa egitea eta hots horietatik zentzua, diskurtsoa, arrazoiak destilatzen saiatzea da gure lana. Abiaduraren kontra, ahots bakarraren kontra. Hautsitako anforekin, egin dezagun anfora berri bat. Pitzadurak agerian dituen anfora berri zahar bat. Eta berriro apurtu. Eta beste bat egin. Eta berriro apurtu. Eta beste bat egin. Jatorririk gabe, amaierarik gabe. Zenbat eta pitzadura gehiago, are artezago gu puska ttipiak itsasten. Hautsi da anfora, eta berregin dugu. Berriro lurrera bota eta hausten ikusteko.

Anjel Lertxundiren ariketaren ispilu alderantzizkatuan neure burua *The Lady from Shanghai* filmeko azken sekuentzian bezala ipiniz gero, gustatuko litzaidake sinestea, hizkuntza hegemoniko batean idatziko banu, itzultzen duena (eta itzultzen dena) izango nintzatekeela. Etxe ttipietatik handietara eta handietatik ttipietara altzariak eramaten dituen. Geldirik ez dagoena. *Daramagun*, *dakargun* eta *demagun* gehiago eta demagogia gutxiago praktikatzen duen norbait.





# -

## *esker onez*

Kultur ibilbidean izaten dira gonbidapen batzuk konprometituak, deserosoak, *a priori* arriskutik gehiago eskaintzen dutenak saritik baino. Halakoxea zen hainbat idazle eta itzultzaileri luzatu genien gure gonbidapena ere: hizkuntza gutxituetan ari diren idazleen larruan jartzeko eskatzen genien. Halako ariketa batek, ordea, ausardia intelektuala eskatzen du eta lan intelektualaren dimentsio sozialean sinestea. Eskatzen du, halaber, garbi ikustea gaiaren mamia eta garrantzia: munduak, arazo askoren artean, literatura hegemonikoek apenas erreparatzen dieten hizkuntza gutxituen iraupena duela arazo.

Hori guztia erakutsi dute, erruz, Javier Cercas, Karlos Cid, Marie Darrieussecq, Adan Kovacsics, Miguel Sáenz eta Raul Zelik. Nire eskerrik beroenak. Esker zintzoena Antton Valverderi bere musikarengatik. Oso ondoan izan ditut eta babestua sentitu naiz Harkaitz Cano eta Felipe Retamalen konpainia noblean.

Azkenik, hasiera: ohorea da niretzat Donostia 2016tik gutun zuria jaso izana Xabi Payaren menbretearekin; zoriekoa izango ahal da zuentzat ematen saiatu garen erantzuna.

Ez adiorik: liburuan gaude.

*anjel  
lertxundi*

-



*bienvenida* -





-

# *una carta blanca*

*Xabier Paya Ruiz*  
*Director de Programa Cultural*  
*San Sebastián 2016 Capital Europea de la Cultura*

**EN EL JUEGO DE CARTAS**, antes de que se creara la imagen del *Joker* o comodín, parece ser que un naipe en blanco era su equivalente. Quien lo recibía podía combinarlo de la forma más conveniente con el resto de cartas en su mano, para aprovechar así al máximo la coyuntura. Probablemente fue siguiendo a ese espíritu como crearon el proyecto *carte blanche* en Francia. El término es, en general, bastante conocido en la denominada francofonía: una institución del sector cultural ofrece una serie de recursos a un artista para que desarrolle un conjunto de actividades culturales de su interés. El artista suele tener una

trayectoria notoria en una disciplina determinada, y a menudo suele tener tendencia a renovar la programación existente.

El programa de candidatura de San Sebastián 2016 Capital Europea de la Cultura no había previsto el proyecto de cartas blancas. Fue el Director General de su Fundación, Pablo Berástegui, quien propuso la inclusión del proyecto en el programa, y ofrecer a tres creadores con prolíficas carreras tres cartas blancas: la artista multidisciplinar Esther Ferrer, la bailarina y coreógrafa Jone San Martín, y el escritor Anjel Lertxundi. San Sebastián 2016 ofreció una serie de recursos a cada artista, con el objetivo de que desarrollaran un proyecto dentro de su ámbito durante el año de celebración de la capitalidad.

Aun así, la inclusión en un programa de Capital Europea de la Cultura no es tan simple. Todo proyecto debe cumplir tres criterios: debe poseer dimensión europea (es decir, debe tratar la colaboración entre agentes y creadores culturales de Europa, o temas recogidos en las estrategias de la Unión Europea), debe fomentar la participación ciudadana (debe ofrecer varias vías y oportunidades de participar a la ciudadanía) y debe tener legado (y por tanto el resultado del proyecto debe tener vida más allá de 2016). Las cartas blancas de este caso, en consecuencia, han debido cumplir esos tres condicionantes. La selección de Anjel Lertxundi no requiere de explicación alguna; son pocos los escritores vascos que pueden igualar semejante cosecha literaria. Recuerdo que cuando le hicimos la propuesta no tardó en aceptar, pero luego se tomó unas semanas para elaborar el germen del proyecto. El resultado fue inmejorable: un proyecto literario que partía del intercambio epistolar entre los escritores polacos Milosz y Gombrowicz. Siendo la otra capital cultural

del año 2016 la ciudad polaca de Wroclaw, ofrecía un punto de partida estupendo para despertar la curiosidad en torno a la literatura de Polonia. Dado que la conversación entre los escritores polacos ponía en duda la supervivencia de su lengua, Anjel aprovechó esa duda para reflexionar en torno a la efímera situación de los creadores que trabajan en lenguas minorizadas. Es más, queriendo promover la capacidad tan saludable para la convivencia de ponerse en el lugar del prójimo, quiso hacerles sentir a escritores y traductores de lenguas hegemónicas la agonia de trabajar en un idioma de alcance reducido en el espacio y el tiempo.

Los días 12 y 13 de diciembre se reunieron los escritores y traductores, tres de cada disciplina, que aceptaron el reto de Anjel. Tras el intercambio de opiniones de las jornadas, cada uno recogió sus impresiones y vivencias en este libro. He ahí, por tanto, una carta blanca que cumple perfectamente los criterios previamente mencionados:

– Los fundamentos del proyecto son unas jornadas y un libro que fomentan la reflexión en torno a la diversidad lingüística europea; crear sociedades reflexivas e inclusivas es un reto de la Estrategia Horizonte 2020, entre otros.

– La ciudadanía pudo participar en las jornadas, y San Sebastián 2016 pondrá el libro al alcance de aquellos que puedan tener un interés especial por el tema.

– Las grabaciones de las jornadas ya disponibles en red, el libro publicado en euskera, castellano y las lenguas originales de los autores, y las relaciones entre escritores y traductores son las claves para la continuidad del proyecto.

En nombre de San Sebastián 2016, quiero transmitir mi más sincero agradecimiento a todos aquellos que han parti-

cipado en el proyecto: Anjel Lertxundi, Harkaitz Cano, Marie Darrieussecq, Javier Cercas, Raul Zelik, Adan Kovacsics, Miguel Sáenz, Karlos Cid, Antton Valverde, Goizalde Landabaso, Xabier Olarra, a los intérpretes de las jornadas y traductores del libro, y a las asociaciones EIZIE y EIE; y cómo no, al equipo que se ha encargado de la coordinación del proyecto, guiado por mi compañero Felipe Retamal.

Estoy seguro de que todo aquel que lea el libro descubrirá muchas pistas para esbozar el camino hacia una mejor convivencia para una sociedad que habla varias lenguas. ¡Buena lectura!





-

# *si dentro de cien años*

*escribir en una lengua minoritaria*

*Anjel Lertxundi*

**LA SOMBRA DE LA MUERTE** es alargada e inapelable: todos/ todo moriremos. Somos mera finitud. Otros nacerán, dice una canción muy nuestra, pero eso no supone consuelo alguno para quien siente la proximidad de la muerte. Quien atisba su cercanía se aferra a la vida, quiere retrasar la muerte, se afana en poner remedio a los achaques, a la edad, al debilitamiento y a las enfermedades. Aferrarse a la vida es una ley de la propia vida, y nos lleva a actuar como si no existiese la muerte. Sin embargo, ocurre que la flaqueza del cuerpo o el riesgo de perder la salud condicionan la vida. Otro tanto sucede con la

lengua y con su salud: su situación, sea saludable o de debilidad, condiciona a quien la utiliza, a quien se propone dar vida a las letras a través de ella.

Cada escritor es un mundo, y la lengua juega un papel preponderante en ese su mundo de escritor. Cada lengua posee su aliento, su paso, su idiosincrasia; sus defectos y virtudes; sus aspectos deficientes y vigorosos. Cada lengua tiene su estilo propio de ser en el mundo. Cómo es la lengua y cuál la relación del escritor con ella: he ahí el origen de la marca indeleble que preside su literatura. Existen escritores en quienes la situación de la lengua apenas incide o no lo hace en absoluto y los hay que la viven de manera agónica (“los que tocan las trompas del pesimismo”, en palabras del polaco Zygmunt Mycielski): son muchos los tipos de escritor que caben en los pliegues de ese abanico. Pero en todos los casos se puede medir la situación de la lengua, su peso, su lastre. Gracias a ello, la relación que el escritor mantiene con la lengua nos resulta de gran utilidad para comprender su obra artística.

**SE ME CLAVÓ EN LA MEMORIA**, hace ya algunos años, cierta especulación contenida en una carta que Gombrowicz escribiera a Czeslaw Milosz, especulación que constituye el núcleo de las colaboraciones recogidas en este libro: ambos escritores polacos se cruzaban cartas acerca del futuro de la literatura de su nación, y Gombrowicz le decía a Milosz, pero como hablando para sí: “Si, dentro de cien años, nuestra lengua todavía existe...?”.

